

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-05-13  
ASTELEHENA  
409. ZENBAKIA  
10. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM



"Herri bat zatituta dagoenean, hizkuntza ere halaxe egoten da"

Koldo Zuazo | Hizkuntzalari | 7

Imanol Bolinaga Bergarako alkate izandakoa hil da | 4



Julen Mendizabal eta Kepa Arkauz, espetxeratuta | 4



Harrera elkartearen helburua bazkideak bikoiztea da | 4



## Antzuola, ligako txapeldun!

Idiazabali errepasso ederra eman zion Antzuolak atzo (5-0), eta Getariakok galdu egin zuen Sorluzen; hala, ligako txapeldun dira antzuolarrak, eta mailaz igoko dira | 22

Partidua amaitutakoan Antzuolakoek talde argazkia egin zuten, Estalan izan ziren zale gaztetxoekin batera.

JOSETXO ARANTZABAL

### Ford Mugarri Lehen Nazional Mailara igo da Kantabrian

Santoñaren kontra 22-29 irabazita lortu dute igoera | 24



Garaikurratz, etxean. | ZURIÑE VM

## Joseba Larrinagari agurra, Otala-Zelain

Krosaren ostean egin zioten omenaldi jendetsua | 26



Zuhaitza, Larrinaga gogoan izateko.



**AUDIFONOETAN**  
**%20**  
ARTEKO BEHERAPENA MAIATZAREN 31 ARTE

ENTZUMEN-OSASUN EZIN HOBEAZ GOZATZEA USTE DUZUNA BAINO ERRAZAGOA DA.

**GAESen ENTZUMENA DOAN** aztertuko dizugu.

Eta orain gainera zorro tolesgarri bat opari.




[www.gaes.es](http://www.gaes.es)

\* Kontsulta itzazu zentroan, promozioaren baldintzak

# Hiru herritako 210 familia auzo-konposta egiten dabilta

- ▶ Bergaran joan den astean atera zuten lehenengo konposta, eta ongari gisa erabili dute
- ▶ Eskoriatzan eta Oñatin ere martxan dira guneak

**LEIRE KORTABARRIA** | DEBAGOIENA  
Oraingo astean eman du Debagoieneko auzo-konpostajeak bere lehenengo emaitza, izan ere, Bergaran martxan dagoen auzo-konpostaje gunetik atera dute lehenengo konposta. Joan den eguaztenean hustu zituzten Labegarietako auzo-konpostaje guneko konpost-gailuak, eta auzotarren ortuan ongari gisa erabili zuten segidan handik ateratakoa. Urtarrilean hasi ziren auzotarrak gune horretara hondakin organikoa errotan. 12 familiaren artean egin dute konpost hori.

Eskoriatzan ere urtarrilean, hilaren 9an jarri zen martxan auzo-konpostaje gunea, Dorleta auzoan, hain zuzen ere; 31 familiak erabiltzen dute. Geroago, apirilaren 30ean, inauguratu zituen Oñatik bere lau lehenengo auzo-konpostaje guneak, Zubibarrikoa, Bidebarrietakoa, Ugarkaldekoa eta San Lorentzokoa; hurrenez hurren, 40, 36, 34 eta 47 familia daude horiek erabiltzeko izena emanda. Beraz, oraingoz 210 familia dabilta Debagoieneko hiru herri horietan auzo-konposta egiten.

## Potea, etxe barruan

Labegarietako auzotarrak pozik daude emaitza horrekin eta bai-

ta, orokorrean, auzo-konposta egiteko esperientziarekin: "Hasieran ez genekien zelan funtzionatuko zuen. Ikastaroa eman ziguten eta poliki-poliki bakoitza bere kubotxoarekin etortzen hasi zen", esaten du Iñaki Muxika auzotarrak. "Hasieran zalantzan geneuzkan... ea ondo egiten genbiltzan... organikoa bistan geratzen zela, eltxoak zetozela... baina Udalarekin eta teknikariekin berba egin eta zalantzak erantzuten dizkigute", gaineratzen du.

Muxikak dioenez, konposta egitearen inguruan "gauza asko entzuten da: eltxoak eta arratoiak ibiltzen direla..." Baina Labegarietako gunean auzotarrek ez dute halakorik ikusi.

Beste uste bat hauxe da: zabor organikoa usaina botatzen duela. Muxikaren esanetan, organikorako kuboa "etxean edo balkoian" uzten dute eta, etxe barruan izaten dutenetan, "ez du usainik sortzen".

## Bota, eragin eta estali

Hondakin organikoa traba egiten edo usaina botatzen hasten bada, kuboa konpostaje gunera eroan eta han hustu besterik ez dago. Izan ere, gaikako bilketan (atez atekoa) ez bezala, auzo-konpostaje sistemarekin edozein momentutan hustu daiteke hondakin

organikoaren ontzia. Bizilagun bakoitzak konpostaje guneko giltza dauka eta nahi duenean joan daiteke. Iñaki Muxikak dio "astean behin edo bi aldiz" joaten direla etxeok. Normalean, hala izaten da.

Debagoieneko auzo-konpostaje gune guztiak oso antzekoak dira: hesiz inguratutako guneak, leku berdeetan -konposta egiteko hala behar delako- eta etxebizitzetatik aparte samar, trabarik ez egiteko bizilagunei. Barruan, hainbat arko edo kutxa daude; batetik, konpost-gailuak eurak; eta, bestetik, tresna batzuk eta lehorkina (txirbila eta adar txikituak) gordetzeko kutzak. Auzo-konposta egiteko, familia bakoitzak berari dagokion arkoian botatzen du hondakin organikoa eta eragin egiten dio, organiko berria eta zaharra, dena homogeneizatzeko. Gero, ondo estaltzen da dena lehorkinarekin.

Bergaran, Labegarietako gunean, konpost-gailu txikiak eta handiak izan dituzte. Erabiltzaileek txikietan botatzen zuten hondakin organikoa, eta, haiek bete ahala, handira pasatzen zuten. Joan den astean konpost-gailu handia hustu zuten. Orain, konpost-gailu handi berriak ipini dizkiete. Oñatin, aldiz, konpost-gailu handiak ipini dizkiete



Labegarietako auzo-konpostaje gunean, eguaztenean. | OIHANA ELORTZA



Arkaitz Tolosa udal langilea, ezkerrean, eta Iñaki Muxika auzotarra, konpost-gailua

zuzenean hantxe egiteko konposta. Dena dela, herri gehien kasuan, lehenengo hilabete hauek proba hilabeteak dira, erabiltzaileek eta arduradunek eurek ere sistema ikasteko eta arazoak konpontzeko.

## 60 gradutik behera

Bergarako lorezainen arduraduna da Arkaitz Tolosa udal langilea. Berak azaltzen digu nola egiten den konposta: "Erabiltzaileek, lehenengo, kutxa batera botatzen dute organikoa, eta deskonposaketa-fasea hor egiten da. Gero hortik konpost-gailu handiagora pasatzen dute, bertan heltze-fasea egiteko".

Hainbat fase daude. Lehenengo fasean, hondakinak 60°C inguru hartzen ditu, deskonposatzen hasi ahala. Bigarren fase baten, mikro-organismoak sartzen dira, konpost bihurtzen hasten da eta 40°C ingurura jaisten da tenperatura. Pixkana -pixkana hondakina konpost bihurtzen joaten da eta tenperatura jaisten doa; azkenean, hotza dago, usainik gabe: konposta da. Arkaitz Tolosak dioenez, konpost hori "leku askotan" erabiliko dute: "barazetan, lore-potoetan, herriko lorategietan... Izan ere, konposta oso elikagai ona da".

## Arrasaten, obrak hastear

Gainerako herrietan ere auzo-konpostaje guneak egiteko edo martxan jartzeko asmo zehatzak daude. Aretxabaletan, Txarapean dute gunea egokituta, eta hama-bost egun barru-edo ipiniko ditu Udalak konpost-gailuak. Proba pilotua egingo dute han 52 familiak.

Arrasaten, hiru lekutan egingo dute konposta auzotarrek: Uribe auzoan, Laubide plazan eta Nafarroa etorbidean. 100 familiak eman dute izena, eta derri-gorrezkoa den ikastaroa eginda daukate. Laubide plazakoa egingo dute lehenengo, eta oraingo astean hasi nahi dituzte lanak, ekainerako martxan ipintzeko asmoarekin.

Bergaran, gune gehiago ipiniko dituzte; hurrengo Ibargaraikoa izango da. Gero, Osintxun, Espoioian, Bolun eta, hortik aurrera, izena ematen duen jendea nongoa den arabera. Ibargarain obrak hasita daudela esan du Arianne Kareaga zinegotziak. 28 familia daude izena emanda. Osintxun ere "jende askok" eman duela izena esan du Kareagak. Denetara, Bergaran 130 familia daude auzo-konposta egitera konprometituta.

Eskoriatzan, zaharren egoitza inguruan martxan ipini zuten

DATUA		
<b>20</b> KONPOSTAJE GUNE	<b>47</b> FAMILIA	<b>5</b> HILABETE
Oraingoz, sei gune daude martxan bailaran, eta datozen hilabeteotan beste 14 egin edo zabalduko dituzte.	Erabiltzaile gehien dituen konpostaje gunea, orain arte, San Lorentzokoa da, Oñatin: 47 familiak erabiliko dute.	Labegarieta auzoko konpostaje gunean, 12 familiak bost hilabete hartu dute konposta egiteko.



Konposta ongarri gisa ipintzen. | ARGAZKILARIAXXX



husten. | OIHANA ELORTZA

## ESANAK

**"Helburua da hondakin organikoa birziklatze-ziklotik ateratzea eta zikloa bera hobetzea"**

ARIANNE KAREAGA | BERGARAKO UDAL ARDURADUNA

**"Badaude herrietan konpostaje guneak ipintzeko txoko egokiak eta txukunak, berdeguneetan"**

bigarren gune bat, eta arazo batzuk konpondu eta gero laster irekiko dute berriro. Saioa Alzua udal arduradunak dioskunez, aurten beste bi gune ipiniko dituzte, segun eta nongo herritarrek apuntatzen diren.

Oñatin, beste bi gune izango dira; denetara, sei.

Leintz Gatzagan, Udala egunotan dabil herritarrei galdetzen zer gurago duten, auzo-konpostajea edo norberak etxean bere konpost-gailua izatea. Auzo-konpostaje gune bat izango dute eta obrak maiatz bukaeran hasiko dituzte; San Juanetarako gertu izan gura dute.

**Edozeinek egin dezake**

Auzo-konpostaje programen atzean dagoen helburua azaltzen du Bergarako udal arduradun Arianne Kareagak: "Hondakin organikoa birziklatze ziklotik atera nahi dugu. Izan ere, arazo handiena sortzen duena hondakin organikoa da. Herrian bertan

berau kudeatzeko gai bagara, ziklotik ateratzeko birziklatze-zikloaren mesederako, hobeto". Orain arte -eta gaur egun ere- norberak etxean konpostaje giteko konpost-gailuak banatzen dituzte, baina sistema berriak erakusten du konpostaje edozeinek egin dezakeela.

Auzo-konpostaje egiteko lekuak egokitzea zen udalen beste erronka. Kareagaren iritziz, "txoko txukunak egin daitezke. Berdeguneak behar dira, baina inoiz ez litzaziguke bururatuko parkeetan halako gune bat ipintzea. Baina badaude herrian horretarako txoko proposak".



LEIRE KORTABARRIA

JOTA ARRIETA ETA MAJE UMEREZ | ESKORIATZARRAK

## "Pote txiki eta arina dugu organikorako, eta astean bizpahiru aldiz husten dugu"

Jotak, Majek eta bi seme-alabek urtariletik erabiltzen dute Dorleta auzoko konpost-gunea.

**Zer dela eta apuntatu zineten?**

Jota Arrieta: Konbentzitututa gaudelako hondakinak arazoa direla eta neurriren bat hartu behar genuela. Aldez aurretik iritzi asko izaten ditugu: hau gaitza izango da, arazoak emango ditu... baina, probatu arte, ezin da jakin.

**Nola antolatu zarete etxean?**

J.A.: Hasieran uste genuen leku handia beharko genuela; gure etxea ez da handia eta balkoirik ez daukagu; baina erraza da. Errefuserako, pote txiki batekin nahikoa da. Organikoa aldiro -aldiro ateratzen dugu. Pote txiki eta eramangarria dugu, pisu txikia hartzen duena. Astean bi edo hiru aldiz husten dugu.

Maje Umerez: Martitzenetan, lagun baten otar ekologikoa jasotzen dugu eta egun horretan bete egiten da potea;

orduan, hurrengo goizean ateratzen dugu. Arazoa izan zen arraska azpian ez genuela leku gehiagorik, eta han genuen kubo handia kendu eta bi txiki ipini genituen.

**Organikoa da "zabor-poltsaren" zati handiena?**

J.A.: Plastikoak bulto handia hartzen du, baina ez du sentazio hori ematen. Bolumen eta pisu handiena organikoak dauka, bai.

**Usainak, eltxoak... izan duzue aparteko arazorik?**

M.U.: Ez du usainik egiten. Egindako janari askorik ez dugu botatzen; normalean, barazkiak-eta. Eltxoak, bai, egiten dira konpost-gailuan. Tapa kentzerakoan apur bat alderatzea komeni da, eta gero, organikoa botatzea. Ez da gustukoa, baina ez dute heltzen. Goizean, ordu freskoetan gutxiago daude; egun bero baten, arratsaldean joaten bazara, gehiago izango dituzu.

**Beti dago  
lehen aldi bat  
edo zertarako...**

Ezberdin jatera ausartzeko.  
Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai;  
erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko, adibidez.  
Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeke uena.  
Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

**10€**

oparituko dizkizugu online egindako  
lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik gorako eskaerarako balio du.

eroski.es

EROSKI online

zurekin

# Azken atxiloketen aurkako aldarriak nagusi Arrasateko manifestazioan

Zapatuan espetxeratu zituzten Frantzian atxilotutako sei lagunak

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Jende ugari elkartu zen egubakoitz arratsaldean Arrasaten azken atxiloketak salatzeko deitutako manifestazioan. Eragile ugari deitutako agerraldia izan zen. Eta asko izan ziren atxiloketak salatzeko zein Kepa Arkauz eta Julen Mendizabal arrasatearren eta beste lau euskal herritarren egoeraz kezka adierazteko bertaratu zirenak ere. Seber Altube plazatik abiatu zen *Gatazkaren konponbidean ATXILOKETARIK EZ!* lelopean manifestazioa eta toki berean amaitu zen; kaleetan zehar elkartasun eta salaketa oihuak entzun ziren.

Manifestazioaren amaieran LABeko kide batek irakurri zuen adierazpena. Hala, herritar zein eragileei horrelako egoeren aurrean aktiboki parte hartu dezaten egin zieten dei. Bestalde, euskal gizarteak bizi duen egoera hobetzeko oraindik asko dagoela egiteko gaineratu zuten, eta bes-



Manifestazio jendetsua, Arrasateko kaleetan. | ZV.D.M.

teen artean, elkarrizketa bideak irekitzea aldarrikatu zuten.

## Atxilotuak espetxean

Zapatu arratsaldean Frantzian atxilotutako sei euskal herritarrak espetxeratzeko agindua eman zuten Parisko Auzitegi Berezia-

"helburu terroristako gaizkile taldeko kide" izatea leporatu eta inputatuta".

Albistea jakin aurretik zapatu eguerdian agerraldia egin zuten Arrasateko Herriko Plazan Arkauz eta Mendizabalen egoera salatu eta kezka azaltzeko.

# Bazkide kopurua bikoiztea Harrera elkartearen erronka

Lehenengo urtea beteta, batzar orokorra egin zuten Harrera elkarteak Arrasaten zapatuan

ZV.D.M. | ARRASATE

Aurreneko urtea pasata, Harrera Elkartea Asistentzialak batzar orokorra egin zuten zapatuan Arrasateko Kulturateko areto nagusian. Egun elkarteak 800 bazkidez osatzen da eta aurrera begira beste horren-

beste lortzearen garrantziaz hitz egin zuten. Horretarako, jendea arazoak eta elkartearen beharrez konbentzitu behar dela aipatu zuten batzar orokorrean: "Eta ez soilik gure ideia bera dutenak, gainera".



Harrera elkartearen batzar orokorra Arrasaten. | ZV.D.M.

## Arazoen aurrean, elkartasuna

Preso eta iheslarietako etxeratze ziklo bat ixten dute eta beste bat irekitzen da. "Arazoak agertzen dira orduan: ekonomikoak, administratiboak..." Horiei aurre egiten laguntzen dute Harreratik. Arazo administratibo eta juridikoak izaten dira, ekonomikoak batera, etxeratzean aurkitzen dituzten traba handienak: "Osasun txartela eta nortasun agiria lortu behar izaten dute. Askok, ez dute baliabide ekonomikorik, ez lanik..."

## Arazoen aurrean, elkartasuna

Oro har, urtearen balorazio positiboa egin zuten Juan Karlos Ioldi lehendakari ordeak. Etorkizuneko erronka nagusiak, bazkide kopurua bikoiztea eta laguntza ematen jarraitzea direla gaineratu zuten. Elkartearen lanik gabe dauden kopurua zero izatea ere bilatuko dute.

Amaitzeko, jende guztia animatu gura izan zuten diru ekarpena egitera; hala, etorkizuneko arazoak konpontzeko baliabide gehiago izango lukete eta.

# Imanol Bolinaga Bergarako alkate izandakoa hil zen egubakoitzean

ZV.D.M. | BERGARA

Imanol Bolinaga (Arrasate, 1933) Bergarako alkate izandakoa egubakoitzean hil zen, 80 urte zituela bihotzekoak jota, Alacanten. EAJko kidea zen.

## Politikagintzan murgilduta

Klandestinitatean hasi zen lanean 1950an. Ondoren, politikagintzan sartu eta bide luzea egin zuen. Bergarako alkatea izateaz gainera (1983-1987), zinegotzia izan zen, Jose Luis Elkoro alkate

zenez (1987-1991). Alkate izan zeneko agintaldian, batzarkide ere izan zen Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Gainera, 1988an Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuorde izendatu zuten; EA Eren ordezkari gisa, senataria izan zen Espainian, 1991tik 1999ra bitartean. Europako parlamentuan ere egon zen.

La Vergaresa autobusetako gerentea izan zen, Transconor enpresako kontseilaria eta Ecuador Bidaietako zuzendaria.



Imanol Bolinaga, 2011n. | GOIENA

# Herritarrak informatuz Hondakinen Mahaiko 1. go fasea amaitu dute

ZV.D.M. | ARETXABALETA

Zapatuan hondakinen inguruko azken bilera informatzailea egin zuten. Udalak sortutako Hondakinen Mahaiko azken taldeak (herritarrek osatutakoa) elkartu zen Arkupen, hondakinek sortzen duten arazoez berba egiteko. Euskara eta gaztelaniazko saioak egin zituzten, 50 lagun inguruk parte hartuz.

Lore Martinez Ingurumen zinegotziak positiboki baloratu du ekimena: "Baina 7.000 biztanle inguru gara eta 120 inguru soilik etorri dira. Behintzat aukera egon da zalantzak eta azaldu eta argitzeko".

Bigarren faseari ekingo diote irailean eta orduan sistema beraren xehetasunak erabakiko dituzte".



Hondakinei buruzko bilera informatzailea, herritarrekin. | ARGAZKILARIAXXX

**LENIZ**  
ESKORIATZA

**SUZUKI**

**KONPONKETAK:**

Txapa

Margoa

Mekanika

Aingeru Guarda Pasealekua 31. Eskoriatza. • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10



Elorregin egingo dute inaugurazio ekitaldia. | IMANOL GALLEGO

# Domekan zabalduko dute Oñati-Arrasate bidegorria

Oñatiko Txirrinka taldeak bizikleta martxa antolatu du Oñatitik Elorregira

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Urteetan Arrasatek eta Oñatik euren bidegorri zatiak izan ostean, orain etenik gabe, bi herriak lotuko dituen bidegorriak domekan zabalduko dute obra. Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu zuen obra egiteko ardura eta 8,3 kilometro luze dituen ibilbideak 3.290.000 euroko kostua izan du.

Aurreikuspenen arabera, hasiera batean, lanak maiatzeko bukatuko zituztela esan

arren, izandako negu euritsuak hamabost egun atzeratu du irekiera data. Ibilbideak ez ditu gauzak erraztu. Oñatiren kasuan Magdalenako tunelak lan ugari eskatu ditu eta Elorregin ere lan konplexua egin dute. Arrasateko ibilbidea errazagoa izango da eta kilometro gehienetan vasconavarro trenak egiten zuen ibilbidea aprobetxatu du. Hala ere, tunelak behar bezala argizatzeko esfortzu berezia egin dute.

**Ospakizun eguna**

Aldundiak erdiko gune moduan Elorregi aukeratu du bidegorriaren irekiera ekitaldia egiteko. 11:00etan Txirrinka taldeak bizikleta martxa antolatu du Oñatitik Elorregira. Ordu bete beranduago, Elorregin inaugurazioan Larraitz Ugarterekin batera Bergara, Oñati eta Arrasateko ordezkariak egongo dira. Irekiera ekitaldiaren ostean, Elorregin jokoak ere antolatu dituzte.

Mikel Baztan | Baso teknikaria

## "Larregi kontsumitu dugu eta ez dugu gure ingurua behar bezala zaindu"

Noaingo berdeguneak hobeto planifikatu eta diseinatu lo-hiriaren bizitza handitzea lortu du

I.G. | ARRASATE

Mikel Baztanek beti izan du berdeguneekin nolabaiteko erlazioa. Bera baso teknikaria izan arren, hiri eta herrietako berdeguneetan garatu du karre-gehierna.

**Berdeguneak beti izan dira zure ogibidea?**

Bai. 1986an zazpi urtez, Iruñeko lorategiak zaintzen hasi ginen. Gero beste hiru urtez barazkigintza ekologikoak ekoiztu nituen eta 1997tik Noaingo berdeguneetan aritzen naiz.

**Nolako hiria da Noain? ?**

Noaindarrek herriak eskaintzen dizkien zerbitzuak erabiltzen dituzte, baina etorri berri gehienak Iruñeatik datozen bizitza gehiena hiriburuan egiten dute, hor dago arazo handiena. Hala ere, apurka apurka hasi gara herriko giroa pizten.

**Herri baten bizitza berpizteko orduan merkataritzaz hitz egiten da beti, baina zuek berdeguneen bitartez lortu duzue hori.**

Hala da bai. Nortasuna aldatzeko eta autoestima pizteko balio izan du. Lehen Noaingo kaleak askoz grisagoak ziren. Trafiko ugari, trenbidea, autobidea, aireportua... Nire ustez berdeguneen bitartez ikuspegi hori aldatzea lortu dugu. Orain jendeak Noaini buruz hitz egi-



Mikel Baztan. | IMANOL GALLEGO

ten duenean, tren edo trafikoaren aurretik berdeguneak aipatzen ditu.

**Urtetan herriak pertsonengatik alden du ostean, orain bateratze prozesu batean sartu direla uste duzu?**

Zorionez horrela dirudi. Kontsumistaegiak izan gara eta ez dugu gure ingurua behar bezala zaindu. Orain aldaketa egiteko garaia iritsi da. Berdeguneak, parkeak, oinezkoentzako tokiak... Horrelako proiektuek herria eta herritarrak lotzen dituzte.

**Noaingo berdeguneak bitxikeri edo eredu bat dira ?**

Nik eredu bat direla esango nuke. Gure ekimenak beste herri batzuen jakingura piztu du eta hori oso ona da.

## "Sariak gure dibertsifikazio estrategia sendotzen du"

Assemblyk PYME industrial saria jaso du

I.G. | ARETXABALETA

Eguenean Gipuzkoako Merkataritza Ganberak enprekin urteroko hitzordua burutu zuen eta bertan, Aretxabaletako Mondragon Assemblyk txalo eta laudorio guztiak bereganatu zituen. Assemblyk dibertsifikazio esparruan egindako lanagatik PYME industrial saria eskuratu zuen. Enpresako presidente den Arkaitz Mardarasek esan moduan, "egindako lan eta strategiari bultzada gisa jaso dugu saria".

**Dibertsifikazioaren saria**

Merezitako saria izan da Ganberak eman dion saria, izan ere, 1988. urtean enpresa sortu zenetik ikerketa, garapena eta berrikuntzara bideratu dute enpresaren ibilbidea. Estrategia

horrek gainera enpresaren etorkizuna ere indartzen duela dio Mardarasek: "Sariak gure apustua sendotzen du, dudarik gabe". Enpresako lantegian garatutako eguzki energiarena eta makina berezien lan lerroak izan dira dibertsifikazio horren erakusle handienak.

Sari honek, baina, ez du Assamblyren etorkizuneko strategiak aldatu: "Nazioartekatze strategiari erantzun nahian lantokiak ditugu" dio Mardarasek. Beti ere, euren etxe nagusia den Aretxabaletako planta alde batera utzi gabe. Aurrerantzean dibertsifikazioa ere oso presente izango du Assamblyk, izan ere bere lana sektore fotovoltaiakora, farmazetikora eta automatizazioa bideratuko ditu-eta.

## Gradu ikasketak online egiteko aukera berriak Mondragon Unibertsitatean

Haur eta Lehen Hezkuntza graduak online burutzeko aukera egongo da

ANE ETXEBARRIA | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak eskaintza berria aurkeztu du Graduak online eta erdi presentzial modalitatean (*e-learning*) burutzeko. Hala, modalitate berri hauei esker Hezkuntza Graduak online eta euskaraz eskuratzeko aukera izango dute ikasleek. Modu honetan norberak bere erara eta erritmora ikasteko aukera izango du, nahiz eta prozesuan zehar saio presentzialak ere tartekatuko diren. Ikasi daitezkeen graduak bi dira: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduak.

Horrela bada, Irakasle Ikasketetan diplomatura izan eta Haur Hezkuntzan edota Lehen Hezkuntzan (Atzerriko hizkuntzan, Hezkuntza Berezia edota Hezkuntza Fisikoan) gradu-titulua lortu nahi duten ikasleek aukera bikaina izango dute. Informazio gehiago nahi duten

guztiek posta elektronikoko bat bidaltzerik izango dute helbide honetara: [idazkaritza.huhezi@mondragon.edu](mailto: idazkaritza.huhezi@mondragon.edu). Eguenean, hilak 16, ate irekien jardunaldia ospatuko da Eskoriatzako HUEZIn

arratsaldeko 18:00tatik aurrera. Hortaz, ikasketa hauetan interesa duten guztiek, aukera bikaina izango dute behar duten informazio guztia eskuratzeko eta gradu hauetan izen-emateko.

**Goienaren RENT**  
Ibilgailuen alokairua

**AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIRUA ONATIN**

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko




INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK  
943 71 66 52 / 619 44 71 75  
[goienarent@goienarent.com](mailto:goienarent@goienarent.com)

WWW.GOIENARENRENT.COM

# Oñatiarren zuzendaritzapean, Natrak 1,6 milioi garbi irabazi ditu aurten

Valentziako enpresak oso datu onak lortu ditu lehen hiruhilekoan

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Natra enpresaren kakao eta txokolate negozioa, zati baten Oñatin egiten dena, hazi egin da. Hain zuzen, 2013ko lehenengo hiruhilekoan, % 1,8 gehiago saldu du, eta 79,96 milioi euro-

ko fakturazioa lortu du. Iazko epe berberarekiko emaitzak hobetu ditu, eta bere EBITDA (interesak, zergak, depreziazioa eta amortizazioak aplikatu aurretiko emaitzak) ere % 9,9 hobetu zen, 4,89 milioi eurotaraino;

2012ko lehenengo hiruhilekoan, 4,45 milioi euro lortu zituen. Irabazi garbiak 1,6 milioikoak izan dira, iazko epe berean baino % 66,9 gehiago, eta negozio-zifra 88,1 milioikoa izan da, % 3,6 gehiago.

Oñatin lantegia duen Valentziako enpresak azpimarratu du kakaoa eta txokolatea dela bere aktibitate nagusia, eta, orokorrean, "kontsumoa ahul" badago ere, gero eta zifra hobeak lortu dituztela, "2012an hasitako hobe-

kuntza operatiboa eta marjinen berreskuratzea jarraituz".

Natrako zuzendaritzaren esanetan, "industriako produktu-dibisioa indartsu egotea eta kontsumorako produktu-dibisioko prozesuak eta hornikuntzak modu eraginkorrean kudeatzea" izan dira hazkunde horren "motor nagusiak".

Hobekuntza operatibo guztiegi esker, Natra enpresaren esplotazio-emaitza % 53 handitu da eta 5,04 milioi eurokoa izan da lehenengo hiruhilekoan.

## Aldaketa eraginkorrak

2010era arte burtsan balioa galtzen joan ondoren, egoerari buelta ematea lortu zuen Natrak eta garai onak bizi ditu gaur egun. Hala, 2011 ezker, ordura arte zeukan zorra kentzen joateko estrategiari ekin zion multinazionalak, eta zuzendaritzako kide batzuk aldatu ziren; tartean, Zahorreko Juan Ignacio Egaña aukeratu zuten taldeko Administrazio Kontseiluko presidente, eta Mikel Beitia, kontseilari delegatu. Horrekin batera, Natraceutical adarrak Naturex enpresan zuen parte-hartzea saldu egin zuen eta Forté Pharma negozioa indartzeari ekin zion. Mugimendu horiek akziodunak konbentzitu dituzte eta, aurten, Natrak % 37,6 irabazi du orain arte burtsan.

Akziodunen artean daude gaur egungo presidentea, Juan Ignacio Egaña (akzioen % 1,5), eta Kutxabank, CK Corporación Kutxaren bitartez (akzioen % 9,1).



Natraren Oñatiko lantegiko instalazio batzuk. Beste argazkian, Mikel Beitia, kontseilari delegatua. | NATRA

## DATUAK

**% 10**

GEHIAGO

Natraren EBITDA % 9,9 hobetu da iazko 1. hiruhilekoarekin alderatuta.

**5**

MILIOI EURO PASA

Natraren esplotazio-emaitza % 53 handitu da eta 5,04 milioikoa izan da.

## Kutxak 15 milioi ditu gizarte ekintzarako

Iaz baino 23 milioi gutxiago da; dena dela, baliteke aurrekontua 21 milioira handitzea

L.K. | ARRASATE

Euskal kutxek iaz ipini zutenaren erdia ipiniko dute aurten gizarte ekintzarako, apirilean batzar orokorrek aurrekontuak onartu zituztenean zehaztu zen moduan. Kutxa, BBK eta Vital Kutxabanken bat eginda egon arren, bakoitzak bere gizarte ekintza zereginei eusten die. Horrenbestez, bakoitzak bere aurrekontuak onartu ditu: Kutxak 14,91 milioi izango ditu gizarte ekintzarako, iaz baino 23 milioi gutxiago. Dena dela, azkenean 21,4 milioiko aurrekontua izan dezake Kutxak, zenbait salmenta aurreikuspen betetzen badira.

Bestalde, BBK-k 32,8 milioiko aurrekontua izango du, iazko erdia; eta Vitalek, 6,5 milioi, iaz baino bat gutxiago; besteak beste, Vitalquiler gazteendako alokairu programa bertan behera utzi du.

**Irabazi guztiak erabili nahi** Kutxabank-ek 84,6 milioi euro garbi kontsolidatu irabazi zituen,

2011n baino % 65,5 gutxiago, eta horrek eragina izan du gizarte ekintzarako aurrekontuetan ere. Dena dela, Espainiako Bankuari baimena eskatu diote kutxek joan den ekitaldiko irabazi guztiak gizarte ekintzarako erabiltzeko; hala esan zuen Kutxabankeko eta BBK-ko presidentek, Mario Fernandezek. Jakinarazi zuenez, BBK-k behintzat krisiaren aurkako programei eutsiko die, eta gutxiago parte hartuko dute aisialdi eta kultura ekintzetan.

## DATUA

**% 50**

TXIKITU

BBKren gizarte ekintzak 32,8 milioiko aurrekontua du aurten, iazkoaren erdia. Krisiaren aurkako ekintzak lehenetsiko ditu.

## Balazten lerroko jarduera berri batek enplegua sor dezake Fagor Ederlanen

L.K. | ESKORITATZA

Jarduera berriari ekingo dio Fagor Ederlanek, Kanadako Asteria Performance enpresarekin egin duen hitzarmenaren eskutik: hain zuzen, balazta (freno) sistema aurreratu bat egingo du eta bera izango da horren hornitzailea European, ibilgailu industrialen aplikazioetarako.

Hitzarmenaren lehenengo fasean, Fagor Ederlanek merkatuaren prospekzioa egingo du, ibilgailu industrialen behar zehatzetan sakontzeko. Gainera, balazta sistema fabrikatzeko prozesua diseinatzeko eta garatzeko ere balioko du.

Fase horri jarduera industrial berri baten garapen potentzialak

jarraituko dio. Fagor Ederlanen esanetan, fase horrek "enplegua sortzea ahalbidetuko" du, "horixe izanik kooperatibaren jardueraren motor nagusia, taldearen balio proposamena eboluzionatzearekin batera".

## AEBetan zertifikatua

Fagor Ederlanek industri ibilgailuen sektorean ditu bere salmenten zati bat. Kooperatibaren esanetan, Asteria Performancek diseinatu eta patentatu duen soluzioa "oso egokia" da kamioien balaztetarako.

Asteriaren balazta soluzioak %30 denbora eta espazio txikiagoan geratzen du ibilgailua, AEBetan egiaztatzen den moduan.



Kanadako Asteria Performance enpresak diseinatutako balaztak. | FAGOR EDERLAN

## Euskadik lau postu galdu ditu Europako sailkapenean

L.K. | ARRASATE

EAEk postu batzuk galdu ditu Europako eskualdeen 2010eko sailkapenean. Barne Produktu Gordinaren arabera dago eginda sailkapen hori. Eurostatetik eman ditu estatistika horien datuak, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eman du haien berri. Estatistika horren arabera, EAE 30. postuan zegoen Europako Batasuna osatzen duten 270 eskualdeen artean, 2009an baino lau postu beherago. Hain zuzen, Europako Batasunaren batez bestekoak 100eko balioa hartzen badu, EAEk 132ko BPG zuen biztanle bakoitzeko, aurreko balioa baino bi puntu beherago. 2007an lortu zuen sailkapen horretako balio maximoa, 136. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ohartarazten du "litekeena" dela 2012an berriro atzera egitea EAEk sailkapen horretan.

Eskualde aberatsena, sailkapen horren arabera, Londresko Citya da, biztanleko 328ko BPGrekin.

Koldo Zuazo | Hizkuntzalari eta dialektologoa

# "Nazio bat ondo kohesionatuta dagoenean, hizkuntzan ere batasuna ikusten da"

- ▶ 'Nazio egitura eta hizkuntza' gaiaren gainean jardun du Koldo Zuazok Arrasaten
- ▶ Euskalkien sorreran Nafarroako Erresumaren galerak zerikusi zuzena izan zuela dio

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Koldo Zuazo (Eibar, 1965) hizkuntzalari EHUko irakaslea eta euskaltzain urgazlea da. Arrasaten izan genuen aurreko astean, *Nazio egitura eta hizkuntza* gaiaz berbetan. Zuztarrak Errotuz taldeak, Nabarralde eta Arrasateko Udalak elkarlanean antolatu duten Udaberriko Hitzaldi Zikloaren azken-aurrekoa izan da. Euskalkiak, Leintz aldeko berbeta, estatuak, nazioak, hizkuntzak... izan ditu berbetagai.

**Gaur egun ezagutzen ditugun euskalkiak Erdi Aroan sortu zirela diozu. Baita Leintz aldekoa ere?**

Ziurrenera bai. Leintz aldea oso lotuta egon da Arabarekin eta, hain zuzen, Araban ikusten dut euskalkietako baten sorgunea. Araba ardatz zela, Bizkaira, Deba ibarrera, Goierri eta Nafarroako mendebalera zabaldu zen: Burunda, Ameskua eta Lana eskualdeetara. Beharbada, baita Burgos eta Errioxa aldera ere. 'Mendebaleko' euskalkia deitzen diot horri eta denetan zabalena eta inportanteenetakoa dela uste dut.

**Debarroan zenbat euskalki bereizten dituzu?**

Euskalki bakarra, baina hiru berbeta mota. Bata, Debagoienera egiten da, Leintzen, Oñatin eta Aramaion (Oleta auzoa kenduta). Bestea, erdigunean, Bergara, Antzuola, Elgeta, Sorluze, Eibar eta Ermuan. Hirugarrena Elgoibar, Mendaro eta Mutrikukoa da. Azken honetan oso indartsua da euskara giputzaren eragina. Deba bera gaur egun bete-betean ikusten dut euskara giputzaren barruan.

**Arabako euskara da zure azken liburua eta bertan diozu, besteak beste, Mendebaleko euskalkiaren ardatza Araba eta, zehatzago esateko, Gasteiz dela, eta handik zabaldu zela inguruetara... Hasiera batean, harrigarria dirudi, ezta?**

Bai. Orain arte beti esan digute Araba erdalduna zela eta euskalkiaren ardatza Bizkaia zela. Baina azken urteotan, Araban idatzi diren testuak agertu dira eta, horri esker, hango euskara zelakoa zen ezagutu ahal izan dugu. Horretaz gainera, Araba ondoko berbetak ere ezagutu ditugu eta garbi ikusten da Debagoiena batez ere, baina baita Goierri eta Burunda ere, Arabara begira egon direla. Hiru berbeta horiek bereziak dira eta Arabarekin eduki duten hartu-emanen dago, gehienbat, berezitasunaren arrazoia.

**Mendebaldeko berba asko erabiltzen dira Nafarroako Burundan edo Gipuzkoako Goierri ere. Hortik uler daiteke zeure teoria?**



Koldo Zuazo Arrasaten hizlari izan dugu oraingo astean. | GOIENA

Bai, eta ez dira bakarrik berbak. Esate baterako, Debagoienera *-ketan* atzizkia erabiltzen da: *bialketan, ezauketan, ezkonketan...* Orain arte bertakoa zela uste genuen, baina azkenaldian ikusi denez, Arabako izkribuetan ere agertzen dira. Hori dala eta, ez

du ematen Debagoienera sortu direnik; Arabatik hartu dituela baino. Beste adibide bat esango dizut. Debagoienera "gaztaie gustetan jat" nahiz "gaztaiek gustetan jat" esaten da. Beti "jat", gaztai bat nahiz gaztai asko izan. Gauza bera gertatzen da Goierriin.

Han ere "gaztaiek gustatzen zat" esaten da, gazta asko izan arren. Eta hori ere Arabako izkribuetan agertzen da. Bai Goierri eta bai Debagoienak handik hartu du jokabide hori. **Beste ze froga duzu zure teoria egiaztatzeko?**

**"Gasteizen eragina nabaria da Goierriko eta Debagoieneko berbetan"**

**"Nafarroako Erresuma desegin zenean sortu ziren euskalkiak"**

**"Herri bat zatituta dagoenean, hizkuntza ere halaxe egoten da"**

Hizkuntza bat zabaltzeko herri handiak behar dira eta antzina mendebal osoan zegoen herri handi bakarra Gasteiz zen. Gaur egun Bizkaian daude herri handiak: Bilbo, Getxo, Barakaldo, Sestao... baina horien handitasuna "atzo goizekoa" da. Bizkaiko herri handiak sortu zirenerako, euskalkia egituratuta zegoen.

**Euskalkietan berezitu zara edo zeregin horrengatik zara batez ere ezaguna, baina Arabako euskara ikertzen ere urteak daroatzazu. Zer dela-eta?**

1956 arte ez genekien ezer hango euskararen gainean eta ordutik hona lan handia egin da eta benetako iraultza bat gertatu da. Toponimia aztertu da, testu idatziak agertu dira, Araba inguruko berbetak ezagutu dira... horrek guztiak ekarri du Arabako euskararen gaineko teoriak egun batetik bestera aldatu beharra. **Nazio egitura eta hizkuntza izan da Arrasateko berbaldi zikloaren barruan erabili duzun gaietako bat. Nazio egiturak zerikusi zuzena dauka hizkuntzarekin?**

Bai. Gure kasuan hobeto "nazio desegitura" esan. Azken batean, benetako herri bat osatzen ez dugulako dago hainbeste dialekto. Nazio bat ondo kohesionatuta dagoenean, hizkuntzan ere batasuna ikusten da. Osera, herri bat zatituta dagoenean, hizkuntza ere halaxe egoten da. Zoritxarrez, horixe da guri gertatzen zaiguna. Euskal Herria zatituta egotea, benetako herri bat ez izatea da euskalkien ugaritasunaren arrazoia.

**Hizkuntzaren garapena eta Nafarroako Erresumaren ibilbidea oso estu daude lotuta? Zergatik?**

Ematen du Erromatarren ondorengo garaian euskara asko aldatu eta asko berdindu zela. Euskara berdintze hori Nafarroako Erresuma sortzearekin egon daiteke lotuta. Nafarroako Erresumak euskaldunak batu egin zituen, eta hizkuntzan ere ikusten da batasuna. Aldiz, badirudi Erresuma desegin zenean sortu zirela euskalkiak. Euskaldunen arteko batasuna galtzean, bakoitza bere aldetik ibiltzen hasi zen eta hizkuntzan ere horixe gertatu zen. **Zein da zure hurrengo proiektua; hau da, zer darabilzu esku artean?**

Azkenengo hiru urteak Nafarroan egon naiz, Araitz-Betelu eskualdean. Hango euskara aztertu dugu eta, hori amaitzen dugunean, euskara horren egoera hobetzeko egitasmo bat antolatzen ahaleginduko gara. Une honetan horixe daukat buruan.

## ZABALIK

JUAN MARTIN ELEXPURU  
http://goiena.net/iritzia/



## Pedro Garcia joan zaigu

Bergarako Udaletik deia oraintsu. Pedro Garcia Estevez *Pedrotxo* herritarra hil dela Grenoblen. Bere hango lagunek ikurrin bat eskatu dutela hiletarako. Berehala bidali dutela posta azkarrez. Hunkituta utzi ninduen berriak, aspalditik ezagutzen baikenuen elkar.

Oso gizon estimatua zen Pedro zebilen tokian. Jakin dugunez, jendetza handia bildu zen azken agurra egitera. Bera ezagututa, bandera gorria eta errepublikanoa ere agerian izango ziren egun horretan.

Aita asturiarra eta ama Medina del Campokoa. San Antonion jaio zen 1920an. Hamalau urte-rekin hasi zen lanean. Aibar-Txikirenean errekaduak egiten. 16 urte zituela irten zuen gerrak, eta berehala batu zen UHPko milizietara.

(Hurrengo datuak Juan Ramon Garairi sor dizkiot. Bide batez, txalo memoriaren alorrean hainbeste lan egiten ari den Intxorta Taldeari). Lehen lerroan ibili zen iparraldeko fronteak iraun zuen bitartean Intxortan, Maroton (Legutio), Artxandan eta Santander aldean. Preso hartu, eta faxisten ejertzitoan borrokatzera behartu zuten. Bala batek atzamarra eraman zion. Gerra amaitu arren, soldadu eduki zuten beste hiru urtez. Tuberkulosiak jota itzuli zen etxera 1942an.

Gerra ostean alderdi komunistan militatzen hasi zen. Josuren Gabilondo *Baxarte*, gerran Loiola Batailoi jeltzalean ibilitakoa, izango du adiskide min eta erkide harrezkero. JSU gazte erakunde antolatuta zuten. 100 kide izatera heldu ei zen Bergaran. 1947ko greba orokorra prestatzen ere jardun zuen. Klandestinitatean luzaroan ibili ondoren, Frantziara ihes egin zuen 1948an.

Grenoblen bizi zen. CGT sindikatuko ordezkaria izan zen lan egiten zuen enpresan. 2008an omenaldi txiki bat egin zien Bergarako Udalak *Pedrotxori* eta Josuren Gabilondoren alargunari.

Gizon irekia, jantzia, maitagarria, alaia, berriketan eta kantuan egitea maite zuena. Agur eta ohore, *Pedrotxo*. Doluminak Amaia eta Paloma alabei eta arreba Puritari.

"Maitagarria, alaia, berriketan eta kantuan egitea maite zuena"

## USTEAK USTE

UBANE MADERA | umadera@goiena.com

## Eskerrak plazer txiki horiei...

Zeri buruz egingo dugu kale inkesta? Langabeziari buruz? Jo, ba nahiago nuke halako kontu ezkorren gainekoa ez balitz, horren triste eta burumakur gabiltza... Zerbait pozgarriagoa. Uuuuuuuuu... Uuuuuuuuu... Ba ez zait ezer okurritzen... Ja, ez da batere erraza... A, bai! Real! Zergatik ez dugu Realaren gainean galdetzen? Egiten dabilen denboraldi zoragarria ikusita... Ederki!". Berriketaldi hori izan genuen orain pare bat aste erredakzioan. Berorrek erakusten du zelako errealitate gris-beltza bizitzen gabiltzan. Eskerrak tarteka (oso tarteka) Real modukoak agertzen diren. Kantu hark zioen moduan: ... *bizitzak emandako plazer txiki hoientatik ez balitz!*... Aupa, Real!

## KALE INKESTA

## Kirol profesionalen tranpak egiten dira?



CHEN DING  
ARRASATE

"Txirrindularitzan dopping kasuez asko hitz egiten da eta futboleko ere, arbitroak erostearen gaia ere aipatzen da noiz edo noiz".



JONE SALABERRY  
ARRASATE

"Bizitzako arlo gehienetan egiten dira tranpak eta kiroleko ere bai. Dirua edo ohorea sartzen direnean, jendeak denetik egiten du".



JOSE RAMON GOROSABEL  
ARRASATE

"Boxeo eta herri kiroleko drogen kontua entzun izan dut, apustuek ere eragiten dute. Benetako kirola gazteek Iturripen egiten dutena da".



MIREN GARCIA  
ARRASATE

"Ziur gainera. Txirrindularitza argi ikusten da. Egiten dituzten marka eta esfortzuak ez dira normalak".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Isiltasun konplizea ala isiltasun eraginkorra?

Mikel Garcia Idiakez  
argia.com/blogak/mikel-garcia/

Gaur [maiatzak 10] eraman behar zuten LOMCE legea Espainiako Ministro-Kontseilura, hezkuntza erreforma polemikoari buruzko eztabaida parlamentuan abiatzeko.

Azkenean atzeratu egin dute eguna, baina gaiak aritu nintzen atzo irakasle birekin eta kezkatuta zeuden, Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuaren isiltasunaz mesfidati.

Erreforma EAEk dituen hezkuntza eskuduntzak urratzen dituela edota euskararen estatusaren kontra egiten duela esana du sailburuak, lege-proiektuak "hainbat akats" dituela.

Erantzun epelegia dela eta irmotasuna falta zaiola iritzia diote irakasleok, apenas mintzatu dela gaiak, apenas salatu dituela Madrildik

datozen asmoak hedabideetan eta arloko eragileekin.

Isilegi dagoela uste dute, eta Wertekin negoziazio jokoan sartu beharrean, ozen esan beharko liokeela ezetz LOMCeri, Kataluniako Gobernuak egin duen moduan, lege-proposamena bere osotasunean deskalabru pedagogikoa delako.

Cristina Uriartek aldiz, eraginkortasunaren izenean defendatu zigun *Argia*-n bere jarrera:

"Erreforma ez zaigula batere gustatzen argi utzi ondoren, hitz egiteko eta ikuspuntuak hurbiltzeko momentua da eta ahalegin horretan aritu gara orain arte, nahiz eta batzuek gure jarrera kritikatu. Hurrengo eszenatokia Madrildo parlamentua dugu. Eta bertan ere, nahitaez, LOMCeren edukieraren inguruan eztabaidatu beharko dugu, gustatzen ez zaiguna salatuz eta gure argudioen alde eginez. Arduragabekeria litzateke mahaitik jaiki eta Madrildo Gobernuak bere gehiengo absolutuarekin egiten duenaren zain geratzea. Gure interesak defendatzen jarraitu beharrean gaude, eta horretarako, hitza erabili behar dugu".

Bitartean, ezari-ezarian erreforma ari da aurrera egiten, eta halako burugabekeriaren aurrean politikariak bakarrik ez, hezkuntza eragile guztiak, irakasle, guraso eta ikasleak, gizartea oro har, ozen mintzatu beharko litzateke, urtetako lanaren ondorio den hezkuntza eredu propioa aldarrikatu eta LOMCE arbuizatzeko.

LOMCeren erradiografia egin genuen *Wert erreforma: Deskalabru pedagogikoa* erreportajearen.

## Amildegiz amildegiz

Juan Luis Zabala  
http://berria.info/blogak/zabala/

Narratiba unibertsalaren historiako *mise en abyme* esanguratsuenen buruzko hitzaldia eman zuen, ondo harilkatua eta hobeto amaitua, arrakasta handiz.

Jasotako txaloak gogoan, euforiaren eraginpean gidatu zuen autoa etxerako bidean, harik eta bat-batean errepidetik irten eta labarrean behera amilduta hil zen arte.

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola  
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ubane Madera

Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai

(Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Xabier Urtzelai  
Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo  
Argazkilaria Imanol Soriano  
Publizitatea Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundifano, Zierza Martin,  
Imanol Elortza  
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate  
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia  
Administrazioa Argutzone Gaintzarain,  
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER  
ARRASATE 20500:  
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09


Publizitatea Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04  
ISSN: 2173-707X  
Tirada: 5.000 ale  
Difusioa: 4.383 ale



Eusko Jaurlaritza diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# Maiatzean, eskaintza berezia sukaldeko altzarietan

**%25eko  
beherapena  
sukaldeko altzarietan**



Zerbitzu osoa

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com) jarrai gaitzazu  

**KIBUC** Gure Ametsa

[gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)  
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia  
Tel. 943 15 16 81

**KIBUC**

Azkenean gure etxean

## UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Juan Maria Arantzeta Egizabal** | Independenteak (1983-1987)

- ▶ Hezkuntzako zinegotzia izan zen, Patxi Basauri alkate zutela
- ▶ Industrialdea eta eskolen bateratzea izan ziren haren agintaldiko proiektuetako bi
- ▶ Santi Brouard hil zuten egunean, osoko bilkura ez egitea erabaki zuten guztiek

# "Asko eztabaidatzen genuen, eta horrela iristen ginen adostasunetara, herriari begira beti"

OIHANA ELORTZA | ELGETA

Udal jarduna gertutik jarraitu du Juan Maria Arantzeta. "Azkenaldian, baina, urrutitik jarraitzen dut politika", aitortzen du. "Gauzak asko aldatu dira; lehen, herriari gehiago begiratzen zitzaion orain baino, gehiago eztabaidatzen zen", dio.

**Zelan sartu zinen Udalera?**

Independenteen izenean batzen ginen taldetxo bateko kide nintzen eta udal hauteskundeak heltzen zirenean, geure artean erabakitzen genuen nor sartu Udalera. Horrela izan zen.

**Ze oroitzen dituzu?**

Onak eta txarrak, denetarik oroitzen ditut. Garai hartan gehiengoa genuen Udalean: bost ginen gu, Patxi Basauri alkate zela, EAJk hiru zinegotzi zituen eta HBk bat.

Herriaren alde egiten genuen lan guztiok, eta, nahiz eta puntu batzuetan desadostasunak egon, orain baino gehiago izaten genuen kontuan herria.

**Zein izan zen momenturik gogorrenetakoa?**

Industrialdea martxan jarri genuena, duda barik. Hori aurrera eramateko erabakia hartu behar genuenean, jende asko etorri zen osoko bilkurara. Asko, gainera, abokatu eta guzti. Momentu gogorra izan zen, bai, baina herriarendako ona izango zela uste genuen eta denborarekin ikusi da erabaki zuzena hartu genuela. Herriko industrialdearen lehengo fasea izan zen hori. Egia da bigarren faseak ez duela emaitza bera izan, baina garaia eta bizi den egoera ere ez da berdina; gaur egun ez daude horrenbeste eskaera.



Juan Maria Arantzeta, Elgetan, egubakoitz goizean. | LARRAITZ ZEBERIO

**Hezkuntza zinegotzi izanda, zein proiektu nabarmenduko zenuke?**

Eskolen bateratzea. Ordura arte ikastola eta orduko eskola nazionala zeuden herrian eta biak batu

genituen, eskola bakarraren alde. Hori ere ez zen denen gustukoa izan, baina tira... Horri lotuta, ikasle nagusiak Bergarako ikastetxera jaisteko autobus zerbitzua

bermatzea ere nire arduretako bat zen, adibidez.

**Nola lantzen zenituzten gaiak?**

Hilean behin egiten genuen osoko bilkura, orain bezala, baina



Industrialdeko lehen fasea egin zuten Arantzeta agintaldian. | L.Z.

**"Orain erabakiak hartzen dira herriari horrenbeste begiratu barik"**

**"Kobratzen genuen dirua alkateari ematen genion hark kudeatzeko"**

komisioak ere izaten genituen eta aste barruan batzarrak egiten genituen. Lanaz gain izaten zen hori, jakina. Guk ez genuen dirurik irabazten zinegotzi izateagatik. Kobratu, kobratzen genuen, baina alkateari ematen genion gure dirusaria, hark kudeatzeko.

**Ze harreman zenuen beste alderdietako kideekin?**

Politika kontuetan ez genuen bat egiten batzuetan, baina gogoan dut asko eztabaidatzen genuela eta adostasunak ere horrela lortzen genituela. Herrira begira egiten genuen lan guztiok.

Gogoan dut, esaterako, Santi Brouard hil zuten eguna. Egun hartan osoko bilkura genuen udaletxean. HBko zinegotziak osokoa bertan behera uzteko proposamena egin zigun gainerako zinegotzi guztioi, eta denok esan genion bariet. Gertaeraren larritasunaz denok konturatu ginen, ez zen egon diskusiorik. Uste dut orain beste modu batera hartzen direla erabakiak, herriari kasu txikiagoa egiten zaiola, ez zaiola lehen beste begiratzen, eta hori ez zait batere gustatzen.

**Nolakoa iruditu zitzaizun udal ordezkari izateko lana?**

Nik gustura egin nuen, ikusten nuelako denok ari ginela batera lanean. Administrazio orokorrek gauzak beste ikuspuntu batetik begiratzen dituztela ere konturatu nintzen. Eskolak bateratu eta bakarra egin genuenean, adibidez, horrenbeste gela, laborategia eta ez dakit zenbat gauza gehiago jartzeko eskatu ziguten. Ez ziren konturatu Elgeta herri txikia dela. Herri guztiak ez dira berdinak.

# Miluk

ile apaindegia

Ile apaindegiaz gain, ORAIN,  
estetika zerbitzua ere badugu!

Depilazioak • Masajeak • Gorputz eta aurpegiko tratamenduak

943 76 51 82 • Osintxu 13 • Bergara

LEKU BEREAN  
ZERBITZU GUZTIAK,  
ETOR  
ZAITEZ!



# HERRIAK

ESKORIATZA

## Maiatza, mendiaren hilabetea

- ▶ Eskoriatzako Udalak eta Huhezik mendiarekin lotutako egitarau zabala antolatu dute
- ▶ Asteka banatuta, eskalada, mendi irteerak eta orientazio ekintzak jorratuko dituzte

IMANOL GALLEGO | ESKORIATZA

Mendia, bertsoak edo txakolina bezala, euskal izaera eta bizimoduaren parte da. Aisialdiaren zati handi bat mendian igarotzen dugu. Hori horrela dela ikusita, Huhezi fakultatea mendi astea antolatzen hasi zen. Aurten, baina, ekimena dezente handitu da. Rosa Lasagabaster Eskoriatzako Udaleko Kirol aholkulariak ekimena ezagutu eta osasun asteak izandako harrera onaren ostean, fakultatearekin batera, aste bat beharrean hilabete osoa antolatu dute. "Orain, ekimen osoagoa eskaintzen diegu eskoriatzar eta unibertsitateko ikasleei", dio Lasagabasterrek.

Goraipatzekoa da ekimenak batu dituen bi taldeak. Orain arte egiten ez zen moduan, ekimena hazi denetik, unibertsitateko ikasleek gain eskoriatzarrak ere bildu ditu. Herrian egiten diren ekintzak herrian dauden guztiei zabaldua. Ekintza guztiak irekiak dira; hala ere, Lasagabasterrek aipatu duen moduan, "astegunetako ekintzetara ikasle gehiago etortzen dira eta aste-buruetaoetara, berriz, herritar gehiago". Hasi berri duten ibilbidea ez da erraza izango, baina Eskoriatza bezalako herri txiki batean ikasle eta herritarrak batzea bururatu izana zoriontzekoa da.

### Asteka banatu dituzte

Mendia eta bertan egiten diren ekintzak hobeto jorratu eta sailkatzeko, ekintza bakoitzari hilabete honetako aste bat eskaini diote. Maiatzeko lehen astean, eskalada kontuei heldu zieten. Eguraldiak kale egin arren, ekimen oso harrera ona izan zuten.

Bihar, Eskoriatzako Vasco-Navarro trenbide zatia ezagutzeko ibilaldia egingo dute. Mendi irteerei eskaini dioten aste honen barruan, eguaztenean herriko mendi elkarte biziberritzeko asmoarekin bilera egingo dute udaletxean, bertaratzen diren ideia eta iradokizunak jasotzeko asmoarekin.

Hirugarren astean orientazioa izango da protagonista. Parte hartzaileek herriko mapa hobeto ezagutzeko aukera izango dute. Ekintza horretarako, baina, izena ematea beharrezkoa da. Taldeka, lehenengo Eskoriatzan,



Atzo Hiruerreketa ezagutzera joandako taldea. | PABLO BEREZIBAR



Urkuu erreka ibilbide hasiera egiten dituen meandroak. | PABLO BEREZIBAR



Tantadui haritzia inoiz baino berdeago dago. | AITZIBER GOROSABEL

### MENDI HILABETEKO EGITARAU

#### 14, MARTITZENA

**16:00** Ezagutu Eskoriatzako trenbidearen zati bat: Zarimutz-Eskoriatza. Elkartzeko tokia: Huhezi.

#### 15, EGUAZTENA

**19:00** *Eraiki dezagun denon artean mendi elkartearen etorkizuna* bilera. Bertan ideia eta iradokizunak jasoko dira. Lekua: osoko bilkuren aretoa.

#### 19, DOMEKA

**09:00** Ezagutu Eskoriatzako trenbidearen zati bat: Zarimutz-Eskoriatza. Elkartzeko tokia: plaza.

#### 21, MARTITZENA

**19:00** Iñaki Otxoa de Olzaren

bizitzari buruzko *Pura vida* filmaren proiektzioa. Lekua: Huhezi.

#### 23, EGUENA

**17:00** Ez zaitez galdu Eskoriatzan: orientazio jokoak. Lekua: Plaza. \*Izen-ematea: Ikastetxean, Huhezin edo kiroldegian.

#### 26, DOMEKA

**10:00** Garaioa orientazio zirkuituak egitera: erraza, ertaina eta zaila. Elkartzeko tokia: plaza. \*Garaioa joatea, norberaren kontu.

#### 29, EGUAZTENA

**19:00** Gabez Takarraran lasterketaren aurkezpena.

eta nahi dutenek Garaion, orientazio jolasak izango dituzte. Azken astean Eskoriatzan egiten den Gabez Takarraran lasterketa behar bezala promozionatzeko, haren aurkezpena soilik egingo dute.

### Eskoriatzatik kanpo ere bai

Eskoriatzan bertan, aurreko egunetan egindako lehen jokoen ostean, orientazioaren arloan gehiago sakondu nahi dutenek aukera ezin hobe izango dute maiatzaren 26an, Garaion espresuki orientazio jokoetara bideratuta dagoen gunean ibiliko baitira. "Bertan hiru maila ezberdinetako ibilbideak egiteko aukera izango dute".

Ekintza hori ere doakoa izango den arren, Eskoriatzatik Garaioa joatea ez da barne egongo. Dena den, gauzak errazte

aldera, parte hartzaile guztiak plazan elkartzeko dira, eta bertan, azken orduko autoak antolatze-ko aukera egongo da.

### Proiektu gehiago

Kirol Saila hasi da hurrengo hilabeteetarako ekintzak antolatzen. Horien inguruko zehaztasunak emateko goiz izan arren, ekainean Emakumeen Bira datorenez, bizikletaren inguruko ekintzak antolatzen hasi dira.

Uztailean udalekuak martxan egongo direnez, gazteek zenbait kirol ekintza izango dituzte aisialdi gisa. "Baina kirola eta osasuna bateratzeko proposatu diet", dio Lasagabasterrek. Esan bezala, goiz da zehaztasun gehiago emateko, baina, ziur, hurrengo hilabeteetan eskoriatzarrek kirola egiteko aitzakia bat baino gehiago izango dutela.

## ARETXABALETA

# Produktu ekologikoak erosi eta ezagutzeko aukera lehen Ekobiran

Zapatuan plazan egin zuten azokan produktu ekologikoak eta gertukoak erosteko aukera egon zen

IMANOL GALLEGO | ARETXABALETA

Gazta, panpinak, pintxoak, ezta... produktu zerrenda amaigabea zirudien. Postu bakoitzak sorpresaz beteriko erakusleio berri bat zirudien. Ohikoagoak diren janari edo arropa postuez gain, egur birziklatuarekin estruktura egiten dituen enpresa bat ere bazegoen. Azokak gainera, produktuak ezagutzeko aukera ematez gain, tailerren bitartez, hauek nola egiten diren ere ikasteko aukera ematen zuten.

Aurtengo Ekobira indartsu hasi dela dirudi. Zapatua osoan

zehar Aretxabaletako plaza produktu ekologikoz bete zuen-eta. Aretxabaletarrei nagia ateratzea kosta bazitzaien ere, eguerdi partean oso giro jatorra zegoen. Azoka izan arren, erosketek beste mota bateko kutsua zuten; "produktu naturalagoak dira" zioen erosle batek "plastiko eta kimikoe-tatik at oso produktu onak aurkitu daitezke" zioen beste batek.

Erosleak baina, ez ziren, Kutzak sortutako ekimen honen onuren inguruan hitz egin zuten bakarrak. Saltzaileek ere, banketxeak aurrera ateratako eki-

menaz oso iritzi ona dute "plataforma handi batean zaudela dirudi" zioen batek. Egia da, Ekobira Gipuzkoako zortzi herritan zehar ibiliko dela eta toki guztietan Aretxabaletan izandako

harrera lortzen badute arrakasta erabatekoa izango da.

Hori horrela gertatzen bada, onurak ez dira saltzaileengan soilik igarriko. Saltzaile baten hitzetan, "azoka honek produktuak

saldtu eta gizarte osoarentzat onak diren ideiak oparitzen ditu".

## Eginez ezagutu

Ikuspuntu ekologiko hori lantzeko, zenbait informazio panel jarri zituzten. Horrez gain, plazan bertan, etxeko txikienek hainbat jolasetan aritzeko aukera ere izan zuten. Jendea inplikatzeko gainera, goizean etxeko produktuekin birziklaturiko altzariak eta etxeko balkoian barazkiak noiz eta nola landatzen ikasteko tailerrak egin zituzten, arratsaldean berriz, xaboi eta kremagintza izan zuten.



Erosteaz gain, zer ikasi ere egon da. | I.G.



Txikiak ere ederto pasa dute jolasean. | I.G.



Jende ugari gerturatuta da produktuak ikusi eta erostera. | IMANOL GALLEGO



Inguruko baserrietako produktuez gain, musikak ere bete zuen Aramaioko plaza. | IMANOL SORIANO

## Gertuko produktuen azoka herrikoia Aramaion

Aramaio Basarri Barri ekimena sortu zenetik, herriak ekologia eta gertuko produktuekin duen harremana dezente sendotu du. Zapatuko azoka horren erakusle izan zen. Herri guztiak hartu zuten parte, batzuk erosle bezala eta beste batzuk, baserriarren

kasuan bezala, euren ogia edo sasoiko barazkiak eskaintzen. Horrez gain, bidezko merkataritzako postu bat ere jarri zuten. Goiza borobiltzeko, trikilariez gain, herritar batzuek espresuki azokari egindako kopia batzuk abestu zituzten.

## ELGETA

# Sari nagusia Lasturrera joan zen arren, guztiek gogotik disfrutatu zuten

I.G. | ELGETA

Oso borobila ez den bolo batek 15 bat metrora dagoen hiru txirilo jotzea ez da erronka erraza. Baina Elgetako bolatokia gutxienekoa irabaztea zen. Hasierako beroketa jokoan, barre algara ugariren artean, parte hartzaile bakoitza pistari neurria hartzen hasi zen. Lehen jaurtiketen ostean, txapelketaren unea iritsi zen.

Guztira 77 parte hartzaile lehiatu ziren eta etxekoek, nerbioengatik edo, ez zuten oso emaitza onak lortu. Lehen saria Las-

turrera joan zen. Benetan aipatzekoa Elgetan neskek erakutsi zuten maila, 3. eta 5. postuak lortu zituzten-eta.

## Hurrengo Bergaran

Urtetan hiru txirilo txapelketako zirkuitutik kanpo egon ostean, aurtengo Mendekoste jaietan Gipuzkoako txapelketak lehiaketa egingo du Bergarako San Joxepeko bolatokia. Zapatuan 21:00tan izango da norgehiagoka eta jende guztiari zabalik dagoen txapelketa izango da.



Elgetako bolatokia irabaztea baino garrantzitsuagoa parte hartzea zen. | IMANOL SORIANO

## ARETXABALETAKO

# Durana kalea dendetako modaren erakusleiho bihurtu zen

Bosgarren aldiz, Belar Metak antolatutako desfileak jende asko batu zuen

IMANOL GALLEGU | ARETXABALETAKO

Fokuak besterik ez ziren falta. Alfonbra gorria, jendea, modeloak,... Zapatuan 18:00etatik aurrera Durana kale izateari utzi zion eta herriko pasarela bihurtu zen. Bainujantziak, soinekoak, pijamak... Denetik ikusteko aukera egon zen. Bosgarren desfilea izan arren, urduritasuna nabari zen.

Idoia Elexpuruk kapitain lanak hartu eta musikaren laguntzarekin Durana kaleko alfonbra gorritik Belar Metako jantziak erakusten hasi zen. Ez zen modelo bakarria izan eta aretxabaletar ugarik, lotsa etxean utzi eta Belar Meta, Kilima, Titare eta Haurrak dendetako arropak ongi baino hobeto erakutsi zituzten.

## Saiheski jana

Desfilea bukatu eta gero Giokelaren eskutik, UDA kirol elkartearen alde, saiheski erreka dastatzeko aukera egon zen. Mitarte kalearen hasieran jende mordoxka bat batu zen Iosu harategiak eskaintako haragi gozua jateko. Mokadutxoak bustitzeko gainera ardoa eta garga ardoa ere izan zuten.



Fin ibili ziren gazteak pasarela gainean. | IMANOL SORIANO



Modelo gazteak ere izan ziren. | I.S.



Saiheskia dastatzeko aukera. | I.S.



Bazkideez gain, gazteek ere desfileatu zuten. | XABI URZELAI



Txikienek jaso zituzten txalo gehienak. | X.U.

## ARRASATE

## Eroskiko langileen eskutik udako produktua erakusteko desfilea

I.G. | ARRASATE

Eroski bezalako hipermerkatu handietara behin eta berriro joan arren, beti topatzen duzu produktu berriren bat. Horregatik azken asteotan, jendeak bere eskaitza zabala hobeto ezagutzeko, Eroski ekintza ugari antolatzen hasi da. Zapatuan, bertako langileek, Arrasateko

hipermerkatuak eskaintzen duen guztia erakusteko moda desfilea egin zuten. Betaurrekoak, arropa... Denetik erakutsi zuten, langile uniformeak kendu eta modelo lanak egin zituzten langile eta familiakoek. Ikusle zein parte hartzaileak gustura geratu zirenez, negu partean bigarren desfile bat egingo dute.

Promociones  
**Erregetxo Plaza**  
Bergara



**Bergarako hirigune historikoan**  
63 etxebizitza, libre, tasatu,  
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18  
LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

## GARAIZ ZABILTZA!

**Bergarako hirigune historikoan**  
2, 3 logelako etxebizitzak.


- ✓ Lehenengo mailako materialak
- ✓ Sukalde ekipatuak, logela armairuak

**Informazio guztia**  
gure web orrian.

Sartu eta ikusi



[www.promocioneserregetxoplaza.com](http://www.promocioneserregetxoplaza.com)



ARRASATE

# Musakolako jaiek independentzia usaina izan dute beste behin ere



Iban Goñi Musakolako alkatea Urrezko Astakiloa ematen. | IMANOL SORIANO



Axerikoa zubian, astoa dragoiaren partez. | XABI URTZELAI



200 lagun inguru eseri ziren mahaiaren bueltan herri bazkarian. | IMANOL SORIANO

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

San Isidro jaiak bizirik daudela erakutsi dute asteburuan Musakolan. Eta beste behin ere, independentzia aldarrikatu dute bertako biztanleek, umore klabean. Zapatu goizean Axerikoa zubia birkonkistatu zuten; horretarako, Arrasateko armariaren gainean, auzoko ikurra den astoaren irudia ipini zuten. "Miraria gertatu da!", esaten zuten harro jaien antolatzailleek.

Denetarik egiteko aukera izan dute bertakoek zein kanpokoek asteburuan. Haurrentzako jolasak, sokatira edo musikaz gozatu dute bertaratu direnek. Azken horren harira, zapatuan egunean zehar txarngak bere lana egin bazuen, gauean DJ Amaiak eta Kaixoren erromeriak hartu zuten protagonismoa. Eta ezin ahaztu herri bazkaria; txartelak salgai ipini eta egun gutxira saldu ziren guztiak. "Krisiak zerbait kentzea derrigortzen badu, ez dadila bazkaria izan!".

## Urrezko Astakiloaren ohorea

Urrezko Astakiloa ere banatu zuten zapatuan; Juan Jose Garmendiak harrিতuta hartu zuen albistea eta harro eta hunkituta jantzi zuen paparrean astakiloa eta eskuetan hartu zuen iloben argazkiak zituen plaka. "Horrelako auzorik ez dago munduan!".



### JUAN JOSE GARMENDIA

"Ez nuen uste Urrezko Astakiloa emango zidatenik, ezusteko handia izan da. Nire lagunak izan dira txarrenak, sekretuan eduki dute dena eta gaur arte ez dut jakin. Oso pozik nago; hemengoentzat ohorea da eta Urrezko Astakiloa jasotzea".



### MAITE SALEGI

"Egubakoitzean hasi nintzen San Isidro jaiak ospatzen eta oso ondo joan dira. Urtero etortzen gara bazkarira, eta niretzako antolatutako gauzetatik onena da. Denok izaten gara ezagunak eta ederto pasatzen dugu".



### ZUHAITZ ULI

"San Isidroek azken urteetan zerbait behera egin dute baina guk hemen egoten jarraitzen dugu, eta ederto igartzen dugu. Esate baterako, urtero etortzen naiz lagunekin-eta bazkarira eta plan bikaina izaten da".



### BEÑAT APRAIZ

"Egitarau polita egon da aurten ere jaietan. Herri bazkarirako dena prestatzen ibili naiz. Izan ere, jende pilo batek hartzen du parte urtero; jaietako ekintza garrantzitsuetako bat da, giro polita egoten da, gaiteroek-eta alaituta".



### IBAN GOÑI

"San Isidroak hasi zirenetik, dena oso ondo joan da. Eguraldi hobea espero genuen, baina hori ez zaie inporta izan jaiekin bat egin dutenei, jende asko ibili da eta. Denetarik egin dugu, baita mirari txikia zubian ere".



ANTZUOLA

IMANOL SORIANO

## Elkartasun festa borobila

Antzuolan Anelkar elkarteak antolatutako elkartasun festak arrakasta izan zuen eta antolatutako afarira herritar ugari bertaratu ziren, 80 inguru. Osteko dantzaldira, gainera, lagun ugari bertaratu ziren, eta antolatzailleak benetan pozik agertu dira emaitzarekin. Patxi Monteroren laguntzarekin ordu eta erdiz gorputza mugituta freskurak kentzeko erremedio bikaina aurkitu zuten, gainera.



OÑATI

OIHANA ELORTZA

## Neska-mutilak ipuin-kontalari egun batez

Ez da denbora asko Oñatiko Urgain eskolako neska-mutiloek *Nax eta bere laguntzaileak* liburua aurkeztu zutela, gaztetxoek eurek idatzitako ipuinekin osatutako liburua, hain zuzen ere. Zapatuan, baina, Txandaren eskutik, ipuin horiek irakurri beharrean entzun eta ikusteko aukera egon zen Oñatiko hainbat lekutan, ikasleak ipuin kontalari ibili ziren-eta. Argazkian, San Lorentzon egindako ipuin kontaketa une bat ikus daiteke.

Tomas Urzainki | Historialaria

# "Konkistatzaileak ukatu egin gura du, horregatik egia azaleratu behar dugu"

- ▶ Hitzaldia eskainiko du etzi Kulturaten, 19:00etan
- ▶ Udaberriko Hitzaldi zikloko azken saioa izango da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ezagutza eta jario handiko pertsona dela berehala konturatzen da elkarrizketatzailea Tomas Urzainki historialariarekin (Iruñea, 1949) solasean hasten denean. Etzi Kulturateko areto nagusian (19:00) egongo da, Udaberriko Hitzaldi zikloaren barruan. *Los reyes castellanos Alfonso VIII y X vs. Arrasate, dialectica conquistador-conquistado (1200-2013)* izenburua jarri dio bere saioari.

**Orokorrean eta larregi aurreratu barik zertaz egingo duzu berba?**

Historian testu-inguratzea oinarritzkoa da eta Nafarroako Erresumaren inbasioa hasi aurretiko hainbat xehetasun azalduko ditut. Inbasioaren gainean, Nafarroakoa eta Gaztelakoa gizarte ezberdinak zirela azalduko dut; egun ere hori islatzen duten adibideak badaude eta. Hainbat xehetasun emango ditut Nafarroako Erresumak jasan behar izan zituen.

**Zein zerikusi du Arrasatek Gaztelako erregeekin?**

Alfontso X.ak, lurraldea kontrolatuta izateko, ondo gotortutako hiribilduak sortzen ditu. 1256. urtean Nafarroako Erregea, Teobaldo II.a, Alfontso X. arekin bildu zen Gasteizen. Teobaldo II.ak Nafarroa bere osotasunean itzultzeko eskatu zion Alfontso X. ari -Esteban de Garibai historialari arrasatearrak ere jaso zuen bilera hori-. Gaztelako erregeak, lotsagabe bat zenez, baietzkoa eman zion baina hilabete

berean Agurain sortu zuen, Gaztelako muga indartzeko. Lau urte beranduago, 1260an, eman zion Arrasateri hiri-gutuna. Aurretik, baina, hiribildua egon bazegoen eta hori ziurtatzen duten agiriak badaude.

Gaztelako erregeak, ordea, hiribildu hori gotorleku egin zuen. Zertarako? Lurraldea eta herritarrak kontrolatzeko. Izan ere, biztanleria harresi artean bizi bazen askoz errazagoa izango zen kontrolatuta mantentzeko. Horrekin batera, biztanleria bere jarraitzaile ziren oligarkien eskuetan utzi zuen Gaztelako erregeak. Horiek eta beste hainbat aspektuk lagundu zuten konkistatzaileak gure herrian finkatu zitezten.

**Hitzaldi zikloaren helburuetako bat da historia ondo kontatzearen garrantzia nabarmentzea. Zein iritzi duzu gai horren gainean?**

Ezinbestekoa da historia ondo kontatzea, oinarritzkoa. Edozein norbanako zein gizarterendako zer gertatu den jakitea oso garrantzitsua da. Historia ez da neutrala; benetan zer gertatu zen jakin behar dugu egungo egoera zein den ulertzeko

**"Historia ez da neutrala; benetan gertatu zena jakin beharra dago"**

eta beraz, etorkizuna nola eraiki daitekeen aurreikusteko. Askok diote dialektika bat dela euskaldun eta espainolen artean, karlista eta liberalen artean, agaramontar eta beaumontarren artean, oinaztar eta ganboatarren artean...

Baina hori ez da arazoa: gizarte dominatzaile eta konkistatzaile bat dago alde batetik; hori da Gaztela, egun Espainia dena. Beste aldean dago Nafarroa, gurea, beste eredu politiko bat eta nazio ezberdin baten izaera duena. Konkistatuak izan gara eta ordutik euren menpe izan gaituzte. Hainbat alditan saiatu dira disimulatzen edo beste era batera esaten baina dialektika, finean, honakoa da: konkistatzaileak eta konkistatuak. Ez gara hobeak edo okerragoak, batzuk konkistatzaileak dira eta besteak konkistatuak.

Konkistatzaileak konkistatua ukatu gura du. Euren politikak ukatzaileak izan dira betidanik. Horregatik egia azaleratu behar dugu. Izan ere, gure gizarteari politika konkistatzaile zehatz batzuk aplikatzen zaizkio.

**Azaleratzekolan hori egin gabe dagola uste duzu?**

Hasierako puntuan gaudela esango nuke. Pazientziarekin eta behar den moduko zabalkundearekin joango gara konturatzen. Katalunian, adibidez, konturatu dira konkistatutako gizarte bat direla. Eurak konturatu dira; beste kontu bat da Espainiako komu-



Tomas Urzainki. | IDOIA ZABALETA

nikabideek nahi dutena ulertzen dutela eta beraz, nahi dute helarazi. Bestalde, gai batzuk daude onetik ateratzen nautena. Borondatezko entregatearena da bat. Herri bati borondatez entregatzea eskatzea, borondatez esklabo egi-

tea eskatzea modukoa da. Borondatez entregatu? Askatasuna ez da sekula borondatez ematen.

**Ziklo honek oso harrera ona izan dute orain arte. Nola baloratzen duzu arrasatearren interes hori?**

Arrasate oso herri berezia da. Gustatu edo ez, ekonomiak agintzen du eta Arrasaten ekonomiak pisu handia duenez, herri moduan indar eta kemen handia erakutsi izan du. Gure historiaren gaineko hitzaldiak interesa piztea oso positiboa da; herritarrek interesa agertzen badute bide onetik goazela esan gura du.

**"Borondatez entregatu? Askatasuna ez da borondatez ematen"**



URIBARRIKO ERRETIRATUEN ELKARTEA

**Uribarriko erretiratuak Galizian izan ziren astebetetz**

Uribarri auzoko erretiratuen elkarteko lagunak astebeteko bidaia egin zuten Galiziara apirila amaieran. 40 lagun inguru joan ziren eta atsedenerako denbora gutxi izan zuten. Besteak beste, Ria de Arousa, O' Grove, Pontevedra eta Santiago de Compostela bisitatu zituzten. Mariskoa eta Galiziako ardo zuria dastatzeko aukera ere izan zuten.

## Hondakinen gaiarekin lotuta hainbat ekintza datozen egunetan

A.B. | ARRASATE

Hondakinen gaia ardatz hartuta hainbat hitzaldi eta ekintza antolatu ditu Arrasateko Zero Zabor taldeak datozen egunetarako.

Eguaztenean, maiatzak 15, *Hondakinak... Geuk sortu, geuk kudeatu* izenburupean hitzaldia eskainiko dute Arrasateko Zero Zabor taldeko ordezkariak. 19:00etan izango da Arrasateko gaztetxean.

Zapatuan berriz, maiatzak 18, Zero Zabor Taldeak postua ipiniko du Seber Altube plazan 10:00etatik 14:00etara bitartean. Bertako lehengaiekin egindako pintxoak eta krepak, sagar

zukua eta sagardoa dastatu ahalko dira bertan, besteak beste. Umeendako jolasak eta tailerrak ere egingo dituzte.

Maiatzaren 22an, eguaztena, hitzaldia eskainiko du Iñigo Iñurrategik. *Eguno bizimoduaren oraina eta etorkizuna ulertzeko oinarritzko klabe batzuk* da hitzaldiaren izenburua eta 19:00etan izango da Kulturateko areto nagusian.

Azkenik, maiatzaren 18an, *Hondakinak... Geuk sortu, geuk kudeatu* hitzaldia errepikatuko dute Zero Zabor taldekoek, baina gaztetxean egin beharrean Kulturateko areto nagusian egingo dute, 19:00etan.

# Tonucci: "Oso zaila da haurrari entzutea, baina ahaleginak merezi du"

'Haurren hiria' liburu ospetsuaren egilea gurean egon da; euskarazko bertsioa salgai dago Txatxilipurdin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Francesco Tonucci Italiako psikologia ikerlari ospetsuaren bisita izan dugu azken egunetan. Haren *Haurren Hiria* liburu aurkeztu zuten joan den egunean udaletxean, euskarazko bertsioan, eta egubakoitzean zein zapatuan Donostian egon da *Herri hezitzailea, eskola herritarra* izeneko jardunaldietan. Egueneko aurkezpenean Tonucciren ondoan egon ziren Lorea Agirre euskal kulturgintzan aditua, Inazio Azkarragaurizar alkatea eta Txatxilipurdiko Gari Iturbe.

Txatxilipurdik argitaratu du liburu, Berramesten ekimenaren barruan. Txatxilipurdikoek Irrien Lagunak, Hazi Hezi aldizkaria eta Hik Hasi elkarteak izan dute bide-lagun liburu argitaratzeko. Mainer Elkorok euskaratu du eta Lorea Agirrek idatzi du hitzaurrea: "Esan ohi da maite dena itzultzen dela, itzultzea maitasuna adierazteko modu bat dela. Eta halaxe da. Tonucci maite dugulako ekarri dugu geurera. Euskarara. Ez beste hizkuntzetan irakurtzeko gai ez garelako. Bagara, zorionez gai gara. Tonucci geure egin nahi dugulako, baizik", dio Agirrek.

Osoko bilkuren aretoa bete egin zen hiria haurraren ikuspegitik eraikitzea beharrezkoa dela aldarrikatzera datorren liburuaren aurkezpenean. Interes handia piztu zuen; hainbatek liburu erosi eta Tonucciri sinatzeko eskatu zitoten. Oraingoz Txatxilipurdiren egoitzan dago salgai liburu, hamar eurotan. Laster egongo da liburu-dendetan.

**Haurrena, ikuspegi ezberdina**

Haurrei entzutea beharrezkoa dela uste du Tonuccik, baina hori ariketa zaila dela nabarmendu zuen. Haurrek benetan uste dutena esatea zaila dela uste du psikopedagogo italiarrak, umeek nahiago dutelako helduoi gustatzen zaizkigun gauzak esatea. Hala erakutsi omen diegu txikitatik. Era berean, baina, haurrek benetan uste dutena esaten digutenean, eurekin kolaboratzen hasteak beste hainbat heldurekin

arazoak sortuko lituzke, Tonucciren arabera: "Oso zaila da haurrei entzutea, baina ahaleginak merezi du". Liburu bera alkateei egiten zaien proposamena denez Tonuccik ez zuen erreparorik izan Azkarragaurizarri honakoa esateko: "Alkateak haurrei esateko dutena entzuten badie ikuspuntua irekiko du eta beraz, alkate hobea izango da".

Izan ere, hiriaren oso ikuspegi berezia dute haurrek: "Haurren hiria diogunean, guztion hiriak ari gara. Haurrek ez dute ulertzen norbait kanpoan uzten duen hiri bat. Ez dute ulertzen aitona, anaia txikia, txakurra edo landareak baztertzeko dituen hiria. Haurrak hiriaren ikuspuntu ekologiko bat dauka eta zientziaren ikerketengandik ere oso gertu dago umearen ikuspegia. Era berean, baina, azken urteetan eraiki dugun hiriarengandik oso urrun dago haurraren ikuspuntua. Haurrek aldaketa eskatzen dute". Aldaketa eskatzen dute, Txatxilipurdi hitzaren beraren esanahitik oso gertu: "Txatxilipurdi hitza asko gustatzen zait. Buelta ematea esan gura du, aldaketa. Hori da nire liburuak aldarrikatzen duena", esan zuen Tonuccik.

Asfaltoak eta autoek irabazitako tokia berreskuratu beharra dagoela ere esan zuen: "Autoen eskubideak gure haurrenak baino lehenago defendatzen ditugu. Autoenganako maitasuna gehiagotan erakusten dugu, gure haurrekiko sentitzen duguna baino". Gehiago jakin gura duenak, eros dezala liburu.

## ESANAK

**"Alkateak haurrei entzuten badie ikuspuntua irekiko du eta alkate hobea izango da"**

**"Autoenganako maitasuna gehiago erakusten dugu gure haurrekiko sentitzen duguna baino"**

FRANCESCO TONUCCI | PSIKOPEDAGOGOA



Txatxilipurdiko Baz eta Arando Francesco Tonuccirekin, Herriko plazan.



Osoko bilkuren aretoa bete egin zen liburu eta haren egilea ezagutzeko.



Amaieran hainbat liburu sinatu zituen Tonuccik. | ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA

## AEDren literatur lehiaketan sari banaketa egingo dute egunean

J.B. | ARRASATE

Eguen honetan, hilak 16, jakingo dugu zeintzuk diren AEDk antolatutako 26. Arrasate Literatur Lehiaketetako irabazleak. Sari banaketa ekitaldia Kulturateko areto nagusian egingo da, 18:30ean. Ekitaldia "xumea" izango da eta Uxue Alberdi bertsolari eta idazlea izango da aurtengo gonbidatua. Alberdik bere bizipenen eta esperientzien berri emango die gaztetxoek.

198 lan aurkeztu dira lehiaketara: 124 ipuinen atalean, 46 poesien atalean eta 28 bertso-

paperean atalean. Antolatzaileak pozik daude lan gehiago jaso dituztelako eta Eskoriatza, Bergara eta Oñatiko eskoletatik hainbat lan jaso dituztelako.

**"Denetarik" lanak**

Pena bakarria izan da bi taldeetan ezin izan dutela saririk banatu, ez dutelako lanik jaso. Kalitateari dagokionez, "denetarik" lanak jaso dituzte: "Batzuk beste batzuk baino hobek, baina orokorrean oso pozik gaude", dio Itxaro Artola AEDko kideak.

## Emarock erakusketa irekiko dute hilaren 17an, Kulturaten

Emarock proiektuaren erakusketa irekiko dute egubakoitzean, hilak 17. Euskal Herrian musikan aritzen diren emakumeei protagonismoa eta espazio bat ematea du helburu eta Kulturateko klausuran zehar 70 emakume musikari baino gehiagoren zuzeneko emanaldietako argazkiak ikusi ahal dira. 2012ko maiatzean ireki zen lehen erakusketa, Tolosan. Orain Arrasateren txanda da; hilaren 31ra arte egongo da zabalik, martitzenetik domekara bitartean -17:30etik 20:30era-.

## 'Ocho apellidos vascos' filmean parte hartzeko castinga hilaren 16an

Emilio Martinez zuzendaria filmatzen hasiko den *Ocho apellidos Vascos* pelikularako-Borja Cobeagak eta Diego San Josek egin dute gidoia-castinga deitu dute hilaren 16rako. Euskal Herrian egingo dituzten geldialdien artean bat Arrasaten egingo dute. Denetarik figuranteak behar dituzte; interesatuek 915 558 999 telefono zenbakia eta [ochoopellidosvascos@temp.es](mailto:ochoopellidosvascos@temp.es) helbide elektronikoa eman dituzte. Argazkia bidali beharra dago.

700 figurante behar dituzte guztira eta filma ekainaren 1etik 16ra bitartean grabatuko da.

## Bizkaiko Biraren 15. etapa hilaren 19an, Besaidek antolatuta

Besaide mendizale elkarteak Bizkaiko Biraren 15. etapa egingo dute domekan, hilak 19. Areta eta Orozko artean 13 kilometro eta erdiko ibilbidea egingo dute; Elorritxugana (729 metro) eta Jesuriko (749 metro) tontorrek egingo dituzte, besteak beste. Era berean, Santa Marina de Arrolako ermita ere ezagutuko dute. Izena eman daiteke gaur, bihar edo etzi. Interesatuek hiru egun horietako baten Besaideko bulegora jo beharko dute izena emateko, 19:30etik 20:30era.



# Pazkoetan berdintasuna bultzatzeko zenbait gomendio emango ditu Udalak egitarauan

Kanpaina horren barruan pegatinak banatuko dituzte, 'Jaietan ere berdintasunaren alde!' leloarekin

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udalak, berdintasunaren aldeko politikak sustatu nahian, zenbait programa ditu martxan, eta Pazkoetan ere berdintasuna bultzatzeko kanpaina berezia prestatu du.

Batetik, pegatinak aterako dituzte *Jaietan ere berdintasunaren alde!* leloarekin, iazko ekimena indartuz. Pegatinok Jardunek banatuko ditu jaietako zapiekin batera, eta tabernetan, txosnetan

eta beste hainbat lekutan ere jarriko dituzte herritarrek hartzeko eta arropan itsasteko. Hain zuzen, Udalak animatu nahi ditu herritarrek pegatina "alkandoran, kamisetan, poltsan edo nahi duten lekuan jartzera, eta, horrela, ingurukoei berdintasunaren alde daudela adieraztera". Eta gehitzen dute: "Arazo hauek ez dira pertsonalak, banakoei gertatutakoak, pribatuak edo intimoak; gizarteko balioetan daude. Denoi eragiten digu honek, eta denon ahalegina eskatzen du aldaketak".

## Gomendioak emango dituzte

Pegatinekin batera, jai giro parekidea emateko, jaietako egitarauan zenbait gomendio ere emango dituzte galdera batetik abiatuta: *Zer da jai-giro parekidea?* Bada, udal arduradunek garbi dute: "Emakumeek eta gizonezkoek aukera berekin festaz gozatzeko egunak izatea lortu nahi dugu".

Horretarako ematen dituzten gomendioen artean daude: bateragarritasunez jokatzea, "etxeko lanak eta zaintza-lanak etxeko emakume eta gizonezkoen artean partekatuz, denok festaz gozatzeko aukera izateko"; emakumei eta gizonezkoiei egozten zaizkien ohiko rolak gainditzea, "ekintza guztietan emakumeek eta gizonek parte hartuz"; jarrera sexistarik gabe aritzea, "emakumeak bigarren mailan lagatzen dituzten jarrera guztiak alde

batera lagata, -hala nola emakumeak objektu gisa aurkezten dituzten komentarioak eta ekintzak-, eta sexualitate arrazoiengatik inor gutxietsi gabe -homofobia eta transfobia barik-; eraso sexistarik gabe jardutea; eta baita erantzukizunez ere.

## Tabernariak arreta berezia

Tabernarietara, sexu erasoren baten lekuko izanez gero, egoki jokatzeko zenbait proposamen ere eman nahi izan dizkiete: "Izan ere, emakumeek erasoak eta indarkeria urteko edozein unetan jasan arren, ez dugu ahaztu behar festaguneetan eraso hauek ere gertatzen direla. Datuek hala erakusten dute".

## Pazkoetan, argazki lehiaketa

Udaleko Kultura Zerbitzuak Pentekosteak 2013 argazki lehiaketa antolatu du eta nahi duten argazkizale guztiak har dezakete parte. Hilaren 17tik 21era ospatuko diren Mendeskoste jaietan ateratako edozein argazki aurkeztu ahal izango da, betiere, jai giroa islatzen badute.

Euskarri digitalean aurkeztu beharko dira lanak, zuri-beltzean edo koloretan, eta nahi adina aurkeztu ahal izango dira.

Lanok aurkezteko epea hilaren 24an, 13:00etan, bukatuko da, kultura etxean. Saria 200 euro izango da.



Jaietako Xaxau birusa da pegatinako elementuetako bat. | GOIENA

## Oihana Altzelairena da aurten kartela

Pentekoste jaietako kartelaren irudia Oihana Altzelai bergararrarena da. Udalak deitutako lehiaketara 12 lan aurkeztu dira eta epaimahaia Altzelairena aukeratu du aurtengo jaietako irudia izateko. "Koloretsua eta alai da", esan dute epaimahaiko kideek, eta "dantzarako gonbita egiten du, jai-giroan murgiltzekoa", gehitu dute.

Altzelai gazteak 400 euroko saria jaso du.



Altzelaiaren irudia. | OIHANA ALZELAI

## Musika Eskolak beste ipuin bat taularatuko du

'Musikaren zirku mundiala!!!' du izena eta hilaren 14an estreinatuko dute eskolako irakasleek

M.B. | BERGARA

Maiatzaren 14an Musika Eskolako irakasleek *Musikaren zirku mundiala!!!* ipuin pedagogikoa taularatuko dute, 4 eta 8 urteko ikasleentzat Zabalotegi aretoan. Emanaldian, Oihan Vegak jarriko du zirkuo aurkezle, eta, ikuskizunean barrena, pianista

siamdarrak, Hamoboed sugeen sorgintzailea, panpina abeslaria, sorgintxelo magia egiten, Tubahandi gizon indartsua eta Tronpi eta Tronpa pailazoak ikusteko aukera izango du hurren, zirkuo beste artista batzuen artean. Musika Eskolaren bosgarren ipuina da.



Kriskitin musikaren bila ipuina da taularatu dutenetako bat. | BME

## Kolonbiako Fundacion Estructurar GKEko ordezkariak Aranzadin izan dira

T.M. | BERGARA

Bisita berezia izan zuten martitzen goizean Bergarako Aranzadi Ikastolan eta Antzuola Herri Eskolan. Kolonbiako Fundacion Estructurar izeneko gobernuz kanpoko erakundeko hiru kide izan ziren ikastetxeotan jarraitzen dituzten hezkuntza ereduak bertatik bertara ezagutzen. Gobernuz kanpoko erakundeko ordezkariaren esanetan, "oso baliagarriak" iruditzen zaizkie gurean ikusita-

koak gero Kolonbian aplikatzeko.

## 26 urte daramate lanean

Duela hamahiru urte hasi zen Fundacion Estructurar erakundearen eta Mondragon Taldearen arteko elkarlana. Gobernuz kanpoko erakunde horrek 26 urte daramatza lanean eta behar handien duten umeekin egiten dute lan. Iaz, Huzezi fakultateko 7 ikasle izan ziren Kolonbian praktikak egiten.



Kolonbiako ordezkariak Aranzadikoekin. | TXOMIN MADINA

## Kontribuzioa ordaintzeko epea asteen irekiko dute

M.B. | BERGARA

Udaletik jakinarazi dutenez, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga ordaintzeko epea zabalteaz da: borondatezko epea maiatzaren 15etik uztailaren 1era izango da; hortik aurrera errekararekin kobratuko dute.

Erreziboen ordainketa banketxeren batean helbideratuta duten zergadunei, banketxe horren bidez bidali eta kobratuko zaie. Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunek, berriz, datozen egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharko duten agiria. Agiri horrekin edozein banketxe edo udal bulegoetatik pasa daiteke ordainketa egiteko. Agiri hori maiatzaren 31 baino lehen jasotzen ez bada, edo azalpen baten beharra izanez gero, Kontu-hartzailetzako bulegoetatik pasa daiteke.

Manu Egaña, Luis M<sup>a</sup> Aranburu, Aitor Biain eta Karlos Etxaniz egubakoitzeko aurkezpenean. | AMAIA TXINTXURRETA

# 150 lagun, Mozarten 'Requiem' proiektuan

Oñati Abesbatzak, Ganbara Orkestrak eta Bergarako Orfeoia elkarrekin eskainiko dute, ekainaren 9an

A.T./O.E. | OÑATI

Oñati Abesbatza eta Bergarako Orfeoia *Requiem* lanaren kontzertua eskaintzeko batu egingo dira. Ganbara Orkestrarekin batera sortu dute proiektua eta Aitor Biain zuzendariak gidatuko ditu kontzertuak. "Proiektu handia dugu eskuartean, jende askok parte hartuko du eta erronka handia da guretako", esan du

Biainek. Duela urtebete hasi ziren proiektuarekin lanean.

120 pertsonaz osatutako koroak kantatuko du eta 26 pertsonako orkestraren laguntza izango dute abeslariak. Beraz, 150 lagun inguruko taldeak hartuko du parte proiektuan. Karlos Etxaniz Bergarako Orfeoiko presidentek esan du euredakoso oso berezia dela proiektuan parte hartzea.

Manu Egaña kultura zinegotziarentzat, berriz, "proiektu herrikoia da, Debagoiena mailan egina eta itxura profesionala duena".

**Sarrerak, eguenetik**

Momentuz bi kontzertu eskainiko dituzte; bata Oñatin eta bestea Bergaran. Oñatikoia izango da lehenengoa; ekainaren 9an, Corpus jaien egitarauaren barruan,

prozesioa baino astebete beranduago. Parrokian izango da kontzertua, 19:00etan, eta sarrerak eguenetik, hilak 16, egongo dira salgai Izarraitz, Portu eta Pake Lekun 8 euroren truke.

**Musika Egunak, azaroan**

Bestalde, Oñatiko Musika Egunak azken hogeitaka urteetan udaberrian, maiatzean, egin diren arren, aurten udazkenean egingo dira, azaroan. Sasoi horretan barrualdean musika entzuteko giro egokiagoa egiten duenaren ustean, musika zikloa udazkenean pasatzea erabaki du aurten udaleko kultura sailak.

Maiatzetik aurrerako agenda oso beteta egon ohi da: auzo jaiak hasten dira, eskoletako ekintzak eta Jaunartzeak pilotzen dira eta eguraldi onarekin batera kanpoko ekintzak erakargarriagoak izaten dira barrukoak baino. San Migel eta Errosaio festak pasatu ostean, ordea, egunak motzagoak dira, eguraldia ere txarragoa eta barruko ekintzak egiteko sasoi hobea da. Hori kontuan izanda, Musika Egunak maiatzetik azarora pasatzeko proba egitea erabaki du udalak. Horren aurretik, baina, Foru Aldundian kontsulta egin zuen udalak, antolakuntzaren parte delako Aldundia ere, Udalarekin batera. Diputazio arduradunek proposamena begi onez ikusi zuten eta horrela egingo da.

Oraindik zehazteke dago nola emanaldiak izango diren aurtengoak, baina azken urteetako egitura bera izango dute. Hau da, asmoa da publiko gaztetxoari zuzenduta emanaldi didaktiko bat ekartzea eta abesbatzaren baten kontzertua ere eskaintzea. Orain arteko Musika Egunak egin diren bezala, azarokoak ere lau domeketan egingo dituzte, arratsaldean, eta Santa Anan.

## Mahaingurua antolatu du biharko Herrirak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko Herrirak antolatuta, mahaingurua egingo dute bihar, martitzena, udaletxean. Oñatiko preso eta iheslarien senideekin egingo dute, eta moderatzailea Nagore Lopez de Luzuriaga izango da, senidea eta psikologoa. 19:00etan hasiko da.

**Zapatuan, Plazara**

Bestalde, zapatuan Plazara ekimena egingo dute Euskal Herri osoan, presoen eta iheslarien eskubideen alde. Eta Oñatin ere ekitaldi bat baino gehiago antolatu dituzte. Eguerdian egingo dute, esaterako, ekitaldi nagusia, bertso bazkariaren aurretik. Arratsaldean, berriz, giza-katea egingo dute plazatik Errekalderraino. Bazkarirako txartelak salgai daude.

## Langabeziak behera egin du bigarren hilabetez jarraian

Langabeziak behera egin du bigarren hilabetez jarraian Oñatin eta 2013ko tasarik baxuenean kokatu da: %9,79. Lanbidek emandako datuen arabera, apirila bukaeran 524 langabetu zeuden Oñatin. Krisieran hasieran, 2008ko apirilean, %4,45eko langabezia zuen Oñatik. Bost urtetan, beraz, bikoiztu baino gehiago egin da.

## Zubikoako aparkalekua itxita aste honetan ere

O.E. | OÑATI

Irisingarritasun lanak ari dira egiten San Juan kalean eta horren eraginez, itxita dago Zubikoako lurrazpiko aparkalekua, eta baita kalea bera ere. Aste honetan ere itxita egongo dira. Ur hodiaria aldatzeko lanak ari dira egiten eta datorren astera arte ezin izango da kalera autoz sartu. San Juan kalean eta Zubikoa-

ko parkingean garajea duten herritarrek ondorioz, ezin izango dituzte erabili. Bertako bizilagun batzuen eskaera aintzat hartuta, udaleko gobernu taldeak, Kalegoienako lurrazpiko aparkalekua doan erabiltzeko aukera eskaintzea erabaki du. Horretarako, interesatuek, dagokien eskaera egin behar dute udaleko hirigintza departamentuan.



San Juan kalean egiten ari diren lanak. | MIREIA BIKUÑA

## TXALOAK ETA TXISTUAK



GOIENA

## Zabor poltsak lurtean utzita



Zabor poltsak ekiontzietan baino lurtean utzi dituzte hainbatek Apaolaza kalean, argazkian ikusten den moduan, eta jarrera hori salatu gura izan du herritar batek. Zabor bilketa astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan egiten du Mankomunitateak Oñatin, gauaz, eta 20:00etatik aurrera atera behar da egun horietan zaborra edukiontzi berdetara..

## Liztor inbaditzailea nola harrapatzeko hitzaldia, gaur

Asiako liztor inbaditzailea ikusiz gero nola harrapatu eta nora erregina hil azaltzeko hitzaldia emango dute gaur, astelehena, Santa Ana aretoan, 19:00etan. Liztor beltzak moduan ere ezagutzen direnak zabaldu eta plaga bihurtu ez daitezten, informazio kanpaina abiatu du Mankomunitateak, eta egitarau horretan sartzen da hitzaldi hau.

## Tipi Tapa Oinez Bizi ibilbideak egingo dituzte aste honetan

Tipi Tapa-Oinez bizi programaren helburua da bizi-ohitura aktiboak sustatuz, pertsonen osasun maila hobetzea. Horretarako, ibilbide batzuk seinaleztatu dituzte. Ibilbide erraza gaur egingo dute, ertaina eguaztenetan eta luzea, egubakoitzetan. Begirale espezialista batek gidatuko ditu ibilbideak.

## ARETXABALETAKO

Iker Ortiz de Zarate | Ortzai taldeko zuzendaria eta aktorea

# "Gogoeta etikoa hedatu nahi dugu"

Nazioartean harrera ona izan duen obra, Zaraian

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Maiatzaren 17an, egubakoitza, *Eta orain zer? -¿ Y ahora?* lana taularatuko du Ortzai talde gas-teiztarrek Zaraian, 22:00etan.

**Aretxabaletan izango zara egubakoitzean Teresa Ibañezekin batera. Zer aurkituko dugu emanaldian?**

Bi gizaki, aurrez aurre, biak mindurik daude, zauri sakona dute. Batek maite zuen gizona galdu zuen atentatu batean; hura hil zuenaren ama da bestea (semea, egun, espetxean Euskal Herritik urrun duena). Elurte bat dela-eta isolaturik dagoen Arabako baserri batean egiten dute topo. Edozein ideologiatik edo politikatik kanpo dagoen antzezlan da, agertokitik gogoe-ta etikoa hedatu nahi duena. Fikzioa izan arren, guztiz lan errealista da *Eta orain zer? -¿ Y ahora?*

**Gogoetarako obra bat, beraz.**

Ikuslea antzezlanak bukatu ondoren egiten den foroan aske sentitzea nahi dugu. Ez dugu, inola ere, manipulatu nahi izan. Mezurik gabeko lana aurkezten dugu.



Ortiz de Zarate. | ORTZAI

Mezuren bat izanez gero, agian, "guztioz gizakiak gara" izango litzateke, baita "bestea eta bere mina ulertzeak hainbat muga ireki ahal ditu" ere. Mugak ireki, gero bakoitzak gurutzatu edo ez aukera dezan; betiere, guztiz aske eta errespetaturik bere erabakietan.

**Euskal Herritik kanpo ere aritu zarete lan honekin.**

Gaur arte, Ameriketako Estatu Batuetan, Kuban, Frantzia eta

Italian antzeztu da, Ortzairan antzeztanik hedatuena bilakatu-ta. Oso esperientzia zirrargarria. Gai unibertsala da eta hala jaso da. Oso polita izan da jendearekin hitz egitea emanaldia bukatu eta gero, hain zuzen, urteotan bizi izan dugun isiltasun hori apurtuta.

**Eta nola esango zenue hartu duela jendeak antzezlan?**

Oso ondo. Behin bakarrik izan dugu esperientzia triste bat. Hemen, Euskal Herrian gertatu zen. Bat-batean, bi ikuslek eserlekutik jaiki eta aretoa utzi zuten, euren ezadostasuna adierazita. Argi utzi zuten euren ideia politikoak zeintzuk ziren; pena izan zen. Baina orokorrean, benetan ondo hartu izan da, eta guretzako, batez ere hemen, etxean, jendea jarrera horretan ikustea oso garrantzitsua eta hunkigarria izan da: gaia beste modu batean aztertzen, isiltasuna apurtzen, tolerantzia osoz hitz egiten, beldurra alde batera uzten...

**Arrazoiak badaude, orduan, egubakoitzean plana egiteko.**

Nik uste dut baietz. Fikzioari dagokionez, iruditzen zait benetan entretenigarria dela. Oso pozik gaude *¿Y ahora? Eta orain?* antzezlan honekin. Esaterako, ondo eraikita dago tramari dagokionez, ia-ia misterio antzezlan edota zinema beltz moduan ikus daitekeela esango nuke. Eta horrez gainera, politikatik kanpo dagoen antzezlan ona da, zenbait giza balio argi islatzen dituena.

## ARETXABALETAKO

## Film laburren ikastaroa eta literatur lehiaketako sari banaketa asteon

Loramendik 24. Literatura Lehiaketa antolatu du aurten eta guztira 358 lan aurkeztu dituzte

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Film laburren gaineko ikastaroa antolatu du Loramendik. Hilaren 15ean, 22an eta 29an izango da, 18:30ean hasi eta 20:00ak bitartean, udaletxe zaharrean; bihar da izena emateko azken eguna. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, 12 euro.

Ibai Zangituk emango du ikastaroa eta eduki ezberdinak jorratuko ditu saioetan: gidoiak egiteko sarrera emango du, grabatzeko teknikak irakatsiko ditu eta bideoen edizioa landuko du. "Teoria pixka bat eman arren, praktikoagoa izango da", esan dute antolatzaileek.

**Literatur Lehiaketako sariak**

Egubakoitzean, hilaren 17an, 24. Literatura Lehiaketako sariak banatuko dituzte, 18:30ean, udaletxe zaharrean.

Gustura geratu dira antolatzaileak parte hartzearekin; izan ere, 358 lan jaso dituzte. Gainera, Loramenditik adierazi dutenez, berritasunak ere izan ditu lehiaketak: "Loramendiren eta herriko eskolen artean adostutako aldaketak izan dira, nolabait oinarriak gaurkotzeko". Esaterako, DBHn film laburren ordez Argazkiak deituriko generoa sartu dute eta arrakastatsua izan dela eman dute aditzera.

## ARETXABALETAKO

## Hiri hondakinak eta osasuna berbagai gaur, eta eguenean, berriz, Asiako liztorra, Zaraian

*Hiri hondakinak kudeaketa egokiak baliabideak sortzen ditu eta osasuna babestu* hitzaldia egingo dute Kepa Olaiz Ekologistak Martxan taldeko eta Gipuzkoako Errakusketaren Aurkako kideak eta Julia Sanjose medikuak Zaraian. Eguenean, toki berean, Asiako liztor edo erlabioaren gaineko azalpenak emango ditu Egoitz Galartza albaitariak. Biak 19:00etan hasiko dira.

## Txertoak eta haien erabilerak hartuko ditu ahotan Dorleta Martinez medikuak bihar Aretxabaletan

Kuku Mikuk gonbidatuta, Dorleta Martinez Busteros medikuak elkarte bisitatuko du. Martinezek *Txertoek babesten gaituzte?* berbaldia egingo du bihar, martitzena. Kuku Mikuk Durana kalean duen lokalean izango da, 18:00etan hasita. Txertoak eta haien ematen zaizkien erabilerak-eta izango ditu hizpide. Gura duten guztiek har dezakete parte hitzaldian.

## Danubioa ezagutzeko aukera egongo da eguen honetan 'Ostegun bidaiariak' lehiaketaren barruan

Aretxabaletako Udalak martxan ipinitako *Ostegun bidaiariak* lehiaketa hasiko da maiatzaren 16an; ekainaren 20ra bitartean eguenero bidaia baten kontakizuna jarraitu ahal izango da herriko tabernaren batean. Aurrenekoa *Danubioa bizikletan familiarekin* izenekoa izango da, 21:30ean hasita, Paulaner tabernan.

## ESKORIATZAKO

## 'Ortuak balkoieta' hitzaldia egingo du bihar Amaia Agirrek Ibarraundi Museoa (18:30)

Geroz eta ohikoagoa ari da bilakatzen etxeetan ortua ipintzea. Modu ezberdinak daude, eta horien gainean egingo du berba Amaia Agirrek bihar, martitzena, Ibarraundi museoa. Hala, *Ortuak balkoieta* izenburupean, ortu ekologikoak etxean edukitzeko funtsezko gakoez egingo die berba bertaratzen direnei.

## Domekan Atxorrotzen egingo duten auzolanaren parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute

Atzo, domeka, egin zuten Atxorrotzeko auzolanaren lehen saioa eta bigarrenaz elkartuko dira domeka honetan. Boluntarioak behar dituztela-eta, herritarrei dei egin diete aurrez izena eman dezaten, parte hartze kopurua zehaztu eta lanak banatu ahal izateko. Ibarraundira deitu edo idatzi [ibarraundi@eskoriatza.net](mailto:ibarraundi@eskoriatza.net) helbidera.

## ESKORIATZAKO

## Bertsolari gazteen txanda

Z.V.D.M. | ESKORIATZAKO

Urtero egiten duten bezalaxe, Luis Ezeizako eta Almeneko ikasleek elkarrekin bertso jaialdia egingo dute eguen honetan, maiatzak 16. *Gu ere bertsotan* proiektua landu dute ikasturtean zehar ikasgelan neska-mutilek, eta ikasitakoa praktikan jartzeko ordua iritsi zaie; kiroldegian elkartuko dira, 17:00etan.

**189 lagunen parte hartzea**

Luis Ezeizako neska-mutilek dago-kionez, 4, 5, eta 6. mailako ikasleek gelan prestatutako bertsoak botako dituzte jendaurrean; 75 lagunek hartuko dute parte. Eta Almenetik, berriz, 5. eta 6. mailakoak bertaratuko dira Eskoriatzako kiroldegiraino; 114 izango dira publiko aurrean bertsotan-eta arituko direnak.



Iazko emanaldia. | MIRARI ALTUBE

## Etzi, LOMCE legeari buruz gehiago jakiteko aukera

Eskoriatzako Hezkuntza Foroak antolatu duen hitzaldia kultura etxean izango da, 18:00etan

Z.V.D.M. | ESKORIATZAKO

LOMCE legeari buruzko berbaldia antolatu du Luis Ezeizako eta Arizmendiko gurasoek eta Udalak osatzen duten Eskoriatzako Hezkuntza Foroak.

**Herriko gurasoei zuzenduta**

Eguaztenean kultura etxean izango da, 18:00etan. *LOMCE legea. Zer da? Nola eragingo du gure haurren ikaskuntza prozesuan?* izenburupean, hainbat hizlarik hartuko dute parte. Mariam Bil-

batua eta Agurtzane Martinezek, Huhezitik; Arrate Landa eta Aritz Oinguren, Luis Ezeizatik eta Arizmenditik.

"Gurasoei legearen eragin berri eman nahi diegu". Hala azaldu du Koldotxo guraso elkartearen Nestor Aranek. Antolatzaileek azaldu dutenez, azken 33 urteetan egindako aurrerapausoak galtzeko zorian daudela ikusten dute. "Gure ongizatea gazteen esku dago eta haiengan inbertitu ezean ondorioak sumatuko ditugu".

## Zaldibar antzokia hornitzeko lehiaketa martxan

Z.V.D.M. | ESKORIATZAKO

Eskoriatzako Udalak lehiaketa bidez erabakiko du Zaldibar antzokirako soinu, bideo eta argiztapen ekipoen hornikuntzaz nor arduratuko den. Gainera, besteak beste, udal langileak behatu beharko ditu. Eguenean, maiatzaren 16an, izango da dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko, bai eta eskaerak aurkezteko azken eguna ere. Interesatuak udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dituzte lehiaketarako funtsezko agiriak.



Eguraldiak lagunduz gero aurten ere igerilekuak ipiniko dituzte Maalan uztailean. | L.Z.

**ELGETA**

## Ferixa Nagusiko jaien biharamunean zabalduko ditu ateak udaleku zerbitzuak

Aurten ere Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei eskainiko zaie zerbitzua; izen-ematea zabalik dago ekainaren 14ra arte

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Gero eta gertuago daude udako oporrak, eta Elgetako Udalak udaleku irekiak iragarri ditu uztaileko. Iaz, bost dinamizazioz gidaritzapean, 54 neska-mutikok erabili zuten zerbitzua.

**Izen-ematea zabalik**

Hiru aste eta erdiz emango du aurten zerbitzua Udalak; uztailearen 1etik 24ra bitartean, eta ohiko ordutegiarekin: asteleheneretik barikura bitartean, 09:00etatik 13:00etara. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako neska-mutikoendako dira udaleku irekiak; hau da, 2002tik 2011ra bitartean jaiotakoendako, biak barne.

Zerbitzuaren prezioari dagokionez, hilabete osoko kuota 90 euro da; hiru asteko kuota 70 euro; bi asteko kuota 55 euro; eta astebeteko kuota 30 euro. Bigarren anai-arrebak %20ko deskontua izango du. Hoberi bereziak jasotzeko udaletxean galdetu behar da. Izena emateko prozedura da banketxean ordainketa egitea eta froga-agiria udaletzeko harreran aurkeztea.



Iazko erabiltzaile taldea ur jolasak egiten. | L.Z.



Bits festa ere egin zuten iaz. | L.Z.

**ANTZUOLA**

## Erretiratuen Elkarteak batzordeko kide berriak izendatu ditu

Apirilko batzar orokorrean, aurrekontuak eta aurten egingo diren ekintzak onartu zituzten

**ANE ETXEBERRIA** | ANTZUOLA

Antzuolako Erretiratuen Elkarteak apirilaren 27an urteko batzar orokorra egin zuen. Bertan, 2012ko memoria onartu zuten. Horrez gainera, aurten egingo diren ekintzak eta aurrekontua onartu zituzten.

Halaber, batzorde berria ere eratu zuten; hauek dira kide

berriak: Jenaro Laskurainek bere kargua beste urtebetez mantenduko du, presidente izaten jarraituko du; Pello Lete idazkari lanetan arituko da; eta Jose Ignacio Garitano diruzaina izango da. Bokalei dagokionez, aurten ere sei lagun arituko dira: Carmen Egaña, Francisco Moreno, Pilar Agirrezabal, Fernando

Agirre, Mari Carmen Juan eta Vicenta Irizar dira kide berriak.

**Hitzaldia eguaztenean**

Erretiratuen Elkarteak antolatutako ekintzei dagokionez, eguaztenean, maiatzaren 15ean, arratsaldeko bostetan, hitzaldia izango da Erretiratuen Elkartearen. Hizlaria Evelia Cantero izango da eta gai hau jorratuko du: *Derecho de decisión, incapacidad, deseos, voluntades anticipadas...*

Hitzaldia gaztelaniaz izango da eta herritar guztiei irekita dago, antolatzaileen esanetan, denen interesekoa izango baita jorratuko den gaia.

**ARAMAIO**

## Basoa energia iturri ona dela erakustera datorren jardunaldia hilaren 16an

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Eguen honetan, hilak 16, jardunaldi interesgarria egingo dute Kultur etxean. Basoa energia iturri ona dela erakusteko saioa izango da: *Basoetako bioenergia: aurreztea, enplegua eta jasangarritasuna landa eremuan*. 10:00etan hasi eta 20:00etara bitartean Udalak garatu gura duen biomasa proiektuaren gainean hainbat adituk egingo dute berba. Gipuzkoa, Bizkaia zein Arabako udal ezberdinetako teknikariak etorriko direla ziurtatu dute eta Arabako Aldundiko zein Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ere egongo dira: "Espero baino eskaera gehiago jaso ditugu", adierazi digute. Izena emateko aukera egongo da etzira arte.

**Eredu izateko asmoz**

Aramaioko proiektua eredu izatea gura dute eta horretarako Udala aspaldi hasi zen lanean; 2011ko martxoan, besteak beste, Austriako Urbas enpresa adituak ondorioztatu zuen Aramaio leku aproposa dela energia iturri hori ustiatzeko.

**EGITARAU**

**10:00:** Jardunaldiaren irekiera.

**11:00:** *Biomasaren aprobetxamendurako aukerak Araban*. Elena Vilches, Arabako Aldundiko Mendi zerbitzu burua.

**11:45:** *Biomasaren aprobetxamendu teknikorako estrategia Euskadin*. EVE eta HAZI.

**12:30:** *Arrakasta biomasa instalazioetan-Beroketa sareak*. AVEBIOM elkartearen enpresak.

**13:15:** Galderendako tartea.

**17:00:** *Bioenergiaren garapena, ezagutzatik, konbentzimendutik eta konpromisotik*. Bioenergiaren zutabeak. AVEBIOM.

**17:45:** *Life+Bioenergy and Fire Prevention proiektuaren garapena*. Zergatik da garrantzitsua basoetako biomasaren erabilera?. Enguerako (Valentzia) Udala.

**18:30:** *Basoetako bioenergia: basoen kudeaketaren bideragarritasuna eta aukerak*. Josu Azpitarte, COSEko presidentea.

**19:15:** Jardunaldiaren gaineko eztabaida eta ondorioak.

**20:00:** Jardunaldiaren itxiera.

## Azpeitiko Lakrikun antzerki taldearen 'Prest gaude' antzezlanaren egubakoitzean Kultur etxean, 22:30ean

Txirritola euskara elkartearen eta Kultur Errotaren ekimenez, egubakoitz honetan antzezlan interesgarria ikusteko aukera egongo da Kultur etxean, 22:30ean hasita. Alaitz Olaizola, Idoia Uranga eta Gurutze Eizmendi aktoreek hartzen dute parte antzezlanean: greban egon eta euren helburuak bete ez zituztenez, bigarren ahalegin bat egingo dute, ez zaie eta borrokarako grinarik falta. Umorea eta satira tartekatzen ditu antzezlanak.

**LEINTZ GATZAGA**

## Ondasun Higiezinaren gaineko zerga, uztaileko

Maiatzaren 15ean zabalduko da borondatezko epea, uztailearen lehen egunera arte

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak iragarri du zabalduko dagoela Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga ordaintzeko epea. Hain zuzen ere, apirilaren 23a baino lehen helbideratutako ordainagiriak bankuaren edo aurrezki kutxaren kontu korrontetik kobratuko dituzte zuzenean, ordaintzeko borondatezko epea amaitzen den egunean.

Gainontzekoei dagokionez, berriz, zerga hori ordaintzeko epea maiatzaren 15ean (oraingo asteko eguaztena) zabaldu, eta uztailearen 15ean itxiko da.

**Ordainagiria eskatu beharra**

Helbideratu gabeko ordainagiriak zergadunak adierazitako zerga helbidera bidaliko dira maiatzean zehar. Ordainketa entitate laguntzaileen bidez

(banku, aurrezki kutxa eta kreditu kooperatiba) egin beharko da, eta horretarako ordainagiria aurkeztu beharko da.

Eta kontuan hartzekoa da azken puntu hori, ezen ekainaren 9a iritsi eta zergadunak ez badu ordainagiria etxean jaso, ordainagiria eskatu egin beharko du. Horretarako egokitutako bulegoen artean, gatzagarrendako gertukoena Bergaran dagoena da: Bergarako Herri-tarren Arretarako Bulegoa, Toki Eder kaleko, 5. zenbakian.

**Gainkarguarekin**

Zerga ordaintzeko borondatezko epea bukatu ostean, hala-koetan ohi den moduan, ordaindu bako zergak gainkarguarekin kobratuko dituztela ere kontuan hartzekoa da.

# Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



## Eraman ezazu beti txartela aldean!



### GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO

#### KAFE MAKINA

NESCAFÉ Dolce Gusto Melody kafe makina dugu zozketatzeko!



#### Parte hartzeko

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA]  
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira  
Telefonoz: 943 25 05 05  
E-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
WhatsApp bidez: KLUBA [SARIAREN IZENA]  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

DolceGusto  
BaserriSarea  
Arrikruz  
Bertikal  
Mihiluze

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionaitea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

#### BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENENKO BASERRI SAREARI esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



#### ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.



#### MIHILUZE

MIHILUZE joko irabaztea nahi?  
Bi joko ditugu zozketatzeko.



#### BERTIKAL.COM

Bertikal joko berria gazte zein helduentzako.  
5 joko ditugu zozketatzeko.



DESKONTUAK: [www.goienakluba.com](http://www.goienakluba.com)



#### Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki saikatuetan eta eskeletan.



**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.  
943 25 05 05  
[kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
[goienakluba.com](http://goienakluba.com)

# KIROLA

ERREGIONAL PREFERENTEA

## Etxeko zaleen aurrean irabazi du liga Antzuolak, eta mailaz igoko dira

- ▶ Soraluzek egindako mesedea aprobetxatu zuten
- ▶ Udaletxean harrera izan zuten txapeldunek

EMAITZA
ANTZUOLA
<b>5-0</b>
IDIAZABAL

XABIER URZELAI | ANTZUOLA

Atzokoa egun historikoa izan zen Antzuola futbol taldearendako, eta halaxe azpimarratzen zuten elastiko hori janztea zer den ondo dakiten, eta dagoeneko erretirata dauden hainbat jokalaria beteranok. Balentria berdegunean egin zutenek ere horixe aitortzen zuten, begiak bete malko zituztela: "Hainbat belaunalditako jendea etorri da gaur Estalara partidu hau ikustera, eta guztiondako izan da egun berezia, Antzuola inoiz ez delako ohorezko erregional mailara igo", zioen kapitainak, Iñaki Agirrek.

Bada, Antzuola ondo merezita lehiatuko da datorren urtean bailarako beste taldeen kontra; hala, adi Bergara, Aretxabaleta, Mondra edo Aloña Mendi, Estala futbol zelaiko ezaugarriak tarteko, bertako puntuak oso garesti egongo direlako.

### Idiazabal, gutxira etorrita

Partiduko lehenengo minutuak urduritasun handikoak izan ziren. Antzuolak moralki kolpe gogorra hartu zuen joan den astean, urte osoan aurrean ibili ostean Zestoan partidu galdu eta bigarren postura salto egin zutenean. Orduan Juanina Garai entrenatzaileak garbi egin zuen berba: "Ez dugu partidu irabazteko aparteko ahaleginik egin, ez gara Antzuola izan". Hala, atzoko partiduan etxeko taldea Antzuola izan zen ostera.

Idiazabal –ez zuen ezer jokoan– ondo kokatu zen atzealdean, baina berdinketa defendatzeko asmoz zelairatu ziren, partidu irabazteko aparteko ahaleginik egiteko asmo barik, edo gaitasun barik. Antzuola, ostera, poliki-poliki hasi zen kontrarioaren ate ingurura gerturatzen. Lehenengo

### FITXA TEKNIKOA

**Antzuola:** Iturbe, Del Pozo, Zabala, Lete, Agirre, Godoy, Ramirez, Julen, Lizarazu, Aranzabal, Zubikarai. Ordezkoak: Unai, Olalde, Zabalo, Altube, Aiestui, Etxaniz, Unanue.

**Idiazabal:** Joseba, Irastorza, Elustondo, Larrañaga, Imaz, Muxika, Senperena, Joseba, Urkia, Telleria.

**Beste:** Jende asko Estala futbol zelaian, etxeko taldea animatzen. Antzuolaren aldeko kamiseta eraman zuten zaleek. Luntxa izan zen gero.

abisua kategoria txiki geratzen zaiola erakutsi zuen Zubikarai eman zuen, ezker hegaletik erdiraketa, baina erremate garbirik ez. Ondorengo minutuak oso trabatuak izan ziren –zelai horrek horretarako aukera ematen du– baina 39. minutuan arduratu zen, Zubikarai ostera, korapilo hori askatzen. Ezker hegaletik jokaldi ederra egin, eta ia alboko marra gainetik bi defentsa utzi zituen atzean, horietako azkenak penaltia egin zion arte.

Hori behar zuen Antzuolak, lehenengo gola egin eta Idiazabal eraso egitera behartzea. Hala, kapitainak hartu zuen penaltia jaurtitzeko ardura, eta barrura (1-0).

### Eta Soraluzen, zer?

Estalan gertatzen ari zenarekin batera, antzuolarrak Soraluzen gertatzen ari zenaz galdezka zebiltzan. Izan ere, Antzuolaren aurretik lider zen Getariakok Ezozian zuen partidu. Eta, Soraluzeko berdegunetik iristen ziren berriak onak ziren, Soraluze aurretik zelako markagailuan (3-2 irabazi zuten), eta horrek lider egiten zuelako Antzuola.

Bigarren zatia hasi eta berehala egin zuen Antzuolak Idiazabal birrindu zuen gola. Zubikarai balaia lapurtu zuen zelai erdian, eta kontrarioaren atetik 30 metro ingurura zela, eskuin hankarekin –hanka txarra– jaurtiketa ederra eginda bigarrena lortu zuen (2-0). Eta birrindu diogu, Idiazabal gol horretatik errekuiperatu barik

zegoenean hirugarrena jaso zuelako: Imanol Aranzabalek aireko jokaldian balaia buruz loratzea lortu zuen, eta Idiazabalgo Joseba atezaina gainditu zuen (3-0).

### Tentsioa mantenduz

Hiru gol eginda ere ez zuen Antzuolak lasaitzeko tarterik hartu. Garai minutuak banatzen hasi zen gutxiago jokatu duten jokalarien artean, baina berdegunean ez zuen akats bakarra barkatzen, jokalariei uneoro adi egoteko eta gauzak erraz egiteko eskatuz. Hala, laugarren gola berdegunera salto egin berri zegoen Iban Unanuek egin zuen: Del Pozok ezker hegaletik hasi zuen jokaldia, eta Zubikarairi hegalaria zabaldu beharrean zuten erdiraketa erabaki, eta Unanuek sare-tara bidali zuen arrasatearraren pase ona (4-0). Eta hain zuzen, Del Pozo izan zen arratsaldeko azken gola egin zuena, bosgarrena, pastelaren ginda (5-0).

### Ospakizunak, luze

Estalako ospakizunen ostean –luntxa izan zen– udaletxerako bidea hartu zuten futbol taldeko ordezkariek, herritarrei liga eskaini eta euren babesa jaso asmoz. Denboraldi eder honek, baina, azken errematea behar du, multzoko txapeldun bai, baina Gipuzkoako txapeldun gertatzeko finala dutelako zain.



Taldeko bigarren entrenatzaile Jon Madariaga airean ibili zuten taldekideek, partidu ama...



Zubikarai izan zen Idiazabalen defentsa hautsi zuena. | JOSETXO ARANTZABAL



**JUANINA GARAI**  
ENTRENATZAILEA

"Futboleko daramatzadan urteetan gaurkoa moduko poztasuna hartu nuen emakumezkoekin liga irabazi genuenean, baina dagoeneko ahaztuta nuen. Urte osoko lanaren emaitza da hau".



**IÑAKI AGIRRE**  
KAPITAINA

"Emozionatu egin naiz gaurko eguna ederra izan delako. Antzuolan jokatu duten belaunaldi askotako jendea etorri da gaur gu animatzera, eta partidu hau irabazi beharra zegoen. Eskerrak eman nahi dizkiet zaleei".



**IBAN UNANUE**  
JOKALARIA

"Partidu ederra izan da, eta gainera, berdegunera salto egin eta gutxira gola egin ahal izan dut. Oso partidu garrantzitsua zen guretako, eta etxeko zaleen aurrean derrigor irabazi behar genuen".

## ESKUBALOIA | Ford Mugarri Arrasate nazional mailara igo da | 24



bitu eta ospakizunak hasi zituztenean. | JOSETXO ARANTZABAL

### FUTBOLA

## Mondrak kategoriari eusteko aurrerapauso galanta egin du, Lagun Onaki irabazita

Aretxabaletak eta Bergarak ere irabazi egin dute; Aloñak, ostera, galdu

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Mondrak, UDAk eta Bergarak irabazi egin dute aste bukaeran, eta Aloñak galdu: arrasatearrek 2-1 Lagun Onaken kontra; aretxabaletarrek 0-1 Trintxerperen zelaian; mahoneroek 1-0 Urolarekin; eta txantxikuek 0-1 Berio-ren kontra.

Oñatiarrek lehia galdu arren, matematikoki, Ohorezko Erregional Mailan geratzeko puntuak lortu dituzte dagoeneko, txapelketa bukatzeko bi jardunaldiren faltan.

### Bigarrena, penaltiz

Bide beretik doa Mondra. Maila mantentzeko lehen finala irabazi egin zuen Lagun Onak taldearen kontra. Lutxo Iturrioren taldeak asko sufritu zuen irabazteko. Zuzendaritzak egingadako deialdiari erantzunez, ohi



Lagun Onakeko jokalaria, Iker Lopezi falta egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

baino ikusle gehiago egon zen Mojategin. Etxekoak aurreratu ziren lehen zatian eta azpeitiarrek bigarrenaren berdindu zuten. Zaitetik penalti bidez egin zuen garaipenaren gola (2-1).

### Bergara eta UDA

Bestalde, sailkapenaren goiko lekuetan jarrartzeko puntu garrantzitsuak lortu zituzten Bergarak eta Aretxabaletak aste bukaeran.



Udaletxean harrera egin zieten Antzuolako ordezkariak. | J.A.



IMANOL SORIANO



ZELAI BERRIA


IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO


## Larrañako futbol zelaia, inauguratuta

Oñatik futbol zelai berria du, belar artifizialekoa, San Lorentzo auzoan. Zapatuan egin zuten Larraña futbol zelaiaren inaugurazioa, eta ohiturari eutsiz, ohorezko sakearen –alkatearen esku– eta aurrekuaren ondotik Debagoieneko taldeen arteko derbia izan genuen, emakumezkoetan. Hala, kadete mailako Aloña Mendi eta Arizmendi izan ziren zein baino zein gehiago, eta berdinketarekin amaitu zen partidua (2-2).



MARKEL LETE  
JOKALARIA

"Urte osoa aurrealdean egon ostean ez zen bidezkoa bigarren postuan sailkatzea. Matematikoki mailaz igota geundela zioten, baina batek daki. Partidua irabazi egin dugu, eta Soraluzek faborea egin digu".



MIKEL ZABALA  
JOKALARIA

"Arrasatekoa izan arren, dagoeneko berba ere antzuolarrek moduan egiten dut [Barre]. Ederra izango da datorren urtean bailarako beste taldeen kontra jokatzea, lagun asko ditut-eta talde horietan jokatzen".



Ford Mugarrikoak, pozik Santoñako kantxan, hiru egunetako lehiaren ostean igoera lortu eta gero. | ANDONI ARANDO

## ESKUBALOIA

# Ford Mugarri, Lehen Nazional Mailara

Santoñan jokoan egon den igoera fasean bi garaipen eta berdinkeat bat lortu dituzte

## TXOMIN MADINA | ARRASATE

Kostatu zaie, baina azkenean bai: hiru urteren ostean, Ford Mugarri lortu du Maila Nazionalerako txartela lortzea. Santoñan jokoan egon den igoera fasea ez da erreza izan, eta seguru jokalariek buruan zituztela aurreko bi urteetako desengainuak. Atzo etxeko taldearen kontra, hau da, Santoñaren kontra jokatu zuten norgehiagoka izan zen erabakigarria.

Arrasatearrek, egubakoitzean Virgen Europa Madrileko taldeari 29-26 irabazi ostean, zapatuan Pontevedraren kontra azken segundotako 28-28 berdindu zuten. Igoera lortzeko derrigorrezkoa zuten sailkapenean lehenen zen Santoña mendean hartzea eta horrelaxe egin zuten.

## Uneoro aurretik

Pablo Gartziaren mutilak gogotsu irten ziren kantxara, eta lehen

unetik eurak izan ziren nagusi. Hala, bosgarren minutuan 1-2 zegoen markagailua; hamargarrenean 3-6 eta 25. minutuan, 7-11. Santoñako entrenatzaileak hutsartea eskatu zuen orduan, eta badi-rudi arrasatearrek apur bat partidutik irten zirela. Hala, atsedeanaldian 11-12 zen emaitza.

Bigarren zatia gogorrago hasi zuten kantabiarrek, eta 13-13 eta 15-15 berdintzea lortu zuten. Dena den Ford Mugarrikoak izan ziren berdinketa guztiak hautsi zituztenak.

Neurketaren 40. minutuan fisikoki asko jaitzi ziren aurkariak eta markagailuan alde handitzen hasi zen: 45. minutuan 16-19 zen alde. Arrasateko atezainen dantza hasi zen orduan: Txabarriren partez Ekaitz sartu zen. Baina hau ez zegoen gustura egiten ari zen lanarekin, eta Valle jarri zen orduan atezain.

50. minutuan sei gol aurretik zihozten arrasatearrek. Azken minutuetan saiatu ziren kantabriarrak aldaketak egin eta partiduari buelta ematen, baina ez zuten horrelakorik lortu: handiagoak izan arren, arrasatearrek biziago ibili ziren. Partidua irabazi zuten arte (22-29).

## Zaleei eskerrak

Behin norgehiagoka amaituta, Andoni Arando Ford Mugarriko ordezkarientzat markagailuan beti aurretik joatea izan zen neurketaren gakoa, eta gustura agertu ziren bai bera eta baita entrenatzailea epaileen lanarekin: "Bi taldeekin berdin jokatu dute". Talde guztiaren partetik gainera, eskerrak eman gura izan zizkieten jarraitzaile guztiei. Izan ere egunotan ez dira gutxi izan Santoñan Ford Mugarri animatzen egondako arrasatearrek.



Arrasatearrek atzoko partidurako berotzen. | ANDONI ARANDO



Arrasatekoak etxean, garaikurrak. | ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

## PABLO GARTZIA | FORD MUGARRIREN ENTRENATZAILEA

## "Taldeak Nazional Mailako sailkapeneko erdi inguruan ibiltzeko maila polita du"

Oñatiarrak aurten hartu du taldearen ardura, eta bere gidaritzapean aurreko urteetan ihes egin zion igoera lortu du Ford Mugarri.

## Hil ala bizikoa izan duzue azken partidua, Santoñaren kontrakoa.

Partidu polita egin dugu; hasieratik oso zentratuta irten gara. Egindako plan-teamendua ondo irten zaigu eta azkenean lortu dugu denok nahi genuena.

## Taldea honek merezi zuen ezta?

Nire ustez bai. Pertsona moduan sekulakoak dira, eta aurreko faseetan asko

sufritu izan dute. Merezitakoa izan da. **Zuk zeuk badakizu zer den Lehen Nazional Mailan jokatzeko. Talde honek badu hor aitzeko maila?** Zalantza barik; gaur erakutsi dute maila oso ona dutela. Inoiz ezin da esan, baina nire ustez sailkapeneko erdi inguruan ibiltzeko maila polita duela. **Fitxaketarik egingo duzue?** Nik uste dut taldea eginda dagoela eta norbait etortzen bada ongietorria izango dela, baina taldeak badu maila. **Oinarriak behintzat badaude.**




GOIENA

Oinarriak badaude, uste dut ondo ezarri zirela. Zentzu horretan Edu Orgazek eta Ane Herreroek egindako lana aipatu nahi nuke; lan horretatik abiatuta nik nire apurra jarri dut eta azkenean lortu da igoera.



Arrasatekoak domina jasotzen | ANDONI ARANDO





Lasterketako irabazlearen Lola BMW autoa, entrenamendu txanda hasteko irteera puntura bidean. | IMANOL SORIANO

## AUTOMOBILISMOA

# Garaipenerako bidean bost segundoko aldea izan zuen Zabaletak

Baldintza oso oneko lasterketan Bergarakoak ez zuen kontrariorik izan etxean irabazteko

XABIER URZELAI | BERGARA

Iazko arantza atera ahal izan zuen zapatuan Aitor Zabaletak etxean, Gorlako Igoeran. Bergarako laugarren izan zen iaz, euriak markatu zuen lasterketan, baina zapatuko baldintzak erabat bestelakoak ziren. Hala, faboritoak ez zuen hutsik egin (denbora onena, 02.35.55). Eta bost segundoko aldea atera zion Joseba Iraolaren Silver Car barketa ari-nari (02.37.39). Arkaitz Ordoki izan zen podiumera igoten hirugarrena.

**Pilotu asko, eta zale gehiago**

Egutegiko lehenengo hitzordura pilotu mordoa animatu ziren –debagoienekoak 19– eta baita zale asko ere. guztien artean azkarrena izan zen Lola BMWa, aurreikuspenak beteta. Izan ere,

## SAILKAPENA

1. Aitor zabaleta	2:31:55
2. Joseba Iraola	2:37:39
3. Arkaitz Ordoki	2:40:70
4. Ruben Nogueiras	2:42:91
5. Manuel Cabo	2:44:67
6. Aitor Ramirez	2:47:37
7. Iker Barruetabe.	2:48:35
8. Josu Lertzundi	2:55:65
9. Iñaki jauregi	2:55:99
10. Jose Inazio Erd.	2:56:43

arazo mekanikorik ezean gainontzekoek oso zail zuten Bergarako menderatzea, errepidea siku egonda Speed Car edo Silver Car autoak gerturatu baino ezin zirelako egin. Eta gertu egotea berba egiteko modu bat da, Zabaletak egin duen denbora onena baino 5 segundo gehiago behar izan zituelako Joseba Iraolak.

**Sustoa, Mikel Otxoak**

Arratsaldeko sustoa, berriz, Aretxabaletako Mikel Otxoak eman zuen, lehenengo txanda egiten zebilela BMW Touring autoak su hartu zionean. Entrenamendu saioan autoak tiraldiak egiten zizkiola-eta, depositoa gasolinaz betetzea erabaki zuen, eta lehenengo txanda topera irten zen, azkar. Kurbak lotzen zihoan bitartean, antza, depositotik gasolina



Ramirez oñatiarraren BMWa, igoerako lehenengo metroetan. | XABIER URZELAI



Mikel Otxoaren autoa erretiratuta. Sua itzaltzea lortu zuten. | XU

isuria izan, eta autoaren behekaldeak su hartu zion: "Kea ikusi dudanean larritu nahiz, ahal nuen moduan geratu eta ordurako autoaren azpialdea sutan zegoen". BMWak eztanda egin zezakeelaz jabetu barik –edo arrisku hori onartuta–, su-itzalgailluekin autoa salbatzea lortu zuten.

Podiumera igo barik geratu zen Oñatiko Ruben Nogueiras laugarren postuan. Aitor Ramirez BMW ST autoa, berriz, seigarren izan zen, eta Aretxabaletako Corcuera lehenengo txanda ona egin bazuen ere (8. postuan), bigarren txanda egiteko lau segundo gehiago behar izan zituen.

## TXIRRINDULARITZA

## Enrique Serrato izan zen Arantzazura igotzen onena

Laguntasuna taldeko Enrique Serratok 23 minutu eta 45 segundo behar izan zituen Arantzazura igotzeko. Ibarreko onena Julen Irizar izan zen (18 segundura), bosgarren.



## OTALA-ZELAI KROSA

# Inoiz baino korrikalari gehiago batu ziren Ojala-Zelaiko kros herrikoian, domekan

Yerai Varela ez zuen areriorik izan eta erraztasun osoz irabazi zuen Ojala-Zelai krosa

IMANOL GALLEGO | ARETXABALETA

Zirimiriak ez zuen inor etxean utzi eta Ojala-Zelai inguruak jendez lepo zeuden. 11:00k inguru Joseba Larrinagaren omenez egin zuten minutu bateko isilunearen ostean hasi zen aurtengo krosa. Lehen metroetatik taldetxo batean kokatu ziren faboritoak eta Yerai Varela buru zutela erritmo bizian jaitsi zuten Urkulura doan aldapa. Urtegia inguratzen hasi zirenean Varela bere erritmoa inposatu zuen eta Martin Berriz-Beitia eta Gaizka Romero, bigarren eta hirugarrena, atzean utzi zituen. "Gustura ibili naiz eta denbora guztian nire erritmora joan naiz". Hala argitu zuen Varela, krosako irabazlea. Nerea Arregi izan zen Ojala-Zelaiko helmuga zeharkatu zuen lehen emakumea.

Urtegi laudaren osteko aldapa izan zen ibilbideko zatirik zailena eta bertan ikusi zen batzuen eta besteen sasoi eta indarra. Dena den, jendearen umorea ikusi ostean gutxienekoa sailkapena zen. Hala ere, ziur helmugara iristen aurreneko aretxabaletarra izan zen Julen Larrinagarentzat jasotako sariak zapore berezia izan zuela.

## Lehen aldiz binaka

Krosaren izaera herrikoia berreskuratzeko asmoarekin lehen aldiz binaka korrika egiteko aukera egon zen. Aurreneko aldian izateko, bikote dezentek eman zuten izena eta gehienek oso denbora onak egin zituzten. Lehen bikote irabazlea Mikel Ugarte eta Marisol Ramosek eratutakoa izan zen.

## Gazteek ere egin dute korrika

Nagusiek baino lehenago, eta ibilbide motzago batean noski, gazteak izan ziren korrika egiten lehenak. Kimu mailatik kadete maila arte, Ojala-Zelairen inguruan aritu ziren. Lanbakadek eta nekeak axola ez balute bezala, txalo artean ikusizun polita eman zuten.

Aurtengoa 35. aldian izan da Ojala-Zelaiko krosaren azken lasterketa. Hurrengo urtetik aurrera, krosa Joseba Larrinaga memoria-ila deituko da-eta.



Hasiera bizia izan zuen aurtengo krosak. | JOSETXO ARANTZABAL



Nerea Arregi izan zen lehenengo emakumea. | J.A.




Gazteek gogotik egin zuten korrika. | IMANOL GALLEGO

## Larrinagari omenaldia

Ana Bolinaga alkateak Joseba Larrinagarekin bizi izandakoak gogora ekarri hasi zuen ekitaldia. Oso hitz hunkigarriak izan ziren eta bati baino gehiagori Larrinagarekin bizitako zenbait pasadizo gogoratzeko balio izan dio. Ostean, Martin Garitanok Gipuzkoako ahaldu nagusiak Larrinaga moduko gipuzkoar zintzoen "premia" azpimarratu zuen. Bere familiarekin batera, kirolaria gogoratuko duen zuhaitz bat ere landatu zuten Ojala-Zelain.



Zuhaitzaz gainera, Larrinagaren argazki bat ere jarri dute. | JOSETXO ARANTZABAL



**JULEN IBABE**  
ARETXABALETA

"Egia esan ez dut gehiegi pentsatu, ez naiz estrategia zalea. Ojala-Zelaiko korrika egitera etorri naiz, besterik gabe. Sorpresa izan da, hala ere, lehen postua lortzeko asko poztu nau".



**ANE GAY**  
ESKORIATZA

"Bi buelta izan direnez, lehenean apur bat lasaigo joateko aukera izan dut. Bigarrenean nekatuta nengoen arren apur bat gehiago estutu dut eta horri esker lortu dut lehen postua".



**MARIFRAN ALONSO**  
ARRASATE

"Nik binaka egin dut eta oso gustura nago egindako lanarekin. Egia azken kilometroa aldapa gora izateak asko nekatzen duela baina oso pozik nago".



**YERAI VARELA**  
OÑATI

"Ez dut estrategia zehatz bat jarraitu. Hasieratik nire erritmoa joan naiz. Ibilbide erdian bakarrik geratu naiz eta horregatik azken kilometroan erritmoa jaitsi dut".

## PILOTA

## Ezkerreko hankaz hasi du Arrasatek Herri Artekoa

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Gipuzkoako Herri arteko txapelketaren baitako partidua jokatu zituzten atzo arratsaldean Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Etxeko pilotariak Oartzunetik bertaratutakoak izan zituzten aurrez-aurre eta argi geratu zen atzokoa ez zela arrasatearren eguna izan.

Kadeteak, gazteak eta seniorak gogotsu irten ziren kantxara, baina ezin izan zituzten bisitariak menpean hartu. Partidu zaila egin behar izan zuten aurre, eta hori horrela, azkenean galdu egin zuten hiru kategoriek: 22-13, 22-7 eta 22-13, hurrenez hurren.

Orain astebate daukate Arrasate Pilota taldeko mutilek indar-

berritzeko; asteburu honetan bertan Oartzun aldera bidaiatuko baitute errebantxa bila.

## Bergara Hiria, bihar

Bihar berri, Bergara Hiria Txapelketako bigarren finalerdiak jokatu dituzte 19:30ean hasita, Bergarako frontoian.

Aurrena promesen mailan, Irribarria-Imaz, Gallastegi eta Ibarrondoren aurka lehiatuko dira. Osteko partiduan berri, nagusien mailan Larrañaga-Peñas eta Ioldi-Tolosa bikoteen erakustaldia eskainiko dute.



Arrasateko pilotariak partiduen aurretik. | ZV.D.M.

Eneko Lizarralde | Eki Sport Gipuzkoa taldeko txirrindularia

# "Taldeko ziklista gazteena izanda, nire lekua topatu behar dut oraindik"

- ▶ Bergararra Eki Sport Gipuzkoa taldeko txirrindularia da, Jon Odriozolaren aginduetara
- ▶ Industria Antolakuntzako Ingeniaritzako bigarren ikasturtea bukatzen dabil

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Eneko Lizarralde (Bergara, 1993) Eki Sport Gipuzkoa taldeko txirrindularia da. Bigarren urtez dihardu amateur mailan. Zapatura arte Bidasoako Itzulian egon da, eta, etorkizunerako planak egin aurretik, ziklismoa eta ikasketak bateratu behar ditu: Industria Antolakuntzako Ingeniaritza ikasten dihardu Arrasaten.

**Bidasoko Itzulia bukatu berri duzu. Zer moduz ibili zara?**

Lehenengo itzulian zulaketa bat izan nuen eta sailkapen orokorrerako aukera guztiak galdu nituen. Hirugarren etapa ihesaldian egon nintzen. Ihesaldia bukatuta taldearendako lana egin genuen. Baina, taldeak, oro har lan ona egin du. Etapa bat irabazi dugu eta sailkapen orokorra irabazteko lehian egon ginen azken egunera arte. Zoritxarrez ez genuen lortu. Dena den, lan ona egin dugula esango nuke. Gustura gaude.

**Bigarren urtez diharduzu amateur mailan. Iaz Debabarrenan eta aurtentzen Eki Sport Gipuzkoan. Zer moduz doa denboraldia?**

Nahiko ondo. Taldeko ziklista gazteena naiz. Askok ikasi beharra daukat oraindik, eta badakit lasterketak irabaztea zaila izango dela. Dena den, pare bat probatan zorte txarra izan dut. Lazkaon zortziko talde bat heldu ginen azken esprinteran, baina aurreko ziklistarekin traba egin eta ia erorikoa izan nuen.

Iaztik izandako bilakaerarekin oso pozik nago. Hobekuntza handia sumatu dut, eta lasterketa gehienetan lehenengo 30 ziklisten artean heldu naiz helmugara. Gainera, Euskalduna Sariko bigarrena naiz, oraingoz.

**Zertan nabaritu duzu hobekuntza hori?**

Gazte mailatik amateurerako aldaketa handia da: lasterketen luzera, talde eta dinamika aldaketa... Gainera, iaz, lesio bat izan nuen eta hark baldintzatu zidan denboraldia. Esperientzia hartu dudala esango nuke.

Talde aldaketa motibazio estra izan da. Gazteena izanda, nire lekua topatu behar dut oraindik, eta, horretarako, etengabe hobetu beharra daukat. Neguan ordu asko eman ditut gimnasioan: hiru egun astero. Pisua mantendu eta hankak asko indartu ditut. Neguko lanaren emaitzak errepidean ikusten ditut orain. Gustura nago.



Eneko Lizarralde bergararra, bizikletarekin, entrenatzera irten aurretik. | MIREIA BIKUÑA

**Eki Sport taldeko ziklista gazteena izanda, zein da zure lana?**

Taldeko ziklistok ez daukagu zeregin zehatzik. Unean uneko sasoi puntuaren arabera lana egiten dugu. Adibidez, Espainiako Kopako proba batean Mitxelena taldekidea bosgarren sailkatu zen eta harendako lan egitea egokitu zitzaidan.

Taldeko zuzendariak esan didate garaipenetan ez pentsatzeko, ikasi egin behar dudala. Espainiako Kopako probak onak dira ikasteko. Profesionalen egu-

**"Bigarren urtea da amateur mailan, baina bilakaera ona daramat"**

**"Ziklismoa eta ikasketak bateratzea ez da erraza"**

nerokotasunetik oso gertu egoten gara horietan: kontzentrazioak, bidaia, egonaldiak hoteletan... Jon Odriozola zuzendariak esaten digu txirrindulari bat ez dela egiten etxe inguruko probetan bakarrik parte hartzen badu. Euskal Herriko proba guztiak modu berean korritzen dira.

**Zeintzuk dira ezaugarriak txirrindulari moduan?**  
*Todo terrenoa* naizela esango nuke, baina erlojupekoan moldatzen naiz ondoen. 1,85 metroko garaiera daukat, eta aldapa gora nahia-

go ditut mendate luzeak. Erritmoa mantendu beharreko horietan gustura egoten naiz. Adibidez, Gorlan. Mendate leherkorretan, Deskargan, ez naiz gai erritmo aldaketei aurre egiteko.

**Liderra izateko, ziklista *todo terrenoa* izatea ezinbestekoa da.**

Duda barik. Ziklismoaren arlo guztiak menderatzea komeni da: erlojuaren kontra, aldapa gora, aldapa behera, esprintean... Alberto Contador bezalako liderra izateko, lasterketa batek sorrazten dituen egoera guztiak menderatzea ezinbestekoa da. Baina ez da erraza arlo guztietan ona izatea.

**Txirrindularitza, batetik; eta ikasketak, bestetik. Nola antolatzen duzu agenda?**

Ziklismoak emandakoarekin bizi izatea oso zaila da, profesionaletarara heltzea zaila den heinean. Horregatik, ikasketak ezinbestekoak dira. Industria Antolakuntzako Ingeniaritzako bigarren urtea egiten dihardut. Ziklismoa eta ikasketak antolatzea ez da erraza. Txirrindularitzak diziplina eskatzen du eta ikasketek ere bai. Baina, askotan esaten dudana moduan, antolaketa kontua da: unibertsitatera joan aurretik entrenamendu saioa egin; egun osoa eskolak hartzen egon; eta etxera heltzean, afaldu eta ohera. Ziklismoan aurrera egiteko ilusioa daukat, eta ikasketak beharrezkoak dira. Hortaz...

**Non ikusten duzu zure burua etorkizunean?**


Ziklismoarekin noraino heldu ahal naizen ikusi beharko dut lehenengo. 23-24 urterekin non nagoen ikusi, eta orduan erabaki beharko dut.

**Ziklismoa egiteko eta, pentsatzen dut, ikusteko ere bai.**

Bai. Telebistan, sare sozialetan... Edozein bide da ona ziklismoa ikusteko. Eskolak arratsaldean ditut. Hori horrela, ezin ditut Italiako Giroko etapak ikusi [Barre].

**Italiako Giroa aipatu duzula, gustuko duzu lasterketa hori?**

Nire ustez, etapaka egiten diren hiru probatatik politena da. Edozer gauza gerta liteke. Aurretik somatu ezin daitezken egoerak sor daitezke, berdin da hirugarren etapa izan edo azken-aurrekoa. Adibidez, Frantziako Tourrean, lasterketa asko kontrolatzen dute, hasieratik bukaerara. Ezuste gutxi egoten da han.



Mutikoa eskolako etxeko lanak egiten. | BARBARA CANNELA

## Galtzea ez da inoren gustukoa, eta ikasi egin behar da

L.Z. | ARRASATE

Galtzea ez da inoren gustukoa, eta bada adin bat —3-5 urte— umeak sekulako haserreak hartzen dituen irabazten ez duenean. Garrasiak, biraoak, negarrak, ostikadak... Adin horretan umea bete-betean dago etapa egozentrikoan. Beraz, normala ere izan daiteke erreakzio hori. Batzuetan, ordea, eta haserretu ez dadin irabazten ere uzten diogu txikiari. Jokiera horrek zalantzak eragiten dizkio Sara Tarrés psikologoari: ez du egoki ikusten ez baitugu umea porrot egoeraren aurrean ipintzen. Uste du kome-nigarria dela galtzeak eragiten duen frustrazioa poliki-poliki kontrolatzen erakustea. Zentzu horretan, beste behin, umeen erreferente nagusiak garelako gogorazten digu.

**Gurasoen papera**

Lehenengo eta behin transmititzen dugun mezuan dago gakoia psikologoaren esanetan. "Jolasaren helburu nagusia lagunekin une dibertigarri bat pasatzea da, eta ez kosta ala kosta irabaztea", dio Tarrésnek.

Adituaren esanetan funtsezkoa da gero mezu horrekin koherenteak izatea. "Guk geuk gure erreakzioak kontrolatzen ez baditugu, alperrik ari gara", dio Tarrésnek. "Kontuz irabazlea gehiegi goraiatzarekin, eta ez gutxietsi galtzailea".

Galtzen ikasi egiten dela dio adituak, eta potentziatu egin behar dela hori. Haurrari azaldu behar zaio aspergarria dela galtzeagatik beti haserretzen den laguna, eta jokaera horrekin jolaskiderik gabe gelditzeko arriskua dagoela.



Haurrak jolasten. | ZUMALAKARREGI

## Azterketak prestatzeko giltza planifikazioa da

Ikasturte amaierako azterketak larritasun iturri izan ohi dira ikasleen artean

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Aholku nagusia ez da aldatu: ikasturte osoan zehar ikasi behar da, baina egia da ikasturte amaierako azterketak larritasun eta urduritasun iturri nagusia direla ikasleen artean. Azterketa horiek ate joka ditugu, eta kome-ni da ikasgaiak garaiz erreparatzen hastea. Adituek gomendatzen dute planifikazio egokia egiteko, eta lan guztia azken egunetarako ez lagatzeko. Errendimendu on

baterako osagaiak jarrera, gaitasuna eta lana direla diote, eta bakar batek huts egiteak eragina duela azken emaitzan.

Lan egutegi orekatua eta erreala egiteko gomendatzen dute. Aholkatzen dute, baita ere, ikasketak saio ezberdinen artean atse-denerako uneak aurreikustea. "Kirola, irteera txikiak... laguntzen dute jarduera kognitibotik atse-den hartzeko", azaltzen dute adituek.

Ikasketak ondo burutzea ikaslearen ardura dela diote, baina familiak lagundu dezakeela. Ikasleek leku egoki batean ikasi behar dute; distrakzioetatik urrun. Eta telebista, anaia-arreben jolasak... distrakzio iturri dira.

Ebaluazioa ikasleari egiten zaio, baina zenbait profesionalen iritzia da azterketa horietan hezkuntza komunitate oso ebaluatzen dela; tartean familia eta irakasleak ere.

## Aitaren partaidetzak eragin garrantzitsua du haurren garapen psikologikoan

L.Z. | ARRASATE

Gaian nazioarteko maisutasuna aitortzen zaio Cambridge-ko Unibertsitateko psikologia katedradun Michael Lamb irakasleari. Haezi.org atari digitalean egingako elkarrizketa ekarri dugu Guraso.com atarira.

**Aitaren paper berria**

Emakumea lan mundura sartzeak aldaketak ekarri ditu aita tradizionalaren figuran —etxera dirua ekartzea, eta aginte iturri izatea—. "Gaur dauden ikerketa datuak oro har hartuz, baieztatu daiteke amak eta aitak beren seme-alabengan antzera eragiten dutela. Psikologo ebolutibo askok pentsatzen dutenaren aurka, ama eta aitaren arteko desberdintasunak askoz garrantzia txikiagoa dute antzekotasunak baino. Fro-

gatuta geratzen da hurbiltasun emozionalak, zaintzeak, jolasak... eragin positiboa dutela haurren garapenean, begiratu gabe amak edo aitak egiten duen", esan du Lambek. "Era berean, gurasoek beren seme-alabekin pasatzen duten denborak garrantzia txikiagoa du haiekin ezartzen dituzten harremanen nolakoak baino". Eta ikerketen ondorioa argia da: "Oro har, aitak biziki parte hartzeak emaitza hobek ekarriko ditu seme-alaben garapen kognitibo, sozial eta emozionalean (...) Aita batek biziki parte hartzen duenean hasieratik umeak hazten, haurren garapenean ere parte hartuko du gero. Gainera, harreman hobek izango ditu seme-alabekin nerabezarotan, eta erraztu egingo du haurrek hezkuntza maila altuagoak lortzea".

## Atzeratu egin dute LOMCE legea onartzeko prozesua

L.Z. | ARRASATE

Espainiako Gobernuaren Ministroen Kontseiluak egubakoitzean, maiatzaren 10ean, onartu behar zuen Hezkuntza Legearen erreforma. Hasieratik eragin ditu protesta ugari Wert ministroaren legeak.

Hilaren 9rako CC.OO. eta UGT sindikatuek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egindako grebarako deiak erantzun eskasa izan zuen gurean. Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza alorrean gehiengo dute sindikatuek uste dute hezkuntza eredu propio dela aldarrikatu beharrekoa, eta ez zuten deialdi horrekin bat egin. Hala eta guztiz ere LOMCE legearen aurkako kartelak ikusi genituen hainbat ikastetxetako atarietan. Nafarroan protesta jendetsuak egon ziren deialdi batera-

tuagoa egin baitzuten lurralde horretan sindikatuek.

**Erreforma atzeratua**

Espainiako Gobernuak ez du iragarri moduan hezkuntza erreformarako proiektua maiatzaren 10ean onartu. Memoria ekono-

mikoan txosten bat falta dela argudiatuta esan dute azken unean gaia atzeratzea erabaki dutela. Ministeriotik jakinarazi dutenez desadostasunak konpontzeko helburuarekin oposizio taldeekin hitzeginen ari dira orain.



LOMCE legearen aurkako pankarta Bergarako institutu atarian. | L.Z.



# Zer eskaintzen digu **LANBIDE HEZIKETAK** Mariaren Lagundia Ikastolan?



**Mariaren Lagundia  
Ikastola**  
Espaloia 1  
Tel. 943 76 25 40 / 41  
ikastola@mlagundia.net  
www.mlagundia.net

## Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria

Esperientzia eta bizipenetan oinarritutako ikasketak.



**kalitatea**

**konfiantza**

**esperientzia**

**ATE IREKIAK:**  
maiatzaren 15a  
17:30ean  
**AURREMATRIKULAZIOA:**  
maiatzaren 27tik  
ekainaren 7ra

## Gizarte Integrazioko Goi Mailako Teknikaria

Aurten adibidez, Gallineroko umeekin gozatzeko aukera izan dugu, bai Madrilen bertan eta baita gurean ere.



**estimulazioa**

**inplikazioa**

**praktikak**

**hurbiltasuna**

**ATE IREKIAK:**  
maiatzaren 15a  
17:30ean  
**AURREMATRIKULAZIOA:**  
maiatzaren 27tik  
ekainaren 7ra

# lan munduratzeara

# KULTURA



Belaunaldi ezberdinak daude Angiozarko eskolan, eta denek hartu zuten parte egubakoitzeko kontzertuan. | IMANOL SORIANO

## Angiozarko trikitilarien lehen diskoak, erantzun paregabea

- ▶ Trikitilari eta pandero-joleen eskolakoek diskoa aurkeztu zuten
- ▶ Ostiralean egindako aurkezpen emanaldira auzotar asko joan ziren

TXOMIN MADINA | BERGARA

Trikiti eta pandero doinuak nagusi ziren egubakoitz iluntzean Angiozarko San Miguel elizan. Arrazoa? Bertan aurkeztu zuten Angiozarko trikitilari eta pandero-joleen eskolakoek grabatu duten diskoa. Aurkezpena dakiten eran egin zuten, diskoan jasota dauden piezetako batzuk auzokideen aurrean joaz.

### Kontzertuarekin gustura

Urduritasunak alde batera utzi eta ausart jo zituzten ikasleek hilabetetan ikasi eta praktikatu-tako doinuak. Doinuok askotari-koak izan ziren: esaterako, *John Ryan's polka* ezaguna jo zuten; baita, besteak beste, Oskorriren *Gaztelugatxe*, Mikel Urdangarinen *Badira hiru aste* edo *Xalbador heriotzean* bezalakoak ere.

Ikasle bakoitzak bi abesti grabatu ditu diskorako, eta bi horietako bat jo zuten bakoitzak egubakoitzeko emanaldian. Gainera, dela panderoa jotzen, dela abesten, trikitilari bakoitzak beti zuen lagun bat agertoki gainean. Zentzu horretan, une kuriosoak ere bizi izan ziren, esaterako Mila eta Maialen ama-alaba eta era berean eskolako ikasleek batera jo zutenean. Kontzertua amaitze-

ko, denek batera jo eta abestu zuten eskolakoek eurek sortu duten *Pobreziaren negarra* pieza.

Askok izan ziren kontzertua ikustera joan ziren ikusleak, eta aurrez pentsatutakoa baino leku

gehiago behar izan zuten; hauek, gainera, behin baino gehiagotan hartu zuten parte kontzertuan, txaloka eta kantuan.

Emanaldiaren ostean gustura zeuden eskolakoak: "Oso ondo

joan da" zioten Oxel Gantxegi eta Marine Azkaratek. Grabazioa zaila izan zela eta entsegu asko behar izan zituztela gaineratu zuten. "Tranpa asko egiten dira diskoa grabatzean; ez guk bakarrik, e? Profesionalek ere egiten dituzte" zioen bestalde Lur Azkaratek.

### Dozena bat ikasle eskolan

Duela bi urte sortu zuten Angiozarko eskola, eta egun dozena bat ikasle ditu; adinari dagokionez, askotarikoak: gaztetxoek gain, zenbait guraso ere badabilte-eta. "Daukagun giro ederra azpimarratuko nuke; gogotsu elkartzen gara klaseetan, eta gero emaitzak ere horrelakoak dira" zioen kontzertuaren ostean Harkaiz Allur irakasleak.

Duela bi urte imajinatzen zuten egun dauden lekuan egotarik? "Bai; akaso ez zerbait grabatzen, baina bai amesten nuen herrian horrelako taldetxo bat sortzea" dio irakasleak. Jaietan-eta parte hartzen dute eskolakoek, eta Allur-aren esanetan herriak asko eskertzen du hori. Aurrera begira ez omen dute proiektu potolorik esku artean: "Ikusiaz joango gara; elkartrukeren bat izan daiteke... Kontua da trikitia klasetik atera eta egin daitezkeenak erakustea".



Janari poltsa ugari batu zituzten. | TXOMIN MADINA

### Diskoaren truke, janari poltsa

Krisi garaiotan askok bizi duten egoeraren kontziente, eskolakoek ekimen berezia burutu zuten: autokritika egiten duen *Pobreziaren negarra* izeneko abestia aurkezteaz gain, janari poltsen truke diskoak banatu zituzten. Ekimen arrakastatsua izan zen gainera: eskuragarri zeuden 65 diskoak banatu zituzte, eta trukean 70-80 kilo janari batu. Caritasendako izango da janari hori, baita saskitxoan jendeak borondatez emandako dirua ere.

HARKAITZ ALLUR  
IRAKASLEA

"Helburua da ikustea gauza gutxiarekin emaitza politik lor daitezkeela"

Zarauztarra da Angiozarko trikitilari eta pandero-jole eskolako irakaslea.



### Nolatan diskoa?

Eskola sortu genuenean asmoa zen urtebeterra martxan jartzea, herrian giro bat sortzeko. Helburu hori lortuta, bigarren urtean, apur bat goitik jota, proposatu nuen zer edo zer grabatzea: klasean jotzen ditugun piezak disko baten biltzea; baita neska-mutiko batzuk sortutako abestiak ere.

### Grabazioa etxekoa izan da.

Eskolan bertan grabatu dugu, mikrofono profesional batekin eta programa simple batekin. Helburua da orain ikasten ari direnak oroitzapen moduan geratzea, eta ikustea gauza gutxiarekin emaitza politik lor daitezkeela.

### Nola ikusi dituzu ikasleak diskoaren grabazioan?

Denetik egon da: batzuk nahiko larri pasatu zuten grabazioan; beste batzuk patxada gehiagorekin ibili ziren. Baina orokorrean uste dut positiboa izan dela: batetik ikaskuntzan batzuetan tentsio pixka bat behar delako; eta bestetik, emaitza zein polita izan den ikusita horrek ematen duen harrotasunagatik. Oso polita geratu da diskoa.

# Herriko artistei esker Ibarraundi museoa agertoki askotako antzoki bihurtu zen zapatuan

Teatro Kanape taldeak antolatutako antzerki topaketak ikusleen aldetik erantzun beroa izan zuen

TXOMIN MADINA | ESKORIATZA

Zazpi gunek, zazpi agertoki, zazpi antzezlan. Horixe izan zen zapatu arratsaldean Eskoriatzako Ibarraundi museora joan zenak aurkitu zuena. Izan ere, Teatro Kanape taldeak antolatuta antzerki topaketa berezia egin zuten bertan.

18:00etan, lehenengo sirenak jo zuenean hasi zen Eskoriatzako Ibarraundi museoa antzerkiaren festa. Formatua, sinplea: zazpi antzezlan labur denak batera, bakoitza bere txokoan. Eta behin antzezlan bat ikusitakoan, hurrengora salto egiteko aukera. Hori, nahi izanez gero, museoaren aurrean jarri dituzten pintxoetatik pasatu ostean. Horrelako ikuskizunetara ohituta ez gauden arren, ekimenak erantzun ona izan zuen, eta ez ziren gutxi izan Ibarraundi museora joan zirenak.

## Askorentzat, lehen aldia

Ikuskizunetan, banaka, binaka edo taldeka, eskoriatzarrak izan ziren aktore lanak egin zituztenak. Atzegiko talde batek esaterako, aurretik bideoz grabatutako antzezlanak erakutsi zuten bideoan, Joxe-bi Ramosek bestalde, bakarrik eskaini zuen. Denak ere fin ibili ziren gainera, ikusleen txalo zaparradei kasu egiten badiegu behintzat.

Nere Hernandez izan zen aktore lanetan ibili zen eskoriatzarrak bat. Beretzat gainera, aktore moduan aritzen zen lehen aldia zen, eta gustura zegoen. "Harrituta gaude, jende asko etorri da" zioen atsedendietako baten, bere paperak eskatzen zuen baserriar moderno jantziak soinean zituela.

Mari Jose Fernandez eta Mentxu Manzanori museoko harrera gunean tokatu zitzaizkien euren antzezlanak egitea. Euren antzez-



Zapatuan aktore lanetan ibili ziren parte-hartzaile gehienak saioak hasi aurretik. | TXOMIN MADINA



Sagarraundi taldea, emanaldian. | IMANOL SORIANO



Bikote(atroa) taldea. | IMANOL SORIANO

lanak gainera, lotura zuzena zuen gunek horrekin; museoaren harreran lanean hasiko diren bi emakumeren papera egin zuten -eta. Hautatzat ere aktore moduan lehen aldia zen, Manzanok azaltzen zuen moduan: "Egunkaririk izan

nuen ekimenaren berri, eta antzerki mundua beti gustatu izan zaidanez, animatu egin naiz".

Antolatzaile lanetan ibili den Teatro Kanape taldeko Iraia Arzamendik ekimenaren balorazio positiboa egiten zuen: "Oso

ondo doa, pentsatzen genuena baino hobeto. Jendea hurbildu da, kontua nola den zehazki jakin gabe, eta orain ari dira ohartzen mekanikaz". Orijinala, berritzailea, eta arrakastatsua, beraz, Ibarraundi antzokiaren estrei-



LOREA AGIRIANO  
ESKORIATZA

"Oso ideia orijinala iruditu zait. Ikusten dut herriko jendea dela antzeztan dabilena: batzuk artistak, beste batzuk kaleko jendea, zaletasun antzerkia egitea duena. Ibarraundiri bizitasuna ematen dio".



JUAN ANTONIO URIARTE  
ESKORIATZA

"Proposamen berria da; alde batetik izpiritua betetzeko balio dizu; bestetik, mokadutxoarekin, baita gorputza ere. Zapatu arratsaldeko inertzia apurtzeko modua da, eta gustura geratzen zara".



ELBI MARQUES  
ESKORIATZA

"Apur bat harrituta nago; izan ere formatu kuriozkoa da, ez dut inoiz horrelakorik ikusi. Dibertigarria iruditu zait, baita berritzailea ere. Antzezlanak gainera, oso ezberdinak dira euren artean, eta hori ondo dago".

# Ruper Ordorika bakarrik eta inoiz baino intimoago Aretxabaletan

Arkupeko Zaraia aretoa ia goraino bete zen oñatiarraren kontzerturako

TXOMIN MADINA | ARETXABALETA

"Bakarrik aritze honek eskolako garaia gogorarazten dizkit, maisuak arbelera irteteko agintzen zidaneko momentua" esan zuen Ruper ordorikak zapatuan Aretxabaletako Arkupen eskaini zuen kontzertuko une baten. Ez dakigu arbelean zer moduz moldatzen zen, baina kontzertuan behintzat ez zuen hutsik egin oñatiarrak.

Gutxi falta izan zen Zaraia aretoa goraino betetzeko, eta publikoaren artean Oñatiko koa-

drila bat edo beste ere ikus zitekeen.

## Gitarra aldaketak

Agertoki sinple baina dotorean, bere azken laneko, *Hodeien azpian* diskoko *Mundua biltzen duen oihartzuna* kantuarekin hasi zuen emanaldia. Apurka apurka, kontzertuak iraun zuen ordu eta laurdenean, bere disko zaharren eta berrien abestiak nahastu zituen. Hala, bereziki indartsua izan zen *Ene begiek* klasikoa entzun ahal izan zen, baita *Haizea*

*garizumakoa* edo *Zuhaitz eroria oihanean* bezalako pieza berriagoak ere.

Bi gitarra erabili zituen Ordorikak, eta ederki baliatu zituen bakoitzak ematen auzerak kantu bakoitzari zuku ateratzeko, kantu bakoitzak eskatzen zituen nabardurak azaleratzeko. Horren adibide garbia izan zen, esaterako, *Banekien* abestia.

Horrelako kontzertuek abestiak ontzeko aukera eman ohi dute, eta Ordorikak ez zuen aukera alferrik galdu.



Ruper Ordorikaren zapatuko emanaldiko une bat. | IMANOL SORIANO

## GURE MUSIKA TALDEAK

# Hawkins Thugs talde berria estreinatu da asteburuan

Ekainean kaleratuko dute lehen lana Contra Records-ekin

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Parisko gau ero batean sorturiko proiektu berria dugu Hawkins Thugs, eta zapatu honetan erreallitate bihurtu da 80ko hamarkadako oi! mugimendua aldarrikatzen duen taldea. Bergarako gaztetxean jo dute estreinako kontzertua Frantziako Janitors, Kaleko Urdangak eta Broken Faces taldeekin batera.

Hawkins Thugs oi! eszenako musikari ezagunetako osatuta dago; Tedi, Des-Kontrol taldeko abeslari ohia; Sid eta Nevado, Aggressive Combat-eko baxu-jolea eta bateria-jolea eta Hodei, Last Strength taldeko gitarra-jolea.



Hawkins Thugs, entsegu lokalean. | HODEI BEITIA

## Contra Records diskoetxea

Abendu amaieran lau kantuz osaturiko 7"-ko disko laburra grabatu zuten Aretxabaletako Nekrosounds estudioan. Grabazio hori taldea sortu eta gutxira egin zuten, Tedik esan digun moduan, bost entsegu egin ondoren. Bertan hiru kantu propio eta Camera Silens talde frantsesaren bertso bat daude entzungai, eta hura ekainean kaleratzeko asmoa du taldeak.

Singlea Alemaniako Contra Records diskoetxeak argitaratuko du, oi! mugimenduan izen oneko zigilua. Besteak beste, Booze and Glory eta Stomper 98

taldeen lanak kaleratu ditu; beraz, estreinako lana kaleratzeko plataforma ona da, oi! mugimenduan barrena banaketa ona ziurtatzen duelako.



## Cock Sparrer-ekin batera

Hawkins Thugs ez zuten sortu Euskal Herriko agertoki guztietan jotzeko asmoz, baina, lehen kontzertua jo bezain laster, eskaintza asko jaso dituzte. Hala ere, taldekideen asmoa Euskal Herri-tik eta Espainiako Estatutik haratago jotzea da.

Ekainean, adibidez, Frantzia aldera bidaiatu egingo dute eta hilabete berean Portugalera joango dira, Lisboan eta Algarven jotzera. Sari handiena, edozelan ere, urriari izango dute, Gironan izango den Oktoberfest jaialdian joko dute-eta Cock Sparrer taldearekin batera.


# Screamers and Sinners psycho taldea estudioan dabil lanean

Punk, rockabilly, surf eta country baldarraren oihartzunak egongo dira diskoan

A.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletako psychobilly taldea buru-belarri dabil herriko Nekrosounds estudioan Screamers and Sinners-en lehenengo lana izango dena grabatzen. Urtebete pasatzeko ibilbidea duen taldeak zuzeneko ugari eskaini ditu dagoeneko eta estudioan sartzea erabaki du orain.

Dagoeneko amaitu dituzte bateriaren grabazioak eta orain kontrabaxuaren txanda heldu da. Euren esanetan, instrumentu horrek ematen die beldur handien, orain artean ez dutelako inoiz horrelakorik grabatu. Hala ere, martxa onean doazela aitortu digute.



Karlote, grabazio lanetan. | J.D.

## Rock-and-roll eztanda

Hamaika kantu propioz osaturiko lana izango da, eta bertan, ikur duten punk, rockabilly, surf eta country baldarra entzuteko aukera izango da. Duela hilabete batzuk, gainera, Los Galernako taldekide Ibaik saxofoia hartu zuen, eta bekatari

horien kantuei beste xarma bat eman die, ezaugarri bereizgarri bihurtuta.

## Binilo formatuan

Diskoa binilo formatuan kaleratzeko asmoa dute, baina oraindik ez dute aurkezteko data zehatzik; itxaron egin behar.



Fiachras taldea. | ARGAZKILARIAXXX

# 'Homo homini lupus': Malenkonia oñatiarren bigarren diskoa prest dago

Mutrikuko AME estudioan zortzi kantu grabatu dituzte

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Gizakia otsoa da gizakiarentzat izenburua duen disko kontzeptuala grabatu du Malenkonia talde oñatiarrak. Abenduan sartu ziren Mutrikuko AME estudioetara Axular teknikariarekin hura grabatzera. Oraingoan, taldearen ezaugarri izan den pianoa ez dugu entzungo kantu berrietan; hala ere, kantu borobilak egin dituzte, gitarrei eta ahotsei garrantzi handiagoa emanda.

Maketa bat eta disko luze bat kaleratu ondoren, bigarren lan luzea grabatzea erronka polita izan da laukote oñatiarrentzat. Ugarte taldekideak esan duen moduan, oso eroso sentitu dira estudioan eta kantuak oso ondo prestatuta eraman zituzten. Astebete eskasean grabatu zituzten kantuak, baina post-produkzio eta nahasketetan denbora luzea hartu zuten.



Malenkonia, Ame estudioan. | MALENKONIA

## Pop gordinagoa

Kantuak egitura eta esentzia aldetik antzekoak direla esan digu Intzak; hala ere, pop melodia gordinagoak edo minimalistagoak entzuteko aukera egongo da *Homo homini lupus*-en.

## Kaleratzeko prest

Hilabete barru diskoa kalean egotea espero dute taldekideek; hala ere, egubakoitzean, hilak 17, Errekaldeko jaietan estreinatuko dituzte kantu berriak, aurkezpen ofiziala ez izan arren.

# Single baterako bi kantu grabatu ditu Fiachras taldeak Bonberenean

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Bi kantu berri grabatu ditu Fiachras taldeak Tolosako Bonberenea gaztetxeako estudioan. 57 segundos eta *Antes de marcharme* kantu berriekin, Gasteizko Sumision City Blues taldearekin batera single bat kaleratuko dute.

Egun bakarrean grabatu zituzten bi abestiak, eta, Alda-nondok esan digun moduan, "oraingoan ez dago saxo edo triki konponketarik". Beraz, gitarrek nahitaez presentzia handiagoa izango dute. Bitxikeria bezala, Mikel Gonzalezek, Realeko jokalaria, kantu baten abestu zuela esan digu.

## Egubakoitzean aurkeztu

Binilo disko labur berria egubakoitz honetan euren eskue-tan izatea espero dute, Bergarako jaietan joko duten kontzertuan aurkezteko.





## "Herriko artearentzat espazio berri bat sortu dugu"

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Begarako Artisten Elkarteak (Beart) Bolu auzoan duen lokarari probetxu handiagoa aterako dio, sarreran bertan herriko artisten lanak erakusgai jarri dituzte-eta. Egubakoitz iluntzean egin zuten inaugurazio ekitaldia. Elkarteak kideek egindako 57 koadrok jantzi zuten espazio berria.

Herrigunetik apur bat aldenuta badago ere, Bolu auzoak beti izan du sortzaile kutsua. Beart elkarteak bere egoitza Bolun izateak dezente lagundu dio auzoak duen izaerari. Orain herriko arteari, bultzada berri bat emateko asmoarekin, elkartearen sarreran erakusketak egiteko espazio berri bat atondu dute.

"Guretzako baino, herriarentzat sortu dugu espazio berri hau". Hala zioen Juanjo Altuna Bearteko presidentek.

Espazio berri honek duen kristalezko erakusleiho handi bati esker, artelanak 24 orduz egongo dira ikusgai. Lehen ekitaldi hau berezia izan zen, elkarteak 57 kidek egindako lanekin ireki baitute espazio berri hau.

Beartekoek ardo eta mokadutxo batzuekin ospatu nahi izan zuten arte eta sormenerako sortu duten espazio berri honen ibilbidearen hasiera.



Espazio berrian teknika eta artista anitzen lanak ikusgai daude. | IMANOL GALLEGO



IMANOL GALLEGO

## Maputxeak ezagutzeko aukera

Elgetako gaztetearen eskutik Maputxe herriaren nondik norakoak ezagutzeko aukera egon zen zapatuan. Aitor Agirrezabal kazetariak Chilen bizitzakoak kontatu zizkien bertaratu ziren gazte ugari. Kultura, historia, politika... Hitzaldian gai ugari jorratu zituzten. Gaueko kontzertuak eman zion amaiera Maputxeen aldeko egunari.

## Rock eta balada amerikarrak Amaian

Willie Nile poeta eta bakarlari estatubatuarrek *American Ride* bere azken diskoa aurkeztu zuen Arrasateko antzokian. 70. hamarkadan ekin zion Nilek bere ibilbide artistikoari eta emanaldian urteek emandako esperientzia igarri zen. Abeslariak kontzertuan, bere karrerako rock doinu eta baladak tartekatu zituen.



IMANOL SORIANO



LEHEN



LEHEN

Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

# EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.



Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako  
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETAKO





# Facebook Waze erostekotan da, alor berrien bila

Erabiltzaileak fisikoki negoziotara gerturatzeko sisteman ei du interesa Facebookek erosketarekin


JON BEREZIBAR | ARRASATE

Gidatzerakoan, zirkulazioari buruzko informazioa ematen duen aplikazio soziala da Waze, GPSean oinarritzen dena. Ibilbidea marrazteaz gain, aplikazioak erabiltzaileek partekatutako informazioaren bitartez, denetarik argibideak ematen ditu: istripuak, lanak aldaketak ibilbidean, poliziaren kontrolak, radarrak... Erabiltzaileek euren artean interaktuatzeko modua ere badaukate.

Facebook-etik "espekulazioei buruzko iruzkinik" ez dutela egin adierazi badute ere, Israelgo

prentsak - hangoa baita aplikazioaren enpresa - konfirmatuzat ematen du bilioi bat dolarren truke egindako salmenta. Sei hilabete iraun duten negoziazioen ostean letorke, azkenean, akordioa.

Ahalegin handietan ibili da Facebook mugikorretarako zerbitzuetan ahalik eta gehien sartzeko eta estrategia horretan geroago eta erabiliagoa den Waze aplikazioak oraingo gutxi ustiatuta baina hazten dabilen alorrean bete betan sartzeko bidea ematen dio. Waze, ordea, zerbitzu zehatza



Waze aplikazioaren pantaila-irudia. | WAZE.COM

izateaz gain berezia ere bada; *crowdfunding*-aren bidez eta erabiltzaileek egindako ekarpenez osatu baitute sarea eta azpiegitura. Hala ere, Facebook-i esker erabiltzaile masa handituz gero aplikazioaren zehaztasun eta aberastasun maila modu ia pentsaezinean igo daiteke, mesede orokor modura.

## Facebook-en interesa

Geolokalizarioarekin loturako egitasmoak ez dira berriak Facebook-entzat baina arrakasta gutxi lortu du orain arte. Horren froga da Places aplikazioaren aurkezpeneren harrabotsa eta azkenean izan duen erantzun ia hutsala. Adituek zehazten dute, gainera, Facebook-ek ez duela interesik

zirkulazioaren informazioan, erabiltzaile horien ustiaketa komertzialean baizik. Facebook, Waze-eren azpiegiturarekin erabiltzaileak negoziotara fisikoki erakartzeko sistema baten bila ibiliko litzatekeela diote aditu mesfidatienek. Waze-ek gaur egun 50 milioi erabiltzaile aktibo dituela diote azken datuek.

## Ouya kontsola libreka ekainean ipiniko dute salgai mundu osoan

Bideojoko kontsolen egungo planteamendua haustera dator kontsola 'librea'

J.B. | ARRASATE

Android sistema eragilean oinarrituko da eta libreka da, hau da, edozein garatzailek sor ditzake jokoak gailu horrentzat. Ekainaren 4ean ipiniko dute salgai 99 dolarretan eta milaka joko eta aplikazio daude prest dagoeneko. Proiektua *crowdfunding*-aren bitartez finantzatu dute. Tabletaren eta kontsolen erdibidean kokatzen da Ouyaren kontzeptua eta Android sistemaren gaitasun geroago eta handiagoez baliatzen da errendimendu grafiko ona duten bideo-jokoak prozesatzeko eta baita ere filmak erakutsi ala edukiak bistartzeko, esate baterako. Kickstarter-en barruan

finantziarioa eskatu eta zortzi milioi dolarretik gora batuta (63.416 ekarpen-egilerekin), urte betean banaketarako gertu dago kontsola. Kontsola irekia izatera, 10.000 garatzailetik gora jardun dute garapenetan.

Ekainaren 4ean merkaturatuko dute Android-en azken bertsioarekin. Lau nukleodun NVIDIA Tegra 3 prozesatzailea dauka eta Gb bateko RAM, 8Gb-eko barne memoriarekin eta USB bidez areagotzeko aukerarekin. Pantailara HDMI konexio batekin lotuko da eta Internet konexioa ethernet ala WiFi bidez egingo da. Kubo itxura dauka kontsolak eta 300 gramoko pisua.



Ouya kontsola, eskuen artean. | GOOGLE

## Google Apps-en administrazioa erraztu dute

J.B. | ARRASATE

Google-ek ia etenik gabe egin ditu zerbitzuen eguneraketak ia etengabeak dira eta oraingoan zerbitzu osoenetako baten administrazioa berri du kudeaketa lanak errazteko. Nagusiki enpresa eta erakundeei zerbitzua ematen dien aplikazio sorta da Google Apps, Gmail posta zerbitzua ardatz moduan hartzen duena. Zerbitzuen aukera zabalari eta malgutasunari esker, oso erabilia da enpresa alorrean. Mugikorretarako egokitzapenak ere eskaintzen dira, kudeaketa berberarekin.

### Simple eta garbi

Administrazio panelean ekarri du Apps-ek berritasunik handiena, zerbitzuak zentralizatu egin ditu-eta. Diseinua garbitu egin dute eta aplikazioak sailka antola daitezke aurrerantzean eta modu automatikoan erabilienak ordenatzen ditu. Aplikazioak, erabiltzaileak eta rola osotasunean kudeatzeko aukera ere gehitu dute Google-ekok. Erabiltzaileen kudeaketaren erraztasunean ekarri du berrikuntzak aldaketarik handiena. Aukera gehiago eta kudeaketa sinpletu dute bertsio berrian. Konpainiaren profilararen administrazioan ere aldaketak egin dituzte eta edizioa erraztu kudeaketa orokorrean.

## Linux ipiniko diete NASAko astronautei espazioan

J.B. | ARRASATE

Sistema operatzaileen arteko borroka espazioan ere bizia da. Zeresana eman du NASA-ren erabakiak aldaketa "sistema egonkor eta fidagarri baten beharra" zutelako egin baitute. Honen harira, Pentagonoak BlackBerry-tik Apple-erako aldaketa ere egin zuen orain gutxi.

Muturreko publizitate estrategiatzat ere jotzen dute askok. Nazioarteko Espazio Estazioan dauden ekipoetan instalatuko dute Linux sistema eragile libreka.

### Robot bat kontrolatzea

Astronauten ekipo pertsonalak Windows-etik Linux-era aldatzea erabaki du NASAk eta autokontrol gehiagoren beharra ei dago erabakiaren atzetik, argituz dutenez. Linux erabilia astronautek manipulatu ditzaketen robotak egin ditzakete. R2 delako robota erabiliko dute astronautek eta sistema berriarekin lurretik zein espazio-ontzitik bertatik agindu daiteke robota. Honela, autonomia lortzea da helburu nagusia. Bai programatzeko orduan eta baita robotak berak autonomiaz lanak egin ditzan. Robot berriarekin astronautentzat oso arriskutsu ala aspergarri eta errepikakor suerta daitezkeen lanak gauzatzena nahi dute ingeniariak.

## 'World of Warcraft'-ek erabiltzaileak galduz jarraitzen du

Milioi bat erabiltzaile baino gehiago galdu ditu sareko bideojoko ezagunak. 8,3 milioi dira gaur egun jokalaria. Erabiltzaileak galtzen jarraituko dutela diote, gainera, konpainiatik. Hori horrela, iragarri dute eguneraketa berri bat ipiniko dutela aurki eskuragarri eta sagaren kapitulu berriak etorriko direla.

## Yoigo izango da 4Ga eskainiko duen lehen operadorea Estatuan

Uztailean hasiko dira zabal-kundearekin Madrilen eta hortik Estatu osora hedatuko dute sarea. 200 milioi euroko inbertsioa egingo dute sarean eta segunduko 112 megako konexioa agindu dute Yoigo-tik. Operadoreekin batera Ericsson eta Samsung konpainiak ere batu dira proiektura. Asmoa da terminal merkeekin hastea, gainera.

## Behera egin du P2P bidez jaitsitako programen kopuruak

Uptodown atariak ateratzen dituen datuen arabera, ia zko hiruhileko berdinarekin konparatuta P2P bitartez egindako programen deskarga kopuruak behera egin du %32tik %19,47ra Espainiako Estatuan. Hain zuzen, Espainiak du munduko tasarik altuena. Gora egin dute, ostera, bideojokoaren deskargak.

## TELE-BEGI

OIHAN  
VEGA

## ETB-1, bazen garaia!

Eskekerak. Iritsi da EITB-ren zuzendaritza berria, eta dagoeneko nabaritzen dira lehen aldaketak..

Ez naiz politika kontutan sartuko eta ez dut 'Eguraldia' saioko maparen eztabaida inozoa aipatu ere, baina zorionez, ETB1en programazioan aldaketak sumatzen hasi gara poli-ki-poliki.

Azken berrikuntza: 'Irriki Town', 'Vaya Semanita' saio umoretsuaren bertsio euskalduna. Gidoilariak oso onak dira, umore sarkastiko eta ironikoaz, gizarte esparru guztiak astintzen dituzte goitik behera. Aktoreak bikainak ere, gaztelaraz egiten zutenari sinisgarritasun guztia ematea lortu baitute euskaraz eta ez da batere erraza. Oso zaila da umorea euskaraz egitea, eta are zailagoa oraindik, sinesgarri egitea, tamalez, inguratzen gaituen umore ia guztia gaztelaraz baitago. Zenbat aldiz konstatu duzue txiste bat euskaraz? Eta zenbat aldiz gaztelaraz? Horra hor, zuen erantzuna.

Oro har, diru gutxirekin egindako ekoizpen erabat duina eta kalitate handikoa da Pausoka ekoiztetxeak proposaturiko saio berria. Gustura ikusten den horietakoa, eta momentuz, bere estrainaldian audientzia kopuru ona lortu duena. Igande gauean ETB1-en, 'Irriki Town', erabat gomendagarria.

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 13



## Tertulia

Magazinea saioan gaurkotasan gaiei buruzko tertulia izango dugu Txomin Madinarenekin. | 20:18

12:00 Magazinea  
13:00 Gurean gaur  
13:30 Zorion Agurrak  
13:36 Onein  
14:06 AsteON  
14:45 Berriak  
15:15 Eguraldia  
15:18 Zorion Agurrak  
15:23 AZK2012  
16:23 Pedalka  
16:53 Zorion Agurrak  
16:58 Berriak  
17:28 Eguraldia  
17:31 Onein  
18:07 Erreportajea  
18:37 Ekogune  
19:07 Altxorraren bila  
19:39 Zorion Agurrak  
19:44 Berriak  
20:14 Eguraldia  
20:18 Magazinea  
21:03 Gurean gaur  
21:33 Berriak  
21:58 Eguraldia  
22:00 Harmailatik  
22:45 Magazinea  
23:45 Berriak  
00:01 Berriak  
00:26 Eguraldia

MARTITZENA, 14



## 'Berriak'

Debagoienean egunean zehar gertatu diren albisteen errepaso egingo dugu Berriak saioan. | 14:45

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:15 Zorion Agurrak  
13:22 Harmailatik  
14:07 Ekogune  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:10 Eguraldia  
15:13 Harmailatik  
15:53 Onein  
16:28 AsteON  
16:58 Zorion Agurrak  
17:03 Berriak  
17:28 Eguraldia  
17:31 AZK2012  
17:56 Altxorraren bila  
18:28 Erreportajea  
18:58 Harmailatik  
19:43 Zorion Agurrak  
19:48 Berriak  
20:13 Eguraldia  
20:15 Magazinea  
21:00 Gurean gaur  
21:30 AZK2012  
22:00 Berriak  
22:25 Eguraldia  
22:30 Magazinea  
23:15 Klaketa  
00:28 Berriak  
00:53 Eguraldia  
00:56 Magazinea

EGUAZTENA, 15



## Osasun tartea

Umeekin larrialdiren bat gertatzen zaigunean nola jokatu? Horixe landuko dugu Magazinea-n. | 20:15

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:18 Harmailatik  
14:03 Pedalka  
14:38 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:10 Eguraldia  
15:13 Klaketa  
15:59 Onein  
16:21 Harmailatik  
17:06 AZK2012  
17:36 Zorion Agurrak  
17:41 Berriak  
18:06 Eguraldia  
18:08 Jaiak: lazkaoko festak  
18:38 Erreportajea  
19:08 Beranduegi.tv  
19:38 Zorion Agurrak  
19:44 Berriak  
20:09 Eguraldia  
20:15 Magazinea  
21:00 Gurean gaur  
21:31 AsteON  
22:01 Ekogune  
22:31 Berriak  
22:56 Eguraldia  
22:58 Magazinea  
23:43 Harmailatik  
00:30 Berriak  
00:55 Eguraldia

EGUENA, 16



## 'Pedalka'

Julen Iriondok Alpeetan zehar bizikletan egindako bidaiaren beste atal bat izango duzue ikusgai. | 21:50

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:15 Altxorraren bila  
13:47 Jaiak: lazkaoko festak  
14:17 Onein  
14:47 Zorion Agurrak  
14:52 Berriak  
15:17 Eguraldia  
15:20 Jaiak: lazkaoko festak  
15:50 AZK2012  
16:20 Berriak  
16:45 Eguraldia  
16:48 Onein  
17:08 Planik bai?  
17:28 Hitzlandia  
17:55 AZK2012  
18:25 Onein  
19:01 Zorion Agurrak  
19:06 Beranduegi.tv  
19:31 Planik bai?  
19:51 Berriak  
20:16 Eguraldia  
20:18 Magazinea  
21:18 Gurean gaur  
21:50 Pedalka  
22:20 Planik bai?  
22:40 Berriak  
23:05 Eguraldia  
23:08 Magazinea  
23:53 Klaketa  
00:13 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 17



## 'AsteOn'

Astean zehar bailaran izan ditugun albiste nagusien errepaso egingo dugu, besteak beste, saioan. | 22:00

12:00 Planik bai?  
12:20 Magazinea  
13:05 Zorion Agurrak  
13:10 Gurean gaur  
13:40 Onein  
14:10 Pedalka  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:10 Eguraldia  
15:13 Planik bai?  
15:33 AZK2012  
16:03 Jaiak: lazkaoko festak  
16:33 Beranduegi.tv  
17:03 Zorion Agurrak  
17:09 Planik bai?  
17:29 Berriak  
17:54 Eguraldia  
17:57 Planik bai?  
18:17 Altxorraren bila  
18:49 Zorion Agurrak  
18:55 28.Klip  
19:27 Beranduegi.tv  
20:07 Zorion Agurrak  
20:10 Berriak  
20:35 Eguraldia  
20:38 Planik bai?  
20:58 Gurean gaur  
21:25 Pedalka  
22:00 AsteON  
22:30 Berriak  
22:55 Eguraldia  
22:58 AsteON  
23:28 Planik bai?  
23:48 Berriak

## ARRASATE IRRATIA

## 'Emarock' izeneko erakusketa izango dugu hizpide

Gaur, astelehena, Kulturaten jarriko duten *Emarock* erakusketari buruz hitz egingo dugu *Igo autobusera!* irratisaioan 11:00etan. Proiektuko koordinatzaile Saioa Kabañas elkarrizketatuko dugu saioan hilaren 16tik 31ra ikusgai egongo den erakusketaren gainean.

## Baserritarren azoka berbagai, martitzenean 11:00etan

Zapatuan izango da Arrasateko baserritarren azoka eta bihar, martitzena, Marga Garmendia izango dugu azoka horri buruz berbetan Arrasate Irratiko uhinetan. Landa eta Garapeneko teknikariak azoka horri buruz hitz egingo digu 107.7ko uhinetan, *Igo autobusera!* irratisaioan.

## 'Emaztegiaren semea' ikusteko sarrerak zozketan

Amaia antzokian *Emaztegiaren semea* izeneko antzezkalak eskainiko dute domeka honetan, hilak 19, 19:30ean. Bertara joateko sarrerak lortu nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera eta hartu parte Arrasate Irratiko zozketan. Animatu, parte hartu eta zorte on!

## TELE-ALBISTEAK

## Larraitz Ugarte 'Magazinea'-n izango dugu martitzenean

Mugikortasun diputatu eta Foru Aldundiaren bozeramaileak mugikortasuna izango du hizpide



Larraitz Ugarte, mugikortasun diputatua. | ENEKO AZKARATE

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Aste honetako *Magazinea* ere gai ugariarekin etorriko da. Hainbat protagonista izango ditugu saioan, tartean, Larraitz Ugarte mugikortasun diputatua eta Foru Aldundiaren bozeramailea izango da gurean.

## Mugikortasuna berbagai

Larraitz Ugarte bihar, martitzena, izango dugu Goiena telebistako *Magazinea* saioan 20:15etik aurrera.

Orokorrean mugikortasunari buruz hitz egingo dugu Ugarterekin; Oñati eta Arrasate bitarteko bidegorria, Debagoieneko bidegorri sarea, Mugi txartela... gai horiek eta gehiago izango ditugu berbagai biharko saioan. Diputazioak mugikortasunari buruz dauzkan asmoen berri ere emango digu oñatiarrak eta bestelako gaurkotasan kontuei buruz ere hitz egingo dugu saioan.

Txomin Madina aurkezlearekin batera, Ubane Madera kazetaria izango da *Magazinea*-n Ugarteri galderak egiten. Ez galdu saioa

## 'Harmailatik' saio bete-betea ikusgai izango duzue, gaur, astelehena

Gorlako igoera, txirrindularitza, futbola eta eskubaloia landuko ditugu kirol saioan

A.T. | ARRASATE

Asteburuan kirol ekitaldi ugari izan dira bailaran eta horien errepaso egingo dugu gaurko *Harmailatik* saioan 22:00etan, Xabi Urzelaireren gidaritzapean.

## Askotariko kirolak

Automobilismoari dagokionez Gorlako Igoera jokatu zen zapatuan eta bertan jasotako irudiak erakutsiko dizkizuegu kirol saioan.

Bailarako ziklismoa, bestalde, lutoan dago Larrinagaren heriotza dela-eta eta Ojala Zelai-ko Aretxabaletako krosari Uda-

lak Joseba Mardo izena ipini ostean jokaturako 35. edizioa ere izango dugu berbagai.

Futbolari dagokionez, oherko erregional mailan Mondrak Lagun Onak taldearen kontra jokatu zuen partidua domekan eta horren laburpena ikusi ahal izango duzue. Erregional preferente mailan, berriaz, Antzuolak Idiazabalen aurka jokaturako partidua ikusi ahal izango duzue eta partiduen ondorengoak eman zuena ere jaso genuenez, hori ere eskainiko dizuegu.

Eskubaloian, Ford Mugarri buruz hitz egingo dugu.

## ZORION AGURRAK



**ARETXABALETA Erik Oribe**  
Maiatzaren 18an, 22 urte. Zorionak eta urte askotarako, tio Erik! Espero dou egun politxa pasatzia. Patxo potolo asko eta besarkada handi bat! Bergarako familia, Uxue eta bereziki Kenar.



**ELGETA Karim eta Abdurahim Labaien Toledo**  
Maiatzaren 18an, 8 urte. Mila kilo zorion eta musu handi bana, ama eta aitaren partetik.



**ARRASATE Marcela Fernandez Leon**  
Maiatzaren 17an, 18 urte. Zorionak, amatxo! Disfrutatu zure eguna! Muxu bat Saray eta Tamararen partetik!



**ARRASATE Idoia Zubillaga**  
Maiatzaren 17an, 49 urte. Zorionak, amatxo. Munduko amarik onena zara. Pilo bat maitte zaitugu! Aitaxo, Oxel eta Maia.



**BERGARA Ane Beistegi Alvarez**  
Maiatzaren 16an, 3 urte. Zorionak, Ane! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat hainbeste maitte zaitugun guztien partetik.




**OÑATI Aimar Osa Jimenez**  
Maiatzaren 16an, 4 urte. Zorionak Bergarako amama, aitxita eta tiaren partetik. Ondo pasatu eguna eta besarkada handi bat.



**OÑATI Jakes Beristain Santos**  
Maiatzaren 16an, 4 urte. Zorionak zure urtebetetzean guraso, zure anaia Alex eta amamaren partetik. Asko maite zaitugu!




**OÑATI Unai Askasibar**  
Maiatzaren 16an, 3 urte. Zorionak, Unai! Ondo-ondo pasatu eta muxu handi bat familia danaren partetik! Muxu pila bat.



**OÑATI Paula Lopez Telleria**  
Maiatzaren 15ean, urtebete. Zorionak, printzesa, zure lehenengo urtebetetzian etxeko danon, eta bereziki, aitaxo eta amaxoren partetik. Muxu potolo-potolo bat, *guapixima!*



**ARAMAIO Auritz Garai Gutierrez**  
Maiatzaren 15ean, urtebete. Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat aitaxo, amatxo eta Eñauten partetik.



**BERGARA Enara Gisasola Sevillano**  
Maiatzaren 14an, 3 urte. Zorionak gure etxeko sorgintxoari! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat etxeko danen partetik.



**ARRASATE Aitor Auzmendi Berezibar**  
Maiatzaren 14an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna eta segi orain bezain bihurri eta maitagarria izaten! Patxo potolo-potolo bat etxekoan partetik!



**ARRASATE Garazi Lasa**  
Maiatzaren 14an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Jada bete dozu esku bat! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat etxeko danon partetik.




**OÑATI Mari Carmen Urizar**  
Maiatzaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, amama, eta urte askotarako Etxahun eta Itsasneren partetik.



**BERGARA Harkaitz Ilarduia Arteaga**  
Maiatzaren 14an, 4 urte. Zorionak, Harkaitz! Hiru urterekin horren mutiko gogorra, laurkin zer ez ote duzu egingo! Segi orain bezain jator eta alai!



**ARETXABALETA Gaizka eta Josu Bengoa**  
Maiatzaren 14an, 3 urte. Zorionak aitaita-amama eta izebaren partetik.



**OÑATI Lur Biain Aranburuzabala**  
Maiatzaren 14an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Bost urte jada! Patxo handi bat bereziki John, Felix, Gillen eta Irisen partetik!



**ARRASATE Aimar Rodriguez eta Ilargi Sanzberro**  
Aimarrek 12an eta Ilargik 13an, bi urte. Zorionak, *pitufos!* Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat familiaren eta, bereziki, Iratiren partetik.



**ARRASATE Gentzane Lopez**  
Maiatzaren 13an, 42 urte. Zorionak, printzesa, lagun eta, bereziki, Sando eta bere familiaren partetik. Segi orain bezain jator eta alai. 42 muxu potolo zuretzat.




**BERGARA Noa Chimeno Valencia**  
Maiatzaren 12an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Jada lau urte; ze handi. Muxuak denon partetik, bereziki aitaxo, amatxo eta Landerrek.



**ARETXABALETA Laida Eraña Larrea**  
Maiatzaren 11n, 2 urte. Zorionak, *pistatxo!* Patxo handi bat danon partetik!



**ARETXABALETA Zaraitzu Bergaretxe Larrinaga**  
Maiatzaren 11n, 9 urte. Zorionak, neska handi! Datorren urtetik aurrera bi zifra erabili behar, e? Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bana etxekoan partetik.




**ARRASATE Ibai Ormaetxea Ezepeleta**  
Maiatzaren 11n, 12 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna etxeko guztien partetik.



**ARETXABALETA Peru Zubiria Zubeldia**  
Maiatzaren 10ean, urtebete. Zorionak, pitxintxo. Urtebete! Patxo pilua etxeko guztien partetik!



**ARETXABALETA Maddi de Cesero Erana**  
Maiatzaren 10ean, 7 urte. Zorionak etxeko printzesari etxeko guztien partetik.



**LEGUTIO Ekhiñe Unzalu Martelo**  
Maiatzaren 10ean, 7 urte. Zorionak, poxpolin! Familia guztien eta, bereziki, Maide, Izaro eta Oierren partetik, laztantxu bat.




**ARRASATE Amaia Balentziaga**  
Maiatzaren 9an, 18 urte. Zorionak, Amai! Oso ondo pasatu eguna eta juerga on batekin ospatu 18 urtiak! Patxo asko munduko ahizpa onenaren partetik!



**BERGARA Eder Elkoroberezibar Rivas**  
Maiatzaren 9an, 10 urte. Zorionak, printzesa, zure urtebetetzean, familia guztien partetik. Muxu handia.



**OÑATI Uxue Osinaga**  
Maiatzaren 8an, 12 urte. Zorionak, rubia! Ondo-ondo pasatu eta patxo potolo bana etxeko danon partetik!



**ARRASATE Haizea Laskurain Gonzalez**  
Maiatzaren 6an, 5 urte. Zorionak, printzesa. Patxo potolo bat etxekoan partetik, bereziki Unai. Ondo-ondo pasatu, gure Marijaia!



**ARAMAIO Ilargi Lasaga Garai**  
Maiatzaren 5ean, 5 urte. Musu handi bat Jare, Elaia eta Goiuriren partetik.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
 Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.  
 Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.  
**Goiena: irakurriena Debagoiengan.**


**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**  
**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.  
**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.  
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.  
**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.  
**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.  
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.  
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROIGARRIA

**Imanol Bolinaga Bengoa**  
 Bergarako alkate ohia

Maiatzaren 10an hil zen, 80 urte zituela.

*Eskerrik asko gure herriaren alde egindako lanagatik.*



Begarako Udala.  
 Bergaran 2013ko Maiatzaren 13an.

**JAIOTAKOAK**



**Joan Diaz Azpitarte**

Oñati. 3,700 Kilo. Maiatzaren 4a. Gurasoak: Susana eta Iñigo. Argazkian, Joan jaioberria sehaskan.



**Ane Urigoen Osa**

Oñati. 3,330 Kilo. Maiatzaren 3a. Gurasoak: Alaitz eta Luis. Argazkian, Ane amarekin.



**Garazi Lonbide Retegi**

Bergara. 2,910 Kilo. Maiatzaren 7a. Gurasoak: Idoia eta Unai. Argazkian, Garazi.



**June Carrillo Carmona**

Arrasate. 3,150 Kilo. Maiatzaren 8a. Gurasoak: Naiara eta Ruben. Argazkian, June amaren besoetan.



**Aiur Moreno Achahbar**

Bergara. 3,650 Kilo. Maiatzaren 6a. Gurasoak: Guef eta Raul. Argazkian, Aiur aitaren besoetan.



**Irati Vigara Andujar**

Iurreta. 3,600 Kilo. Maiatzaren 8a. Gurasoak: Marian eta Antonio. Argazkian, aita eta ama Iratiren aldamenean.



**Nahia Fernandez Apraiz**

Arrasate. 3,100 Kilo. Maiatzaren 9a. Gurasoak: Alaitz eta Alex. Argazkian, Nahia gurasoekin.



**Intza Arregi Mendizabal**

Arrasate. 3,830 Kilo. Maiatzaren 8a. Gurasoak: Ane eta Gorka. Argazkian, Intza gurasoekin.



**Xabier Carbajo Alvarez**

Aretxabaleta. 3,390 Kilo. Maiatzaren 8a. Gurasoak: Rosa Elena eta Jose Manuel. Argazkian, Xabier gurasoekin.




**Auritz Gorostiaga Gonzalez**

Oñati. 3,360 Kilo. Maiatzaren 8a. Gurasoak: Kristina eta Ander. Argazkian, Auritz gurasoekin.

**DENBORA-PASA**

**HITZ GEZIDUNAK**

	* Kirol olimpiarra Antilletako uhartea	Isuria	Gizon izena
		Bilerak	Palestinako hiria
	Pl., Italiako diru ohia Amerikako estatua		
Oparoa	Amerikako estatua		
Begien bistakoa	Nork atzizkia		Saguarekin egiten dugu
Bukaera, amaia			Potasioa
Oinarrizko edari			Poesia mota
	Gor	Alkoholen bukaera	
	Bat gehi bat	50	
Oinezko txango			
Ez errazak			
		Nor atzizkia	

LUMA


**BILA-BILA 7**

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



**SOLUZIOAK**

K	V	K	V	L	I	V	Z
I	O	L	V	L	I	B	I
L	O	R	O	S	R	N	U
K	A	V	A	B	A	K	
V	O	K	I	E	R		
E	Z	I	L	E	B	U	
K	L	R	A	K			
O	B	A	G	O	T	O	
R	J				B		



## AI, ENE!

### Argia pizten duena iturgina

Argazkikoa zer den igertzea ez da erreza: lanpara bat da, bideo-jokoetako iturgin ezagunari tira eginez gero pizten dena.  
[www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)




## AHOBERO

### "Abortuak badu zerikusirik ETArekin, baina ez gehiegi".

JORGE FERNANDEZ DIAZ | BARNE MINISTROA

Ezagunak dira Espainiako Barne ministroak dituen ideia kontserbadoreak. Oraingoan, antza denez, konturatu da pasatu egin dela: "Ez dut abortatu duenaren eta ETako terroristaren arteko alderaketarik egin nahi izan" zioen gero ateratako prentsa oharrean.  
[www.elmundo.es](http://www.elmundo.es)

## EGURALDIA



Max. 20°

Min. 8°

Astlehenean tenperatura epelagoa izango da eta giro eguzkitsua izango dugu.  
[euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2013-05-13

## HAMARREKOA

**Txan magoa** Clark Kent Superman bihurtzen den moduan, agertokira igotzean Xanti Antero donostiarra Txan magoa bihurtzen da; handi zein txiki, denak liluratu eta barrez jartzen dituen magoa. | TXOMIN MADINA

## "Helduak umeak baino errazagoak dira engainatzeko"

**1. Xanti edo Txan, zer nahiago?**  
 Xanti. Ni neu Xanti magoa izenarekin hasi nintzen; ikuskizun baterako baina, izena aldatzeko eskatu zidaten, eta lagun batek proposatuta jarri nuen Txan magoa. Bat bateko kontua izan zen.

**2. Noiz jakin zenuen botere majikoak zenituela?**  
 Tabernariaren semea izanda, bezeroen esku-jokoak ikusten nituen, baina zer ziren jakinda. Behin kanpotar bat etorri zen: zaharra, beltzez jantzia, ile zuria... Kartekin egin zidan joko bat txundituta utzi ninduen. "Hau da magia!" esan nuen, eta magoa izatea erabaki; urteak pasa ziren gero.

**3. Harry Potter Howgartsera joan zen magian sakontzera. Zu?**  
 Sagardotegira... Lehen kontaktua hamar urterekin izango nuen. 25-26ekin, Igeldoko sagardotegi baten koadrilan betiko magiak egiten nembilela, beste bezero batek esan zidan magia liburu bat zuela. Biaharamunean, 9:00etan bere etxean nengoen liburua hartzeko. Sekulako aurkikuntza izan zen.

**4. Zein da truku onaren gakoa?**  
 Batez ere zure izaerarekin aurkeztea. Bere momentua aurkitzea ere bai: ezin duzu behartu.

**5. Trukua dagoela badakigu, zergatik liluratzeko gaitu magiak?**  
 Hori da magoaren lana, trukurik ez dagoela konbentzitzea. Trukua magiaren zati txiki bat da: magia janzen jakin behar duzu.



AGM

### MAKILA MAGIKOIA BANEUKA...

#### "Kartzela guztiak hustuko nituzke"

"Ziri magikoa deitzen diogu, eta arreta desbideratzeko erabiltzen dugu: ziria ateratzek esan gura du beste eskuarekin zerbait egiten ari garela; ikuslegoa engainatzen ari garela. Ziri ona dudala pentsatuta, kartzela guztiak hustuko nituzke: bertan egon behar ez direnak kanpora; eta kanpoan egon arren barruan egon behar luketenak, barrura".

**6. Zeintzuk dira engainatzeko errazagoak, helduak ala umeak?**  
 Helduak. Hamabi urtetik beherako umeak fantasiatsua dira; magia ikustean berehala aurkitzen dute erantzun ilogiko bat. Helduak mundu logikoan bizi gara eta hori apurtzean mutu geratzen gara, hasieratik engainatuta gaude. Zaila da ume bat harritzea.

**7. Umeak tratatzeko modu deigarria duzu, nahiko zuzena.**  
 Umeak beharrez, modu normalean tratatzen ditut. Ez dut umeendako ikuskizuna bezala saltzen, denontzako baizik. Oholtzan nahiko izaera eroa dut eta umeek eskertzen dute.

**8. Agertoki gainean, magiak huts egiten duenean...**  
 Lepoan hartu eta segi aurrera! Txarrena hasieran edo batez ere, amaieran gertatzea da, horregatik oso ondo lotuta izan behar duzu. Beti saiatzen zara ateraldiren bat izaten, edo truku lagungarriren bat. Taulak izan behar dituzu.

**9. 1979an monopatinean Euskal Herriko txapelduna izan zinen.**  
 Bai, oso ona nintzen. Musikaria ere izan nintzen; baina poltsikoan beti eroaten nituen magiarako lau zorkeria. Surfean ere ibiltzen ginen.

**10. Donostiako leku magikoa?**  
 Haizearen orrazia. Txikitatik asko joaten naiz bertara; nire lekua da. Familiak Txillida ezagutzen zuen, eta haren baimena nuen erakitzeko ari zirela han arrantzan egiteko.

## BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



### Txokolathesia

Euskal gizartean bizi dugun egoerak sortarazitako sentsazio gazigozoz beteta dator; duela hilabete inguru, Donostiako Askegunean bizi izan zena, hito bat bihurtu da. Harresiak, aspaldiko asmakizun dira; baina hau gizaesia izan da. Asmakizun bikaina, halajaina! Ahula ez; malgua agian; harriaren hotzari elkartasunaren berotasuna gehitu diona; indarka saiatu gabe, indar amaigabea erakutsi du; estuki elkar harturik eta irekita aldi berean; orainari aurre eginez, etorkizun hobe baten alde; kartzela zigor injustoak ekiditeko asmoa, kartzela zigorrarekin ordainduz; XXI. mendeko euskal gazteriak erakutsi digu, elkartasun uholde sakonak sortzen badakiela; oraingo, lehen olatuek, Ondarroako badiatxora iritsi dira; herri honek etorkizuna du; arrazoiaren indarra dugulako; eta hortan sinisten duen gazteria adoretzu bat dugulako. Bejondeigula guztioi!

Francesco Tonuccik, "Haurren hiria" eraiki beharraz ohartarazi gaitu; hau da, haurrei galdetu beharraz, nola eraiki behar bako litzatekeen hiria; ez dakit, baina, agian, Baionako "Txokolaterearen egunak" direla-ta, txokolatereko hormak egiten ikasiko bagenu... imajinatzen, adibidez, kartzela guztietako hormak txokolaterekoak balira... Askegunetik, Bateragunera; Arnaldo eta... azken 6 atxilotuak, askatu!

ARETXABALETA

ARRASATE

ARETXABALETA FAGOR banatzaile ofiziala

ARETXABALETA 1950-2013 ARRASATE

## 60 urte baino gehiago

Arkauz zure etxea da.

ARETXABALETA expert banatzaile ofiziala

ARETXABALETA